

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

**POLITIKA ZIENTZIAK ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO
GRADUA**

IKASTURTEA 2022-2023

GENERO DESBERDINTASUNAREN BESTE EZPALA BAT

Genero rolak eta desberdintasunak goi mailako irakaskuntzan

EGILEA: Ihintz Permach Agirre

ZUZENDARIA: Andere Ormazabal Gaston

Data, 2023ko maiatzaren 12a

“Gratu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabean eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

Aurkibidea:

1. Sarrera	4
2. Helburuak	6
2.1. Helburu nagusia:.....	6
2.2. Helburu zehatzak:.....	6
3. Marko teorikoa:	7
3.1. Egiturazko begirada genero desberdintasunei.....	7
3.2. Genero rolak gizarte patriarkatuan.....	9
3.3. Genero desberdintasuna hezkuntzan.....	11
3.4. Genero desberdintasuna goi mailako ikasketetan.....	15
3.5. Genero desberdintasunak komunikazio estiloetarako dagokionez.....	17
3.6. Iruzurtiaren sindromea.....	18
4. Hipotesiak:	21
4.1. Hipotesi orokorra:.....	21
4.2. Hipotesi zehatzak:.....	21
5. Diseinu metodologikoa:	22
5.1. Metodologia.....	22
5.1.1. Metodologia kuantitatiboa.....	22
5.1.2. Metodologia kualitatiboa.....	25
5.2. Eztabaida taldeak.....	26
5.2.1. Eztabaida talde motak.....	26
6. Analisia	28
6.1. Komunikazioa generoaren ikuspegitik.....	29
6.2. Iruzurtiaren sindromea graduan.....	34
6.2.1. Iruzurtiaren sindromearen inkesta.....	34
6.2.1.1. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian “askotan” edo “beti” erantzunak.....	34
6.2.1.2. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian generoaren arabera batez besteko emaitza.....	36
6.2.1.3. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian emakumeek puntuazio handiena izan duten galderak.....	38
6.2.2. Autopertzepzioaren gaineko ikuspegia.....	40
6.3. Gaitasunak eta genero rolak.....	42
6.3.1. Gaitasun sozio-kooperatiboen galdetegia.....	42
6.3.1.1. Gaitasun sozio-kooperatiboetan emakumeek batez bestekoa handiago duten enuntziatuak.....	42
6.3.1.2. Emakumeen autoebaluazioa lehenengo eta laugarren mailan alderaketa.....	45
6.3.2. Gaitasunak eta genero rolak eztabaida taldea.....	46
6.4. Espazioaren antolaketa genero desberdintasunean.....	52
7. Ondorioak	54
8. Bibliografia:	57

9. Eranskinak:.....59

Edukien aurkibidea:

- Irudiak:
 - 1. irudia: Sexu-genero menderakuntza sistemaren analisirako kategoriak.....14
- Grafikoak:
 - 1. Grafikoa: Emakumeen presentzia ikasketaren arabera.....16
 - 2. Grafikoa: Lehenengo mailako emakume eta gizonen “askotan” eta “beti” emaitzen ehunekoa.....35
 - 3. Grafikoa: Laugarren mailako emakume eta gizonen “askotan” eta “beti” emaitzen ehunekoa.....36
 - 4. Grafikoa: Lehenengo eta laugarren mailako emakumeen batez bestekoaren alderaketa.....37
 - 5. Grafikoa: Emakumeen autoebaluazioa lehenengo eta laugarren mailan.....45
- Taulak:
 - 1. Taula: 1. galdetegiaren erantzun posibleak: Baieztapenaren egiazkotasun-maila.....24
 - 2. Taula: 2. galdetegiaren erantzun posibleak: Gaitasun sozio-kooperatiboak.....25
 - 3. Taula: 1. Eztabaida taldearen profilak.....28
 - 4. Taula: 2. Eztabaida taldearen profilak.....28
 - 5. Taula: 1. mailako emakumeek puntu gehien lortu dituzten erantzunak.....38
 - 6. Taula: 4. mailako emakumeek 4 baino puntuazioa handiagoa lortu dutenak.....39
 - 7. Taula: 1. mailakoek emakumeek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa.....43
 - 8. Taula: 4. mailakoek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa.....43
 - 9. Taula: Rol eta zereginak generoaren arabera.....47

Abstract:

Gaur egun genero desberdintasuna gizarteko esparru askotan dagoela antzeman daiteke eta unibertsitatea bezalako goi mailako hezkuntza erakunde publikoetan ere honela izaten da. Generoaren aldagaiak, emakume eta gizonen artean desberdintasun garbiak ezartzen ditu, ikasgelan parte hartzeko orduan edo talde lanak egiterakoan besteak beste. Hain zuzen ere, unibertsitatean, gizartean ezarrita dauden genero esterotipo eta rolak modu berean erreproduzitzen dira. Ondorioz, lan honen helburua unibertsitatean ematen diren genero desberdintasun nagusiak azalratzea da eta egoera hauek irauli ahal izateko eszenatoki posibleak irudikatzea.

Hitz gakoak: Genero desberdintasuna, unibertsitatea, eskoletako dinamikak

Palabras clave: Desigualdad de género, universidad, dinámicas escolares

Key words: Gender inequality, university, school dynamics

1. Sarrera

Graduaren bidaia luzea izan da eta iada helmugara iristen ari naiz. Helmugan aingura jarri ahal izateko gradu amaierako lana egitea falta zait eta hemen bidaia guztian zehar ikasi ditudan jakintzak eta ezagutzak praktikan jarri nahi izan ditut. Genero desberdintasuna eta emakumeen ahalduntzea urte hauetan gai garrantzitsuak izan dira nire bizitza prozesuan aurrera egin ahal izateko horregatik bide berdinetik jarraitu nahi izan dut lan hau egiteko. Gainera, ezpalaz ezpala desegiten da patriarkatuaren enborra.

Gradu amaierako lana nire graduan ikasleen artean ematen diren desberdintasun eta elkarrekintzei buruz izango da. Lehen aipatu bezala, gaia niretzat adierazgarria da eta horregatik pentsatu nuen Ikasiker beka, hau da, ikasleak ikerkerta munduan murgiltzeko beka eskatzea niri gustatzen zaidan gai bat sakonki aztertu ahal izateko. Horretarako, Parte Hartuz ikerketa taldearekin jarri nintzen kontaktuan, beraien ikerketa lerro bat jarraitu eta ikerketa duin bat egiteko. Ikerketaren denboran zehar nire Ikasiber bekako tutorea Igor Ahedo irakaslea izan da.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Horretaz gain, nire graduko irakasle eta Parte Hartuzeko irakasleen artean bazegoen unibertsitateko genero desberdintasunari buruz interes bat. Gainera, Irakasle talde bat, tartean Igor Ahedo eta Andere Ormazabal, eta ikasle batzuk Hezkuntza Berriztatze Proiektu (PIE, Proyecto de innovación educativa) bat aurrera eramaten ari dira eta aukera aproposa iruditu zitzaidan beraiekin talde lanean aritzea.

Proiektuaren izenburua “Desvelando y gestionando las desigualdades de género en Sociología y Ciencia Política” da. Hezkuntza proiektu berritzaile honen asmoa da EHUko Soziologia eta Zientzia Politikoko graduetako irakasleek ikasleen zerbitzura tresna eraginkorra jartzea beraiek desberdintasunak ikusarazi, ebaluatu eta kudeatzeko. Honen ondorioz, galdetegiak eskuratzeko erraztasunak eman dizkirate eta nik euskarara itzuli izan behar ditut eta ikasgela desberdinetatik pasa.

Nire gradu amaierako laneko tutorea Andere Ormazabal irakaslea da, bera Parte Hartuz taldeko kidea zenez eta nire irakaslea izandakoa berarekin egitea erabaki nuen. Orduan, kurtsoan zehar lana egiten joan naiz eta bere laguntza izan dut prozesua egiten joan naizen bitartean.

Ikasleen artean ematen diren genero desberdintasunak aztertu nahi izan ditut eta emakumeek jasaten ditugun ondorioak azaleratzeko nahia nuen. Gainera, Emakunde, emakumearen euskal erakundea eta beraiek aurrera eramandako ikerketa desberdinak erreferentzia gisa izan ditut. Graduan zehar, hainbat egoeretan bizi izan ditudan bizipenak ea beste ikasleek nola bizi izan dituzten momentu horiek. Garrantzitsua iruditzen zait generoaren arabera dauden desorekak ezagutzea, honela etorkizunerako eszenatoki berriak sortu eta aldaketarako ateak ireki ahal izateko.

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau egiten lagundu didaten pertsona guztiei. Hain zuzen ere, Andere Ormazabal eta Igor Ahedo-ri beraien laguntza eta denboragatik. Horretaz gain, nire gurasoei Joseba Permach eta Esther Agirre-ri urte zail honetan erori naizen bakoitzean altxatzen laguntzeagatik. Azkenik, eztabaida taldeetako kide guztiei eta galdetegiak bete dituzten ikasleei.

2. Helburuak

Atal honetan aurrera eramango dudan ikerketaren helburu nagusia eta helburu zehatzak adieraziko ditut.

2.1. Helburu nagusia:

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien (GKZ) fakultatean Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko (PZKP) graduan ikasgelan ikasleen arteko elkarrekintzak aztertzea.

2.2. Helburu zehatzak:

2.2.1 Hz₁: Komunikatzeko orduan emakume eta gizonengan ematen diren rol desberdinak edo **estilo komunikatiboak** behatzea. Emakume eta gizonen artean ematen diren jarrerak aztertu nahi dira genero menderatze sistema dikotomiko (GMSD) batetik abiatuta. Esate baterako, komunikatzeko orduan beraien joera publikotasunak edo pribatutasunak definitzen duen baita beraien diskurtsoan emozioek edo arrazionaltasun zantzuek menperatzen duten.

2.2.2 Hz₂: Honez gain, **iruzurtiaren sindromeak** emakumeengan eta ez bitarrengan duen eragina aztertu nahiko nuke. Beraien buruarekin duten konfiantza maila lanak, aurkezpenak edo azterketak egiteko orduan, eta zein den bere buruarekin duten borroka egoera horietan.

2.2.3. Hz₃: Ikasleen **gaitasun sozio-kooperatiboak** aztertu nahi ditut eta hauek emakumeen ahalduntzeareki eta genero rolekin duten harremana aztertu. Ikaskideen artean talde lanak egiteko garaian ematen den zereginen eta lan kargaren banaketa aztertzea. Talde lanetan ikasleek hartuko dituzten roletan genero aldagaiaren eragina aztertu nahi da. Irakasleek rol hauen aurrean hartzen duten jarrera aztertu nahiko nuke ikasleen ikuspuntutik.

2.2.4. Hz₄: **Espazioaren antolaketa** genero ikuspegitik ikasgelan nolakoa den aztertu nahiko nuke, elkarrekintzen beste osagai gisa azaleratu nahiko nuke. Hauen barnean;

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

ikasgelan espazioa nola ematen den eta ikaskideak generoaren arabera norekin, zein lekutan eta nola esertzen diren.

3. Marko teorikoa:

Nire marko teorikoan, argi fokoa goi mailako ikasketetako genero desberdintasunek eta arlo hori azaldu duten autore desberdinek dute. Hala ere, horretarako ezinbestean egiturazko ikuspegira zabaldu behar da eta desberdintasunen jatorri estrukturala aztertzea. Horretarako, lehenik, egiturazko genero desberdintasunei buruz arituko naiz, gero, gizarteko genero rola aztertuko ditut. Ondoren genero desberdintasunak hezkuntzan, batez ere, goi mailako hezkuntzan eta generoaren arabera dauden komunikazio estilo desberdinei buruz arituko naiz. Azkenik iruzurtiaren sindromea zer den eta hezkuntzan duen eraginak aztertuko ditut. Izan ere, gai orokorretik zehatzetara egingo dut bidaia.

3.1. Egiturazko begirada genero desberdintasunei

Generoagatik eragiten diren desberdintasuna historian zehar gizartean egon den hierarkia soziala izan da. Gizarte heteropatriarkatu batean bizi gara eta gizonezkoa izan da beti erdigunean egon den subjektua eta emakumea gizonentzako bizi den objektua (Martínez-Bacuña, 2016). Amelia Valcárcel espainiar estatuko filosofoaren aburuz, XIX. mendearen erdialdean “patriarkatu” kontzeptua zerbait positiboa izatetik zerbait negatibo izatera pasatu zen. XX. mendeko 60 eta 70 hamarkadetan feminismoak eragindako aurrerapenen ondorioz, patriarkatua botere-harreman batean oinarritutako egitura gisa definituko da (Puleo, 2010: 3-4).

Ana Lucía Villarreal katedratikoak argitaratutako “Relaciones de poder en la sociedad patriarcal” artikuluan, Zillah Eisenstein (1984) estatu batuar politiko teorikoaren patriarkatuaren definizioa aurki daiteke.

Patriarkatua honela ulertzen da: gizartearen antolamendu hierarkiko maskulinoa da eta, nahiz eta bere oinarri legal instituzionalak iraganean modu esplizituago batean agertu, boterearen

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

oinarrizko harremanek gaur egun arte iraun dute. Sistema patriarkalak indarrean jarraitzen du, ezkontzaren eta familiaren bidez esaterako, edota lana eta gizartea sexuaren arabera banatuz. (...) Botere-egitura horretan emakumearen definizioa ez da klasearen egitura ekonomikoaren arabera definitzen, gizartearen antolaketa patriarkalaren arabera baizik. (Eisenstein, 1984: 88-89).

Silvia Federici idazle aktibista feminista eta marxista italiarraren ideien aditzen badiogu. Berak dio patriarkatua kapitalismoari eta lan erreproduktiboaren kontrolari lotuta dagoen egitura bat dela eta patriarkatua eta kapitalismoa elkarretaz elikatzen direla emakumeen esplotazioa aurrera eramateko. Hain zuzen ere, uste du emakumeek egiten duten lan erreproduktibo ez ordainduaz aprobetxatu izan direla historian zehar emakumeak mendean eta kontrolpean izateko. Gizarteak eraiki duela lan erreproduktiboen eta horiek duten balio baxuaren arazoa (Federici, 2018).

Kate Millett aktibista feministaren arabera, “patriarkatua bi menderakuntza motek arautzen dute: arrak emea menderatzeko gaitasuna du eta arra helduak gaztearen gaineko mendekotasuna du” (Millet, 1995: 70). Patriarkatuak familiaren instituzioan eragin zuzena du. Gizabanakoaren eta gizarte-egituraren arteko bitartekari-lanak egitean, familiak agintari politikoak edo beste mota batekoak ordezkatzeko dituzte. Familia modernoak, gizon eta emakumeentzako rol bereizituak nabarmentzeko, zeregin garrantzitsua du sistemaren osagai horien ugalketan. (Millet, 1995).

Patriarkatuaren aurrean emakumearen emantzipazioaren borrokan etapa eta olatu desberdinak igaro dira eta horietako etapa batean emakume izatea determinismo biologikoaz aldentzen zela azpimarratu zuten. Simone de Beauvoir frantziar filosofoa bezalako autoreek konstruktibismoaren ideia hau gogor landu zuten. “Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da” (Beauvoir, 1949) . Esaldi honekin argi geratu nahi zen gizartean genero desberdintasun argi bat zegoela eta desberdintasun hori determinismo biologikotik haratago zihoala.

3.2. Genero rolak gizarte patriarkatuan

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Gizarte patriarkatuan, gizonen eta emakumeen bereizketa garbia eraman da aurrera. Honen ondorioz, emakumeei rol jakin batzuk, hau da, erreproduktiboak eta gizonen produktiboak diren rolak. Rol hauek generoaren arabera desoreka handitu dute eta gatazka ikusgarria bihurtzea eragin ere.

Arruzza, Bhattacharya eta Fraser autoreek beraien liburuan argi adierazi zuten “gizarte kapitalistetan, erreproduktio sozialaren antolakuntza generoan oinarriturik dago: genero-rolen beharra du eta genero-zapalkuntza tinkatzen du”. (Arruzza, Bhattacharya, Fraser, 2019: 33)

Rolak: Talde barruko (edo gizarte edo erakunde barruko) kokapen bati egotzitako sinesmen, jarreraren eta portaeren multzoa da rola. Kokapen horri dagozkion eginkizunak honakoak izan daitezke: egituraren kokapen horretatik bete behar diren eginkizunak (zuzendariaren rola, esaterako) edo jokaera-estilokoak (izaera, aiurrikoak: isila eta pasiboaren rola, adibidez), edo estrategikoak (liderraren rola...). Munné -k dioen bezala (1970), rola gizarte-eginkizun jakin bat betetzeko behar diren jardueren multzoa da (Apodaka, 2004: 344).

Silvia Federicik bere “El patriarcado del salario” lanean adierazi zuen bezala: Feminista eta emakume gisa, feminitatearen naturalizazioaren aurka borrokatu gara. Feminitateari zereginak, izateko moduak eta portaerak esleitzen zaizkio, emakumeentzat "naturala" bezala ezarrita dagoena. Naturalizazio horrek funtsezko diziplina-funtzioa betetzen du (Federici, 2018: 8).

Gayle S. Rubin antropologo eta teoriko feminista estatubatuarra da. Genero ikasketan eta queer teoriaren arloan aurrerakuntza ugariak egin izan ditu. Hain zuzen ere, generoaren arloari dagokionez, “sexu-genero menderatze sistema” (hemendik aurrera, SGMS) deskribatu zuen gizartean generoaren baitan ematen diren desberdintasunak deskribatu ahal izateko (Rubin, 1975). Generoaren kontzeptua alderdi soziokulturalak, eraikiak eta biologikoak (sexua) bereizteko sortu zen. Analisi feministak dioenez, emakumeen gaineko kontrolean eta menderatzean oinarritutako gizartea antolatze sistemak bat da. (Puleo, 2010).

Rubin-ek dio sexu genero menderatze sistemaren barnean, balio, arau eta praktika sozialak daudela eta sexuen artean funtsezko desberdintasun naturala dagoelaren ideia du oinarri gisa. Ondorioz, gizonak eta maskulinitatea pribilegiatzen dituen hierarkia bat sortzen

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

da, eta emakumeak eta beste genero ez-normatibo batzuk alde batera uzten dituela. Sistema hori norberaren bizitzako esparru desberdinetan erreproduzitzen dela zioen, esate baterako, familian, politikan, hezkuntzan... (Rubin, 1975).

Patricia Martínez Garcíak koordinatzaileak, Delicia Aguado-Peláez ikertzaileak eta Igor Ahedo politika zientzietako EHU-ko irakasleak emakunderen “Genero-desberdintasunak modu kooperatiboak argitzeko eta kudeatzeko ikerketa eta hezkuntza-ekintza”-ren memorian aipatu zen bezala: SGMS-ren ondorioz poloei balio desberdina esleitzen zaie eta hiru oposizio dikotomikoetan banatzen da.

1. Dikotomia publiko eta pribatua.
2. Arrazoia eta emozioen alderaketa.
3. Menderatzailearen eta mendekoa.

Oposizio horien bidez, hainbat espazio eta lan izendatzen dizkio genero bakoitzari. Espazio publikoa eta lan produktiboa gizonekin dago lotuta eta arlo pribatu, erreproduktibo eta zaintza lanak berriz, emakumeekin. (Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021: 7).

SGMS-ren bigarren puntuari aditzen badiogu, ikusi daiteke arrazoia eta emozioen banaketa garbi bat egin dela eta genero bakoitzari ezaugarri bat definitu zaiola garrantzi maila jakin bati atxikituta doana. Esate baterako, emakumeak gehienetan izan dira emozioei lotuta, honela sentisbleago eta pribatuago ikusarazi dituzte. Bestetik, gizonak arrazoiarekin erlazionatu dituzte, arrazoia eta logika elkarrekin joan dira eta honela arrazoiak balio eta pisu handiagoa izan du gizartean. (Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021)

Liberalismoaren ideologia sortu zenetik, idazle gehienek agerian utzi zuten gizonezkoen eta arrazoiaren artean zegoen harremana. Esaterako, batetik, “Gizonaren izaera lege natural batek gidatzen du, zeinaren eduki esentziala arrazoimenak arrazoimen gisa determinatzen duen horretan datzan.” (Locke, 1689).

Bestetik, Wilhelm von Humboldt-en iritziz, “Humboldtentzat, gizonaren benetako helburua, arrazoi aldaezinak adierazten diona da eta ez haren joera aldakorrek adieraz diezaioketena, "bere indar guztiek osotasun bat bezala izan dezaketen formaziorik goren eta proportzionatuena da". (Los límites..., 14)” (Abellán, 2016: 31).

Arruzza, Bhattacharya eta Fraser autoreek beraien liburuan argi adierazi zuten gizartean ematen diren genero rolen banaketa. “Erreprodukzioa, berriz, «familiarren» eremura pasa zen, eta emakumeei eta sentimenduei lotu zitzairen; «zaintza» gisa ezaugarritu zen, eta ez «lan» moduan, «maitasunaren» izenean egiten zela adieraziz” (Arruzza, Bhattacharya, Fraser, 2019: 88). Beraz, ikusi daiteke arlo publiko edo produktiboa eta pribatua edo erreproduktiboaren arteko desberdintasunaren arrakala nabarmena izan dela (Arruzza, Bhattacharya, Fraser, 2019).

Kritika feministak agerian utzi nahi du, lehenik, publiko eta pribatuaren banaketaren eraikuntza nagusiki politikoa dela, eta, bigarrenik, banaketa hori maskulinoa eta femenino bezala izendatzen dela, eta hirugarrenik, horiek baino sakonagoa den banaketa bat aurki daitekeela, arrazoiaren eta sentimenduaren arteko dikotomia (Martínez-Bascuñán, 2016).

Hiru dikotomia horiek SGMS egituratzen duten aldagaiak dira eta genero-arauek hura barneratzen eta legitimatzen laguntzen dute (Martínez-Palacios, 2014). Sozializazioaren bidez txertatzen diren arau sozial batzuk dira eta ondorioz, sistema iraunkorra bihurtzen dute. (Emakunde, 2021).

Lehen aipatu bezala, kapitalismoa eta patriarkatua egitura instituzionaletaz baliatzen da genero desberdintasunak eta rolak erreproduzitzeko. Honen ondorioz, desberdintasun horietako arrakala nabarmenki handitzearen arrazoietakoa bat hezkuntzak duen rolean bilatu daiteke. Izan ere, jaiotzen garen momentutik hezkuntzako arlo desberdinetatik pasatzen gara eta horietako bakoitzak gure heltze prozesuan eta sozializatzeko prozesuan eragin handiak ditu. Horregatik, ezinbestekoa da aztertzea hezkuntzak duen papera genero desberdintasunen arrakala eta ikasleen arteko elkarekintzetan.

3.3. Genero desberdintasuna hezkuntzan

Gizarte patriarkatuak generoaren arabera esleitzen dituen rol jakin horiek gizarteko erakundearen bitartez erreproduzitzen dira. Hezkuntza genero rolak ezartzen dituen eta sozioalizazioan eragin handienetakoa duen erakundea da. Ondorioz, jaiotzen garen

momentutik hezkuntzako erakundeetan hezten gara eta rol horiek emakume eta gizonei transmititzen zaizkie.

Genero desberdintasunaren jatorria argi dago ez doala hezkuntzari lotuta, hain zuzen ere, hau gizarte patriarkatuaren sorrerarekin hasten da eta eraikuntza hori gizon eta emakumei esleitutako rol sozialaren eraketa soziohistorikoaren ondorioz. Esate baterako, Ana Sánchez Bello (2002) hezkuntza-zientzietako irakasleak “El androcentrismo científico: el obstáculo para la igualdad de género en la escuela actual” artikuluan argi utzi zuen emakumeen diskriminazioa ez dela eskolan jaiotzen eta hezkuntza gizartearen parte denez, hezkuntzak gizartean gertatzen dena modu zuzenean islatu edo erreproduzitzen duela (Sánchez, 2002).

Marina Subirats soziologoaren aburuz, hezkuntzako eremuak ez dira eremu neutralak, izan ere, irakaskuntza-espazioak gizonen menderatze-sistema erreproduzitzeko bitarteko bat dira, hau da, gure gizarteetan indarrean dauden botere-harremanak erreproduzitzeko. Izan ere, “genero rola birsortzen dituzten gizarte instituzioak dira” (Subirats, 1999).

Hezkuntza pertsonen sozilizazioa garatu ahal izateko tresna bat ere da. Izan ere, bertan “gizarte-ohiturak, autoestimua, harreman-moduak, sinesmenak bereganatzen dira; hitz batean, giza nortasuna eta haren jarduteko moduak zizelkatzen dira, taldeak pertsona bakoitzarengandik espero duenaren arabera” (Subirats, 2016: 29). Gainera, genero-eredu jakinak eta genero-hierarkia transmititzen dira, ondorioz, jaiotzen garen momentutik eredu horiek barneratzen ditugu (Subirats, 2016).

Santos Guerra hurren hezkuntzaren arloa denbora luzez lantzen egon den ikertzailearen aburuz (2006): Eskolako eguneroko praktiken bidez, kulturaren estereotipoak ikasten eta transmititzen dira, emakumea galtzaile izan den eta izaten jarraitzen duen kultura. Eskola, kate honen beste kate-maila bat da, mitoei eta gizarte-akatsei lotzen gaituena.

Eskola mistoek gizartearen kultura-ereduak transmititzen dituzte eta honela, genero maskulinoa erdigunean jarri eta bere agresibitatea bultzatu eta garatzen da. Gainera, emakumeengan mendekotasuna, gizartean ikusgarriak ez izatea eta bigarren postu batean kokatzea eragiten du. Ezaugarri hauek ondorio kaltegarriak izaten dituzte emakume eta gizonen bizitzaren garapenean (Subirats, 2010).

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Baina, egia da eskolan gertatzen diren genero desberdintasunak, gizartean ematen diren bezala, modu garden batean edo ezkutuan eman daitezkeela. Hain zuzen ere, batzuk argi eta garbi ikusi daitezke; ikasgela barruko portaerak, parte-hartze kopurua generoak alderatuta... Beste batzuk berriz, ez dira hain erraz ikusten, baina horrek ez die desberdintasun horiei duten garrantzia murrizten.

Diskriminazio-moduak jada ez dira agerikoak, gizarte osoak baieztatuak eta aitortuak, baizik eta ikusezinak, edo behintzat aurkitzen zailak, oraindik sakonki androzentrikoa den gizarte batean. Taldeak diskriminatzeko beste modu batzuetan gertatzen den bezala, desberdintasuna transmititzen eta mantentzen duten mekanismoak ikusezin geratzen dira, eta, berdintasun formala oinarri hartuta, maila akademiko edo pertsonaletako desberdintasunak ezaugarri indibidualetatik datozela onartzen da, eta ez horiek sortu eta sistematikoki erreproduzitzen dituzten gizarte-antolamenduko modu batzuetatik (Subirats, 2016: 29).

Emakunde, Emakumeen Euskal Erakundeak, eta Patricia Martínez koordinatzaile gisa 2021ean “Genero-desberdintasunak modu kooperatiboan argitzeko eta kudeatzeko ikerketa eta hezkuntza-egintza” argitaratu zuten eta lan hori oinarri hartuta, ikusi daiteke, hezkuntza-erakundeen gizarteko balioak erreproduzitzen dituztela. “Hezkuntza-erakundeek sozializazio-eragile gisa lan egiten dute, txertatzen diren gizartearen balioak, jarrerak eta portaerak transmititzen eta erreproduzitzen baitituzte (Bourdieu eta Passeron, 1996).” (Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021: 7).

SDSG osatzen duen egitura eta oinarri guztiak, hezkuntza arloan ere jarduten dira. Hezkuntza, ikasketa-planak edo aisialdiko lan-programak, ikasgela bera, sustatzen diren parte hartzeko moduak... elementu horiek guztiak ez dira neutroak. Eraiki ziren momentutik, botere-harreman batzuek zeharkatzen dituzte. Erakundeen neutraltasun eta objektibotasun hipotetikoaren atzean, SGMS-n oinarrituta eraiki dela ezkututzen da. Beraz, gizonen balio, ideia eta ibilbideen gainean eraiki dira (García de León eta García de Cortázar, 1999). (Emakunde, 2021: 7).

Ikasgelan batez ere hitzaren erabileraren segurtasunari dagokionez generoaren arabera desberdintasunak sortzen dira. Emakumeek talde handietan parte hartzeari uko egiten diote eta rol erreproduktiboan ondorioz, talde-lanetan emakumeen lan-gainkarga handiagoa izaten da, nahiz eta irakasleen begietarako ikusezina izan. Produktibo bezala izendatzen diren

alderdiei garrantzi handiagoa ematen zaie, ahozko aurkezpenei esaterako. Hauetan ikasle gizonak abantaila gehiago dute autokonfiantza handiagoa dutelako (Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021).

Bigarren gune analitikoak gazteen arteko topaguneak dira Emakunderen ikerketan bezala, gradu amaierako lan honetan estenatoki garrantzitsua izango da. Akademiak dimentsio horri arreta gutxi eskaini arren, hezkuntza-giroa ikasleen arteko elkarrekintzak ere definitzen du. Izan ere, ikasleen eguneroko elkarrekintzetan generoa antolatzen irizpide nagusi bat da eta honek desberdintasun nabariak sor ditzake. Nahiz eta hau ez izan hain ikusgarria begien aurrean horrek ez du esan nahi ez dituela SGMS-k sortutako desberdintasunak erreproduzitzen (Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021).

Santos Guerrak (2006) egindako ikerketetan ondorioztatu zuen, alde handiak daudela haurretan generoaren arabera espazioa eta denbora erabiltzen dituzten moduetan; desberdintasun horiek agerian daude ikastetxeetan nola jokatzaren ikusten zutenean, eta gero eta gehiago hazten eta agertzen dira ikasleen adinak gora egin ahala. Espazioari dagokionez: jolastokietan eta ikasgeletan nola erabiltzen den behatzeak generoaren arabera haurren portaeren arteko desberdintasuna erakutsi digu, eta genero maskulinoko haurrek espazio komunak monopolizatzeko joera dute.

3.3.1. 1. irudia: Sexu-genero menderakuntza sistemaren analisirako kategoriak




Figura 2: Categorías de análisis

Iturria: Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021

Emakumeen mendeko presentziari erreparatzen diogu, bigarren mailako eginkizunaren mende egoteaz gain, maskulinitate hegemonikoaren neurritz gaineko adierazpenean ere eragiten du. Alde horretatik, gazteek generoaren araberako rolak ere esleitzen dituzte. Beraiek hartzen dituzte lidergo-posizio publikoak (Cantón, 2007; Blakewood eta Ohlson, 2020) eta produktiboak. Emakumeei, berriz, izaera erreproduktiboa, pribatua eta emozionala duten rolak naturalki esleitzen zaizkie (Lawrence et al., 2006; Chen, 2019) ((Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo, 2021).


3.4. Genero desberdintasuna goi mailako ikasketetan

Aurreko atalean azaldu bezala, hezkuntzak genero desberdintasunean paper garrantzitsua jokatzeko du. Goi mailako ikasketak hezkuntzako parte diren heinean, ikusi daiteke, goi mailako hezkuntzan ere generoaren araberako desberdintasunak ematen direla, baita rol produktibo eta erreproduktiboak ezarri generoaren arabera.

Azken urteetan, ikasle gehiago matrikulatu dira unibertsitate-graduetan eta esate baterako, ikasketa-adarren arabera oso modu desberdinean daude banatuta generoaren arabera. Ikerlari batzuek uste dute hautu desberdin horiek lotura dutela emakumeei diziplina zientifiko batzuk oraindik arrotzak egiten zaizkielako izan daitekeela, naturarekiko abusuzkoegiak direlako edo botere-moduekin lotuta daudelako, eta horienganako gertutasunik sentitzen ez dutelako (Grañeras, Del Olmo, Gil, García, Boix, 2001: 88).

Hain zuzen ere, nahiz eta aurrerapenak eman diren eta geroz eta emakume gehiago sartu diren unibertsitateko gradu desberdinetara oraindik ere, argia da graduaren arabera emakume eta gizonen artean dagoen diferentzia.

3.4.1 1. Grafikoa: Emakumeen presentzia ikasketaren arabera.



Iturria: Fundación CYD

Gender Monitorearen datuek erakusten dutenez, emakumeek goi-mailako hezkuntzan aukeratzen dituzten ikasketa motei lotutako genero-estereotipoak daude oraindik ere (Fundación cyd, 2022). Ildo horretik, ez da harritzekoa emakume gehien matrikulatzen diren jakintza-arloa Osasun Zientziak izatea, hain zuzen ere, eremu pribilegiatua da pertsonen zaintzarekin lotutako praktika femeninotzat hartzen direnak garatu ahal izateko.

Grafikoan argi ikusten denez emakumearen presentzia osasunaren edo hezkuntzaren arloan handiagoa da beste graduetan baino. Hau gizarte patriarkatuan emakumeei ezarritako genero rolek hertsiki lotuta dago, izan ere, zaintzarako ezarrita duten zereginarekin. Zientzia politikoetan ikusi daiteke %50 ingurukoa dela emakumeen presentzia, baina soziologiako graduarekin alderatzen badugu esate baterako ikusi daiteke emakumeen presentzia txikiagoa dela. “emakumeek oso gutxi eskuratzen dituzte ikasketa teknikoak, hain zuzen ere, ospe handienekotzat jotzen direnak eta etorkizunean ordainsari handiagoak lortzeko aukera profesional handiagoak dituztenak.” (Merina, 2009: 3)

María Ávila Bravo Villasante genero disziplinarreko ikasketetan aditua den doktoreak 2021. urtean “Propuestas y herramientas innovadoras para introducir la coeducación en la docencia universitaria” izeneko lana argitaratu zuen hezkidetzaren unibertsitateko irakaskuntza

alorrean ezartzeko proposamenei buruz. Hezkuntzaren soziologian erabiltzen den sozializatzeko ditugun prozesu eta erakundeetan sortzen diren curriculum ezkutua deituriko kontzeptua azaldu zuen. Honek aurreiritziak eta estereotipoak transmititzen ditu gizarteko klaseekin, jatorria, generoa edo etniarekin lotura zuzena dutenak (Cistierna, 2002).

Espekto zabaleko mezu eta jarrera batzuei bati buruz ari gara, eta horiek, lehenik eta behin genero-estereotipoak eta genero-rolak txertatzen laguntzen dute. Bestalde, ezagutza lerratuak eta guztiz androzentrikoak transmititzen laguntzen dute. (Villasante, 2021: 452-453)

3.5. Genero desberdintasunak komunikazio estiloei dagokionez

Generoaren desberdintasunak aztertzeke orduan komunikazio estiloak aztertzea ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, begiekin ikusi eta belarriekin entzun daitekeen gauza bat da. Gizarteko erakundeen bitartez rol desberdinak esleitzean, komunikazio estilo desberdinak ere ezartzen dira generoaren arabera eta honek beraiengan gaitasunak edo zailtasunak sor ditzake.

Ikasgelan genero desberdintasunak sorrarazten dituen beste aldagai bat komunikatzeko duten gaitasuna da. Izan ere, komunikazio estilo desberdinak ezarri zaizkie gizonari eta emakumei jaiotzen diren momentutik eta honek parte hartzerako orduan arazoak sortzen dizkiete.

Mercedes Bengoecheak 2004an argitaratutako “Influencia del uso del lenguaje y los estilos comunicativos en la autoestima y la formación de la identidad personal” eta “La comunicación femenina” lanetan azaldu zuen txikitatik komunikazio estilo desberdinak garatzen dituztela emakume eta gizonen. Hain zuzen ere, emakumeek erabiltzen duten komunikazio estiloa kooperatibo bezala deskribatzen du. Honen ezaugarri nagusiak, neskek nahiago dute komunikazio-estilo kooperatiboak garatu: iraunkorra den erantzuna ematen dute eta galderak tartekatzen dituzte. Horrez gain, adostasuna bilatzen dute besteengan, irekitasuna erakusteko berriz, irribarrea egiten dute eta, elkarrizketetan hitza noizean behin hartzen dute.

Emakumeen estilo komunikatiboari buruz aipatzen du “adostasuna bilatuko dute baieztako perpausen ondoren adierazitako galderen bidez (badakizu?, ez duzu uste?, ez zaizu iruditzen? ezta?)” (Bengoechea, 2004a: 4). Bestetik, “umetatik, diskurtso maskulinoa besteei baieztako pertsonala emateko bitarteko bat da informazioa transmititzen delako, horregatik,

gizonek ahuleziarik ezta intimitaterik ere ez erakustea aukeratzen dute, eta nahiago dute hitz egin entzun baino.” (Bengoechea, 2004a: 5).

Honez gain, aipatzen du batzuetan emakumeekiko hitzezko abusua ematen dela, esate baterako, beste pertsona bati hitza moztu eta aurkezpen bat amaitzea eragozteko edo gehiago kezkatzeak inpresionatu edo beraien iritzia inposatzeaz, elkarrizketa aurrera eramateaz baino. Honek emakumeengan autoestima eta konfiantza galtzea, defentsa-jarreran jartzea eta ihes egiteko nahia sorrarasi dezake.

Izan ere, gizonek espazio fisiko gehiago okupatzea lortzen dute beraien hitz egiteko moduaren ondorioz eta seguru sentitzen dira adierazpenak egitean. Ikerketen ondorioz aztertu da gizonek hiru aldiz gehiago hartzen dutela hitza eta denbora gehiago hitz egiten dutela emakumeek baino. Emakumeak berriz, ez dira seguru sentitzen jendearen aurrean hitz egin behar dutenean eta nahiago dute espazio seguruetan hitz egin (Bengoechea, 2004a).

Azkenik, unibertsitatean, emakumeen eta beraien munduaren ikusezintasuna ematen da, esate baterako, emakumeek arlo desberdinetan egindako ekarpenak ezkututzen dira. Argi dago emakumeek rol garrantzitsua izan dutela giza garapenean eta ez zaie ematen gizonei ematen zaien ikusgarritasun berdina (Villasante, 2021).

3.6. Iruzurtiaren sindromea

Unibertsitatean dauden genero desberdintasunetan, batez ere genero rolek eta emakumeek izaten dituzten jarreretan iruzurtiaren sindromeak eragin handia du. Izan ere, konfiantza falta dute eta askotan pentsatzen dute ez direla argiak edo besteekin alderatuta gutxiagoak direla. Honek beraien ikasketa prozesuan eta unibertsitatean eragina du honen ondorioz, generoaren artean desberdintasunak handitzen direlako eta oztopoak sorrarasten dizkielako aurrera jarraitzeko.

Iruzurtiaren sindromea (gazteleraz *síndrome de la impostora*) fenomeno psikologiko bat da, honen ondorioz, pertsona batzuk ez dute bere buruan sinisten eta pentsatzen dute ez direla behar bezain trebeak edo adimentsuak lan edo zeregin bat egiteko orduan. Hala ere,

bizitza errealean argi geratzen da trebeak direla eta lorpenak izaten dituztela. Baina, beraien buruarengan konfiantzarik ez dutenez, askotan sentitzen dute lorpenak zoriz izan direla eta ez beraien merezi dutelako. Sindromea duten pertsonak sentitzen dute besteei iruzurra egiten ari direla.

Sindrome hau lehen aldiz Pauline Rose Clance eta Suzanne Imes psikologek garatu zuten 1978an argitaratutako “The Imposter Phenomenon in High Achieving Women: Dynamics and Therapeutic Intervention” (Iruzurtiaren fenomenoaren lorpen handiko emakumeetan: Dinamikak eta esku-hartze terapeutikoa) artikuluan.

Familiatan ematen diren dinamikek eta gizarteko sexu-rolaren estereotipo nabarmenek fenomeno iruzurtia garatzen laguntzen dute. Lorpen akademiko eta profesionalak eskuratu arren, iruzurtiaren fenomenoaren jasaten duten emakumeek adimentsuak ez direla pentsatzen jarraitzen dute eta kontrakoa pentsatzen dutenari iruzurra egiten diela (Clance eta Imes, 1978).

Artikulu horretan azaldu zuten arlo desberdinetako emakumeekin ikerketa bat eraman zutela aurrera beraien buruarekiko zuten ikuspegia aztertzeko. Deskribatu zuten nola gizonek menperatzen dituzten arloetan, emakumeek arrakasta izaten bazuten iruzurtiak sentitzen zirela eta pentsatzen zutela beraien arrakasta zoriarekin edo errata batekin lotura zuela.

Iruzurtiaren sindromea ohikoagoa izaten da emakumeen artean baina edozein pertsonari eta generori eragin diezaiolke. Sindrome hau duten pertsonak antsietatea, depresioa, autoestimua baxua, segurtasun-gabezia eta lana egiterako orduan estresa bezalako zantzuak jasaten dituzte.

Clancek eta Imes psikologek adierazi zuten iruzurtiaren sindromea tratatu ahal izateko terapia konponbide eraginkorra izan daitekeela. Terapia honen bidez, pertsona hauek gaitasuna izango lukete beraien buruarekiko autoestimua handitzeko, pentsamendu negatiboak aurre egin eta bere buruarengan duten konfiantza handitu ahal izateko.

Élisabeth Cadoche kazetariak eta Anne de Montarlot psikoterapeutak 2021ean “El síndrome de la impostora. ¿Por qué las mujeres siguen sin creer en ellas mismas?” izeneko lanean sindromearen buruz eta norberarekiko konfiantzaren garrantziari buruz idatzi zuten.

Lanean aipatzen dute norberarekiko konfiantza izateko hiru gaitasun ezinbestekoak direla. Lehen, beharrezkoa den onespena lortzeko ez bilatzea beste pertsonen kontsiderazioa. Bigarrenik, norberak bere buruarekiko ezagutza zabala izatea, indarguneak eta ahulguneak ondo ezagutu eta desafio eta desioen aurrean zintzoa izatea. Azkenik, porrotak jasateko, barneratu eta integratzeko gai izan behar da, bizitza eta irakaskuntza prozesuaren zati bat delako. Denak eragiten du norberarekiko konfiantzan: izandako eskola-ibilbidea nolakoa izan den, familian izan duen lekua, familiak nola kudeatzen dituen porrotak eta garaipenak... (Cadoche eta Montarlot, 2021: 18).

Diskurtsoa norberaren errura, izaeraren ezaugarri edo ahuleziara mugatzearekin lortzen dena da norberak bere buruarekiko duen iritzia suntsitzea, bere burua mesprezatzea eta, horrela, arrakasta lortu ahal izateko bere gaitasun propioaren konbentzimendua aldatzea. Beraz, neskek joera handiagoa dute barne-esleipenerako, hau da, honako hau pentsatzeko: porrot egiten badut, nire erruz da. Mutilek berriz, kanpo-esleopenerako joera dute: porrota, azterketa zailegia delako, irakaslea zorrotzegia delako... (Cadoche eta Montarlot, 2021: 21).

Informazio guzti hau baliagarria izan da gaur egun genero desberdintasunen aurrean dagoen egoera ulertu ahal izateko. Gainera, hezkuntzan ematen diren generoaren arabeko desoreketan murgiltzeko aukera izan dugu eta emakumeengan eragina izaten duen iruzurtiaren sindromea ezagutu hipotesiak proposatu eta gero analisisia egin ahal izateko.

4. Hipotesiak:

Atal honetan nire ikerketarako pentsatu ditudan hipotesiak adierazi ditut.

4.1. Hipotesi orokorra:

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien (GKZ) fakultatean Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko graduan ikasgelan ikasleen artean generoaren arabera desoreka nabariak ematen direla.

4.2. Hipotesi zehatzak:

Hipotesi zehatza 1: Komunikatzeko orduan emakume eta gizonen artean ezaugarri jakin batzuk atxikitzen dira. Gizonek lidergoaren jarrera publikoak eta produktiboak (ahoz hitz egin edo ideiak proposatu) dituzte, ez dute publikoaren aurrean hitz egiterako arazorik, parte hartze handiagoa eta beraien diskurtsoa arrazionalagoa da. Emakumeek berriz, izaera erreproduktiboa dute, ixilagoa eta arlo pribatua eta emozionalekin hertsiki lotuta egoten da, gainera, arazoak izaten dituzte parte hartzeko eta publikoan hitz egiteko.

Hipotesi zehatza 2: Iruzurtiaren sindrome graduan ohikoagoa da emakumeengan eta honek beraien errendimendu mailan eragina du. Izan ere, lanak, aurkezpenak edo azterketan egiteko orduan ez dute beraien buruarekiko konfiantza izaten eta ohikoena da pentsamendu negatiboak izatea eta estres egoerak.

Hipotesi zehatza 3: Gaitasun sozio-kooperatiboetan desberdintasunak daudela generoaren arabera eta graduaren mailaren arabera, ondorioz, gaitasun handienak laugarren mailako emakumeek izango dituztela, ahalduntze prozesua kontuan hartuta. Gizonezko eta emakume ikaskideen harremanen artean talde lanetan beti daude errepikatzen diren rolak eta zereginak. Zeregin batzuk (talde lana dinamizatu, idazkari lanak, lan karga handia...) gehienetan emakumeek egiten dituzte eta gizonezkoek beste batzuk (publikoan hitz egin, ideiak bururatu...). Gainera, irakasleek izaten dituzten jarrerak ez dute genero roletan aldaketak sortzeko gaitasuna.

Hipotesi zehatza 4: Espazioaren antolaketan genero ikuspegitik aztertuz badaude begibistan dauden egoera batzuk, esate baterako, gizonezkoak eta emakumezkoak ikasgelan multzo desberdinetan esertzen dira. Hain zuzen ere, gizonezkoak alde batetik eta emakumezkoak, ez bitarrak beste alde batetik.

5. Diseinu metodologikoa:

5.1. Metodologia

Metodologiari dagokionez, mistoa izango dela esan dezaket, izan ere, ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren uztarketa eramango dut aurrera. Lehenik eta behin, bigarren mailako informazio iturrietaz baliatuz, informazio bilaketa egingo dut. Arlo kuantitatiboan lehenengo eta laugarren mailako ikasleek auto-ebaluazioa eta iruzurtiaren sindromearen inguruan dituzten pentsakerak aztertzea. Arlo kualitatiboan berriz, graduako maila desberdinetako ikasleek ikasgelako genero desberdintasunak nola bizi dituzten ezagutu nahi dut, izan ere, ikaskideen arteko dinamikak eta ikasleen diskurtsoa ezagutu ikuspegi mikro batetik.

5.1.1. Metodologia kuantitatiboa

Ikerketa aurrera eramateko, galdetegi desberdinak pasatuko ditut Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoa graduako kurtso desberdinetako klaseetan ikasleen iritziak eta ikuspuntuak jasotzeko talde lanei eta rolei dagokionez. Galdetegi hauetan, graduan zehar talde lanak aurrera eramateko garaian, egiten den zeregin eta lan kargaren banaketa, ikasteko eredu desberdinak eta iruzurtiaren sindromea aztertu nahi izango dira.

Patxi Juaristik (2003) argitaratutako “Gizarte ikerketarako teknikak” lanean honako hau adierazi zuen gizarte ikerketak aurrera eramanez ahal izateko inkestak teknika egokiak direla aipatu zuen. “Inkestaren lehen oinarri metodologikoa da, kanpo portaera behatuz ezin dugula gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahia hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela” (Juaristi, 2003: 85).

Asier Blasek (2008) “Politika- eta administrazio analisirako metodologia eta teknikak” lana argitaratu zuen izenak dioen bezala arlo horietako analisietarako teknikak azaltzen. “Inkestak informazio mota oso desberdinak lortzeko erabiltzen dira gehienetan. Printzipioz, eduki eta dimentsio tenporalengatik berezita, sei informazio mota desberdinduak ditut.” (Blas, 2008: 105).

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

- a. Inkestak balio dezake inkestatuaren (pertsona, enpresa, elementuaren...) egoerari buruzko datuak eskuratzeko. Non jaio den, non bizi den, ezkondata dagoen, etab. Identifikazio-galderak dira horiek.
- b. Pertzepzioak jaso ditzake. Hau da, inkestatuek dakitena edo ustez dakitena.
- c. Gertaerei buruzko informazioa jasotzeko beste batengandik.
- d. Inkestatuaren gertaerei edo objektuei buruzko iritziak biltzeko.
- e. Jarrerak, motibazioak eta sentimenduak.
- f. Portaerak.

Inkesta bat egitearen abantailak informazio iturri aberatsa dela eta teknika oso egokia erraz zenbatu daitezkeen fenomenoak aztertzeko. Gainera, galdetegietan lagin handiagoa izatea errazagoa da arlo kualitatiboan baino, eta ondorio orokorrak eskuratu ahal izateko. (Juaristi, 2003).

Desabantailei dagokionez, galdetegia erantzun behar duten hainbat pertsonen arazoak izan ditzakete galderak erantzuteko orduan. Autore batzuek pentsatzen dute, galdetegietan eskuratzen den informazioa azalekoa eta balio gutxikoa dela, balioa duena zenbakien azpian ezkututzen den sakoneko informazioa da. Ondorioz, informazio hori eskuratzeko irtenbidea sakoneko elkarrizketak, bizitza historiak eta eztabaida taldeak egitea da, adierazgarritasuna ziurtatu ez baina aztergai diren fenomenoaren ezaugarriak sakonean ezagutzea ahalbidetzen duten teknikak (Juaristi, 2003).

Honen ondorioz, iruzurtiaren sindromeari buruz Clancek eta Imes-ek egin zuten galdetegi estandarra pasatzea iruditu zait egokiena. Galtegi estandar horren bidez ikasleek iruzurgilearen sindromea aztertzen duten 20 galdera erantzun dituzte. (Eranskinean atxikituta 61. orrialdean) Horretaz gain, Parte Hartuz ikerketa taldeak ahalbideratu dit gaitasun sozio-kooperatiboak aztertu ahal izateko 20 galderako galdetegia. Gaitasun sozio-kooperatiboaren testa SAE-HELAZ EHUko hezkuntza-aholkularitzako zerbitzuak eginga da. (Eranskinean atxikituta 68. orrialdean).

Bi galdetegiak lehenengo eta laugarren mailako ikasleen artean pasatzea erabaki dut, lehenengo mailatik laugarren mailara ematen diren aldaketak aztertzeko. Iruzurgilearen galdetegia lehenengo mailako 13 emakumeek, 8 gizonen eta ez bitar batek erantzun dute

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

75etik, hau da, %28ak. Laugarren mailan berriz, 7 emakumeek, 12 gizonen eta ez bitar batek 28 ikasletik, hau da, %71,43ak.

Bi ez bitar bakarrik zeudenez genero hau analisi kuantitatiboan ez ikertzea erabaki dut, izan ere, dauzkadan datuekin ez litzateke adierazgarria izango. Hala ere, ez bitarren ikuspegia kontuan hartu nahi izan dut eta eztabaida taldeetarako ez bitar batekin kontaktatzea erabaki nuen, Izan ere, eztabaida talderako beste ikuspegia desberdin eta ezinbesteko bat iruditzen zitzaidan eta bere egoeraren ezagutza eskainiko zuela pentsatzen nuen.

Pasa dudan inkestarekin gradu honetako emakumeengan iruzurtiaren sindromea izenekoa ea ematen den aztertu nahi izan dut eta gizonekin dituzten diferentziak ere. Galdera bakoitzean, baieztapenaren egiazkotasun-maila hobekien adierazten duen erantzuna aukeratu behar izan dute.

5.1.1.1. 1. Taula: 1. Galdetegiaren erantzun posibleak: Baieztapenaren egiazkotasun-maila

Bieztapenaren egiazkotasun-maila
1. Inoiz ere ez
2. Oso gutxitan
3. Batzuetan
4. Askotan
5. Beti

Iturria: lanaren egileak egin.

Bigarren inkestak gaitasun desberdinen aurrean zein portaera duten aztertu nahi du. Izan ere, norberaren gaitasun sozio-kooperatiboan autoebaluazioa aztertu nahi dugu. Lehenengo mailan 20 emakumek eta 15 gizonen hartu dute parte 75etik. Laugarren mailan berriz, 10 gizonen eta 7 emakumeek 28 ikasletik, hau da, %60ak. Gaitasun sozio-kooperatiboak aztertzekeo galdetegi honetan erantzunetan 1etik 7ra zenbakia aukeratu behar izan dute.

5.1.1.2. 2. Taula: 2. Galdetegiaren erantzun posibleak: Gaitasun sozio-kooperatiboak

Gaitasun sozio-kooperatiboak
1. Inoiz edo ia inoiz ez
2. Oso gutxi
3. Gutxi
4. Ez asko ez gutxi
5. Batzuetan
6. Nahiko maiz
7. Beti edo ia beti

Iturria: lanaren egileak egina.

Bi inkestak eranskinean atxikituta daude.

5.1.2. Metodologia kualitatiboa

Behin, galdetegiak pasa eta lehen mailako informazio hori esku artean izatean, metodologia kualitatibora egingo nuke salto. Honela, bi eztabaida talde osatuko ditut eta ikasle emakume edo ez bitarren diskurtso eta pertzepzioetan sakontzeko aukera izango dut. Baliabide honek azaltzea edo deskribatzea baino, gertatzen dena ulertzea du helburu. Eztabaida talde bakoitzean lau pertsona egongo dira eta beraien ikuspuntua aztertuko da. Bigarren faseari dagokionez, eztabaida taldearen bidez, estilo komunikatibo desberdinak, talde lanetako rolak eta beraien buruarekiko konfiantza maila nola bizi duten ezagutu nahiko nuke.

Asier Blasek (2008) argitaratutako lanean eztabaida taldeak zer diren adierazi zuen eta horiei buruz luze idatzi ere:

Ikerketaren ikuskera estrukturala garatzeko balio du bereziki, eta, beraz, abiapuntu metodologikoa sakoneko elkarriketaren oso antzekoa da. Desberdintasun nagusia da

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

galderak pertsona bakarrari egin beharrean, talde bati egiten zaizkiola. Asmoa da gai baten inguruko iritzi eta ikuspegiak ezagutzea eta aztertzea harremanetan daudenean, zein den bakoitzak duen diskurtsoa, argudiatzeko moduak, etab. (Blas, 2008: 115-116)

Profila aukeratzeko orduan kontuan izan ditut aldagai jakin batzuk. Hain zuzen ere, emakumea edo ez bitarra izatea, genero desparekotasunerekiko gertutasuna izatea eta Politika Zientzietako gradua ikastea eta adin desberdinetako ikasleak izatea. Honekin, urte desberdinetako jendea lortu dut graduko mailaren azterketa ere egin ahal izateko. Aldagai hauek kontuan izanda, profil desberdineko ikasleak lortzeko gaitasuna izan dut.

5.2. Eztabaida taldeak

5.2.1. Eztabaida talde motak

Eztabaida taldean egongo diren ikasleen aukeraketa egitean nortzuk eta zenbatek parte hartuko duten erabaki behar izan dut. Aukeraketa egitean, gaiarekiko ezagutza bat izatea ezinbestekoa iruditu zait eta talde adierazgarri bat osatu ahal izatea, horren arabera zazpi emakume eta ez bitar batekin kontaktatzea erabaki nuen. Ikertu nahi dudan gaiarekin zerikusia duten ikasle guztien artetik batzuk hartzean, aztertzen ari garen unibertsoaren talde adierazgarria dugu.

Aipatu beharra daukat, lehen mailako ikasle batek Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoa eta Soziologiako gradu bikoitza ikasten duela. Bestalde, hirugarren mailako ikasle batek Soziologiako gradua ikasten du, izan ere, ezin izan dut emakume batekin kontaktatu. Hala ere, aipatzekoa da lehenengo maila bi graduentzako berdina dela eta bigarren mailan ikasgai ugari bi graduak batera egiten direla.

Zortzi pertsonako talde eztabaida egitea gehiegi iruditzen zitzaidan, nahiago nuen ikasle gutxiagorekin egin, seguru eta lasai sentiaraztea. Ondorioz, bi eztabaida taldeetan zatitzea erabaki nuen lagina, honela lehenengo eztabaida taldean unibertsitateko ordutegi desberdinen ondorioz, lehenengo mailako bi ikasle eta laugarren mailako bi ikasle daude. Bigarren eztabaida taldean berriz, bi ikasle bigarren mailakoak dira eta beste bi hirugarren mailakoak.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Pentsatu nuen ikasle bakoitzak bere mailako pertsona ezagun bat izateak eztabaida taldean, berari segurtasun gehiago emango ziola. Izan ere, emakume askori gertatzen zaigu lasaitasun moduko bat sentitzen dugula alboan konfiantzazko pertsona bat izateak. Honela, ikasleak espazio seguruan eta ez leku arrotz batean sentitzea lortu nahi nuen. Gainera, ezinbestekoa da ikasleak modu lasai eta eroso batean sentitzea, gaiarekiko pentsatzen dituzten iritziak adierazi ahal izateko eta ahoz hitz egiteko, beraiek jakitea inork ez duela beraien iritzia edo ikuspuntua gutxietsiko.

Taldearen osatzean, talde homogeenak edo heterogeenak osatu ditzakegu. Kasu honetan esan daiteke alderdi bakoitzeko ezaugarriak jasotzen dituztela, esate baterako homogeenoa da, gehienak emakumeak direlako eta ez bitar bat kasu honetan gizoneniko sentitzen dituzten generoarekiko desberdintasunak aztertzeke. Hala ere, taldean barne heterogeneitatearen ezaugarriak dituela ere aipatu dezakegu, izan ere, ezaugarri soziodemografiko desberdinak dituztelako eta unibertsitateko maila desberdinetan daudelako. Ondorioz, ikertzen ari naizen gaiarekin zerikusia duten pertsona mota guztien isla den taldea aukeratu dudala uste dut.

Nabarmendu nahiko nuke eztabaida taldean parte hartu zuten ikasleak izandatzeko A1, B1, A2, B2, A3, B3, A4 eta B4 kodeak erabili ditudala. Hain zuzen ere, izendapen horietako zenbakiak unibertsitateko zenbagarren mailan dauden adierazteko izango da. Gainera, A eta B letrak erabili ditut kurtso bakoitzeko bi ikasleak desberdindu ahal izateko.

5.2.2. 3. Taula: 1. eztabaida taldearen profilak:

Izena	Generoa	Gradua	Maila	Adina	Bizilekua
A1	Emakumea	PZKP + Soziologia	1	18	Araia (Araba)
B1	Emakumea	PZKP	1	18	Iruñea (Nafarroa)
A4	Emakumea	PZKP	4	21	Bilbo (Bizkaia)

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

B4	Emakumea	PZKP	4	21	Bilbo (Bizkaia)
----	----------	------	---	----	--------------------

Iturria: lanaren egileak egina.

5.2.3. 4. Taula: 2. eztabaida taldearen profilak:

Izena	Generoa	Gradua	Maila	Adina	Bizilekua
A2	Emakumea	PZKP	2	19	Hondarribia (Gipuzkoa)
B2	Emakumea	PZKP	2	19	Hernani (Gipuzkoa)
A3	Ez bitarra	PZKP	3	20	Donostia (Gipuzkoa)
B3	Emakumea	Soziologia	3	20	Ermua (Bizkaia)

Iturria: lanaren egileak egina.

Gidoia eranskinean atxikituta dago.

6. Analisia

Analisia egin ahal izateko ezinbestekoa iruditu zait ikerketaren hasieran ezarri nituen helburuei jarraitzea. Lehenik komunikazio estiloaren inguruan ikasleek dituzten pentsamenduak eta bizipenak aztertu nahi ditut. Bigarrenik, iruzurtiaren sindromearen galdetegiak eskuratutako informazioa aztertu eta ondoren gai horrekiko elkarrizketatuek zer pentsatzen duten ezagutu nahi dut. Hirugarrenik, galdetegietan ikertutako gaitasun sozio-kooperatiboak aztertuko ditut eta ikusi generoaren eta mailaren arabera dauden desberdintasunak eta baita generoaren arabera ikasgelan eta talde lanetan ematen diren desorekei buruzko iritzia ezagutu. Azkenik, espazioaren antolaketan genero arabera dagoen egoeraren analisi bat egingo dut.

6.1. Komunikazioa generoaren ikuspegitik

Generoaren arabera komunikazioa estilo desberdinak aztertzeko orduan eztabaida taldeetan eskuratutako informazioa aztertzea da esanguratsuena. Honela, gertutik ezagutu ahal izateko beraien bizipenak eta gelan ematen den parte hartzea. Komunikazioari buruz galdetzean, ikusi da lehenengo bi mailetako ikasleek pentsatzen dutela orokorrean beraien ikasgelan parte hartzea ez dela bereziki oso altua. Baina, pentsatzen dute institutoarekin alderatuta desberdintasunak eta kontzientzia maila askoz handiagoa dela.

Bigarren mailako bi ikasleek adierazi dute irakasleek galdera bat egiten dutenean lehenengo hitza gizonak hartzen dutela beti eta emakumeei gehiago kostatzen zaiela. Beti gizonak daudela gelan hitz egiten eta gizonen parte hartzea handiagoa dela azpimarratzen dute. Berriemaile batek zioen “orokorrean zu ateratzen zea klasetik eta daukazun sentsazioa da, emakumeen ahots gutxi entzuten direla” (A2).

Horrez gain, elkarrizketatu batzuk adierazi zuten gizonak hitz egiten dutenean, ikasleek esan zuten bezala “nik uste dut segurtasunarekin eta irmotasunarekin esaten dutela” (B2) edo “beti daukatela iritzia argiagoa, askoz seguruago, badakitela zertaz ari diren hitz egiten” (A2). Elkarrizketatuek pentsatzen dute normalean mutilak diren ikasleak ez dutela beldurrik hitz egiterakoan edo iritzia adierazteko eta ikusgarriak diren “astakeriak” esaten dituztela. Publikoan hitz egiterakoan gizonak erosoago sentitzen direla emakumeak edo ez bitarrak baino, lotsa gehiago sentitzen dutelako.

Ikasleak ados agertu ziren adierazten gizonak hitz egitean baieztapenak ematen dituztela. Emakumeek edo ez bitarrek beti hitz egiterakoan modalizatzen dugula edo norberaren iritzia bezela adierazi besteek ez dutela berdina pentsatu behar argi uzteko. Ikasle batek esan zuen “Eta gurea da gehiago zurekin erlazionatuta, galdera bukatzean “ez? edo ezta?” esan eta hori askotan, emakume askotan, ni barne” (A2). Bengoecheak (2004) berretsi zuen bezala, emakumeek adostasuna bilatuko dute baieztako perpausen ondoren adierazitako galderen bidez, adibidez: badakizu?, ez duzu uste?, ez zaizu iruditzen? ezta?.

Pentsatzen dute emakumeek edo ez bitarrek hitz egiten dutenean aprobazio bat bilatzen dutela, albokoari galdetzen edo besteen begiradak bilatzen. Aipatu zuten irakasleak

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

galdera bat egitean norberaren albokoarekin hitz egiteko joera daukatela eta lagunaren adostasun hori lortzean agian ausartzen direla publikoan esaten, baina hasiera batean ez dutela altuan hitz egiteko gaitasuna. Klaseko mutilek gauzak kontrastatu gabe esaten dituztela, ez dutela inoiz bilatzen aprobazio hori eta irakasleak aprobazioa ez badio ematen ere berdin zaiela. Bengoecheak (2004) egin zuen ikerketan ikusi zen bezala, emakumeek adostasuna bilatzen dute besteengan ondo egin dutela sentitzeko.

Emakumeek berriz, beraien iritziarekin ez bada adostasun bat sortu gaizki sentitzen dira, pentsatzen dutelako eman duten iritzia ez dela garrantzitsua edo ez duela balorerik. Izan ere, hitz egin ondoren emakumeok buelta asko ematen dizkietela esan dutenari, ez soilik adierazgarria izatea, baizik eta ea ondo espresatu diren edo ondo ulertu zaien.

Horrez gain, adierazi zuten generoko gaiei buruz hitz egitean ere gizonen gehiago hitz egiten zutela eta esaldi honen ondoren denek barre egin zuten. Haurdunaldi subrogatuari buruz bigarren mailakoen gelan hitz egitean irakasleak ez balu espresuki eskatuko emakumeak isilik geratuko lirateke. Emakumeak nahiz eta gaiari buruz jakin beti bigarren plano batean geratzen direla adierazi zuten. Askotan honelako gaietaz hitz egin denean, ikasleek amorrua sentitzen dute ez dutelako parte hartu.

Gelatik ateratzean eta gelakideekin hitz egitean ere berdina gertatzen zaie beraieko klase kideei, ikasle baten hitzetan: “agian klasetik atera eta denak hitz egiten horren inguruan eta denok dutela gaiarekiko iritzia, askok ez duzula entzuten, oso sakonak direla, oso landuak eta ez dutela esaten eta gero agertzen da mutilek esan dituzten komentarioak...(B3) Gainera, adibidez haurdunaldi subrogatuan oso landuak ez direla izaten eta azalekoak direla txarra edo ona da soilik.

Gainera, hirugarren mailako ikasle batek (A3) adierazi zuen paternalismo batetik hitz egiten dutela eta prostituzioaren kasuan berdina gertatzen dela, esaten dute “emakume horiek esplotatuta daude eta ez dakite”. Edo irakasleak galdera hau egitean “gizartean zer dago? gizonen erantzuna honelakoa zela: kapitalismoa. Eta irakasleak esatean matxismoa ere badagoela, mutilek diote emakumea zapaldua dela pobre izateagatik. Ikasgelako neskek arrituta gelditzen direla dio (B3).

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Gainera, elkarrizketatuek pentsatzen dute emakumeen eta pertsona ez bitarren presentzia ikasgelan ez dela kontuan hartzen klaseak emateko orduan edo irakasleen jarreretan. “Hemen gaude hitz egin dezakegu edozein gauzen inguruan, ez bakarrik generoaren inguruan, maila gauzen inguruan eta nik uste dut hori dela diferentzi handiena, gizonen bai nabaritzen zaie klasean, ez?” (B2). Parte hartzaileek uste dute feminismoari buruz hitz egitean soilik hartzen dela beraien iritzia kontuan eta ez marxismoari edo independentziari buruz hitz egiten denean.

Beraiei amorrua gehien ematen diena da gizonen gizotasun eta harrokeria batetik hitz egiten dutela eta horrek espazioa arrotza bihurtzen duela, hau da, nola hitz egiten duten eserlekuan botata egongo balira bezala, bularra aterata eta jarrera axolagabe batekin.

Gorpuztasunaren eta ahots tonoarekin harira elkarrizketatu batzuek pentsatzen dute eztabaida batean edo hitz egiten daudenean emakumeek askotan eskua altxa edo itxaroten dutela besteek amaitzera eta gero hitz egiten dute. Gizonen, zuzenean esan, ez dutela itxaroten edo gaineratik haien ahots altuago batekin gaineratik hitz egiten dutela.

Gainera, ikasgelatik kanpo, espazio informaletan klase giroan daudenean berdina gertatzen dela uste dute, gizonen parte hartzea askoz zentralagoa dela eta gizonen gustatzen zaizkien gaien buruz hitz egiten dela. Batek esan bezala: “klase giroan emakumeok periferian bezala geratzen garela, eta gure parte hartzea handitzeko baztertu egin behar gara eta talde propioak sortu” (B4).

Generoaz gain, eztabaida taldeetan ohartu naiz emakumeen parte hartzea eragozten dituzten beste faktore batzuk daudela. Laugarren mailako ikasleei dagokionez, biek pentsatzen dute gradua hasi zutenean ezjakintasun batean hasi zirela, hain zuzen ere, oso gutxi zekitelako politikari zegoakionez. Hasieran, pentsatzen zuten ez zutela parte hartzen ez zekitelako ondo gai desberdinei buruz. Baina urteak aurrera joan ahala, nahiz eta laugarren mailan jakintza maila egoki bat izan parte hartzeko zailtasunak dituzte. Bere gelako emakume batzuekin honi buruz hitz egitean ohartu ziren parte hartzea asko kostatzen zaiela. Elkarrizketatu batek adierazi zuen ez parte hartzeko arrazoia honako hau zela: “uste dugulako ez daukagula eskatzen den jakintza maila hori” (A4). Honek lotura zuzena du aurrerago garatuko dutan iruzurtiaren sindromearekin eta horrek sortzen dituen ondorioekin.

“uste dugulako ez daukagula eskatzen den jakintza maila hori” (A4)

Elkarrizketatuek pentsatzen dute maila teoriko garatuagoa dutenak segurtasun gehiagorekin hitz egiten dutela. Ikasle batek uste du maila teorikoa interesgarria dela eta lehenengo mailan gehienak gizonak zirela handiagoa zutenak edo ikusgarriago egiten zutenak. Nahiz eta emakume batzuek gai zehatz batean maila teoriko altua izan gehiago kostatzen zitzaiela pentsatzen dute laugarren mailako ikasleek, agian gai horrek ez duela zilegitasun berdina. Bere ikaskideak amorruta erakutsi zuen feminismoari buruz informatuta dagoelako eta uste duelako graduaren zehar bigarren plano batean kokatzen dela eta balore gutxi eman gatazkari. Gainera, ikasle gehienak ados daude gizonak direla marxismoa asko landuta duten pertsonak eta hori ez baduzu ondo ezagutzen ezjakina bezala sailkatzen dituztela.

Elkarrizketatu batek dio “beraien diskurtsoak teknikoagoak diruditelako eta emakumeenak emozionalagoak direla, eta emakumeak ikasten ari direnean emozioekin lotzeko gaitasunari ez zaiola hainbeste balore akademiko ematen” (B4). Batzuek pentsatzen dute balore handiagoa ematen zaiola akademikoki ikasten denari emozioei baino. Bere klase kideak erantzun zuen norberari exigentzia maila handia eskatzen diogula eta honen ondorioz, pentsatzen dugula ezjakintasun hori daukagula. Honen aurrean, parte ez hartzeko erabakia hartu edo gai horietan gehiago murgiltzen garelako ezjakintasunaren konplexu hori kentzeko.

Laugarren mailako ikasleek diote emakumeak gizonekin konparatuz, karrerak oso txiki sentiarazten zituela. Denborarekin generoaren arazoa landu beharrean, dikotomia edo barne-gatazka azalerratu da eta banaketa argiagoa, arrotzagoa eta bortitza sortu da generoaren arabera ikasgelan eta ikasgelatik kanpo. Beraiek iada ez dute nahi izaten egoera deseroso horretan parte hartzea eta gizonek ere ez dute ezer egiten horren aurrean. Banaketa hori adierazgarria iruditzen zaie politika bezalako karrera batetan non, gai sozialekiko gertutatsun bat dagoela suposatzen den.

Horrez gain, elkarrizketatu batzuek adierazi zuten euskararen aldagaia garrantzitsua dela eta norbera bere buruarekin seguru sentitzeko eta oztopoa dela klasean hitz egiteko garaian. Emakumea edo ez bitarra eta euskararekin segurtasunik ez izateak eragina duela pentsatzen dute, nahiz eta maila ona izan ez dira seguru sentitzen pentsatzen duelako erratak egingo dituela eta horrek auto-exijentzia maila altuagoa eskatzen diote.

Adierazgarria iruditzen zait azpimarratzea eztabaida taldeko emakumeek eta ez bitarrak orokorrean generoaren garaiarekiko gertutasuna dutela, hau da militantzia arloan edo interesa. Honek, beraien pentsatzeko moduan eragina dauka eta baita beraien ikasgelan bizi izaten dituzten gatazkak edo egoerak identifikatu ahal izateko.

Ikasle gehienek talde feminista batean militatzen dute. Horietatik batzuk institutuan hasi ziren militatzen emakumeen aldeko borroka aurrera eramateko. Horretaz gain, batzuek beraien herrian edo auzoetan militatzen dute eta baita unibertsitateko Euskal Herriko Neska Gazteen taldean parte hartu dute. Izan ere generoaren arabera dagoen desberdintasunak bultzatu zien militantzian sartzera, beraien abiapuntua edo beraien identitatea sortzeko arrazoia izan da.

Ikasle ez bitarrak adierazi zuen beti izan zuela generoaren gararekiko gertutasuna. 14 urterekin harrotasun egunera joaten hasi eta ondoren militatzen hasi zen ezkertiarak diren taldeetan generoaren gaiak ikasi eta gatazka horretan borrokatzen. Hondarribiako ikasleak bere herrian alardearekin zegoen gatazkaren ondorioz kontzientzia hartu eta garatzen joan zen bere ingurukoekin batera. Hondarribiko emakumea unibertsitatera iristean gehiago interesatu zen eta genero diskriminazioen zergatia aztertu nahi izan zuen, batez ere, parte hartzeko edozein lekuetan.

Ikusi daiteke gaiarekiko gertutasuna izateak eta generoaren gatazkari buruz kontzientzia maila bat izateak beraien diskurtsoan eragina duela. Beraz, esan daiteke gertutasun edo jakintza horrek tresna batzuk ematen dizkiela, esate baterako, feminismoan oinarritutako ikuspegi bat eta egoeraz ohartu eta genero desberdintasunak identifikatzeko gaitasuna ematen die.

6.2. Iruzurtiaren sindromea graduan

Komunikazio estiloetan adierazi duten bezala emakumeek eta ez bitarrak arazoak izaten dituzte parte hartzeko garaian. Izan ere, konfiantza baxua dute beraien buruarekiko eta askotan pentsatzen dute beraien iritzia ez dela adierazgarria. Gainera, batzuek ea gradua

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

ateratzea merezi duten edo gai izango diren zalantzan jarri dute. Jarrera hauek iruzurtiaren sindromea deituriko fenomenoari hertsiki lotuta doaztela esango nuke.

Iruzurtiaren sindromea aztertzeko lehenik eta behin, lehen eta laugarren mailetan pasa ditudan inkesten analisia egin nahiko nuke. Atal honetan, hasieran, “4” eta “5” izan diren erantzuten portzentaia aztertuko dut, gero generoaren arabera batez bestekoa nolakoa izan de. Azken bi puntuetan berriz, galdetegiaren galdera zehatzetan zentratuko naiz eta emakumeek puntuazio handiena eskuratu dituzten eta generoaren arabera desberdintasun handien egon diren galderak aztertuko ditut. Honela irudi adierazgarri bat lortu, egoera ulertu eta eztabaida taldeetan adierazi dutenarekin alderatu ahal izateko.

6.2.1. Iruzurtiaren sindromearen inkesta


6.2.1.1. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian “askotan” edo “beti” erantzunak

Ikusi daiteke orokorrean *sindrome de la impostorari* buruz pasa dugun galdetegian emakumeen emaitzak handiagoak direla gizonenak baino, lehenengo eta laugarren urteetan. Iruzurtiaren sindromearen galdetegiaren 20 galderetan “4” edo “5” erantzunak izan direnak batu ditut, hau da, “askotan” edo “beti” erantzunak. Beraz, lehenengo mailako emakumeen galdetegi guztiaren erantzunetatik %41a izan da 4 (askotan) edo 5 (beti) erantzun dutenak. Gizonena berriz, 4 (askotan) eta 5 (beti) atera direnen kantitatea emaitza guztiaren %29a izan dira.

6.2.1.1.1. 2. Grafikoa: Lehenengo mailako emakume eta gizonen “askotan” eta “beti” emaitzen ehunekoa.

Iruzurtiaren sindromea aztertzeko galdetegia

1. mailako emakume eta gizonen "4" (askotan) eta "5" (beti) emaitzen ehunekoa (%)



Iturria: lanaren egileak egina.

“Lehenengo mailako emakumeen “askotan” edo “beti” emaitzak gizonena baino %11,39 handiagoak izan dira”.


Ikusi daiteke emakumeen erantzunetako %40 inguru izan direla iruzurgilearen sindromea adierazten duten emaitzen portzentaia. Gizonena berriz, %10 inguru gutxiago da eta hemen desberdintasun handia ikusi daiteke, izan ere, galdera desberdinetan askotan edo beti erantzuteko joera askoz txikiagoa izan da.

Laugarren mailan ere, iruzurtiaren sindromearen galdetegiaren 20 galderetako 4 (askotan) edo 5 (beti) erantzunak izan direnak batu ditut. Ondorioz, emakumeen galdetegi guztiaren erantzunetatik %56a izan da 4 (askotan) edo 5 (beti) erantzun dutenak. Gizonen 4 (askotan) eta 5 (beti) atera direnen kantitatea emaitza guztiaren %39a izan dira.

6.2.1.1.2. 3. Grafikoa: Laugarren mailako emakume eta gizonen “askotan” eta “beti” emaitzen ehunekoa.

Iruzurtiaren sindromea aztertzeko galdetegia

4. mailako emakume eta gizonen "4" (askotan) edo "5" (beti) emaitzen ehunekoa (%)



Iturria: lanaren egileak egina.

“4. mailako emakumeen %55,625ak galdetegian “askotan” edo “beti” erantzundu.”

Laugarren mailan ikusi daiteke, emakumeen erantzunetako erdia baino gehiago “askotan” edo “beti” emaitzak izan direla. Gizonen erantzunetan berriz 4 edo 5 emaitzak %17 inguru gutxiago izan dira. Ikusi daiteke, laugarren mailako emakumeengan beraien ikaskide diren gizonetan baino askoz ohikoagoa dela iruzurgilearen sindromea izatea.

6.2.1.2. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian generoaren arabera batez besteko emaitza

Ondoren, generoaren arabera erantzunen batez bestekoa kalkulatzeko garrantzitsua iruditu zait irudi orokor bat eskuratu ahal izateko. Lehenengo mailan, emakumeen emaitzen batez bestekoa 3 izan dela eta gizonena berriz, 2,88 bostetik. Ikusi daiteke emakumeen batez

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat


bestekoa handiagoa dela gizonena baino, izan ere, 0,20 puntu handiagoa da. Laugarren mailan, emaitzen batez bestekoa emakumeena gizonena baino askoz handiagoa da, hau da, emakumeena 3,55 eta gizonena, 2,83 da. Ikusi daiteke emakumeengan iruzurtiaren sindromea deiturikoa gehiago ematen dela.

Ikusi daiteke galdetegiaren arabera, laugarren mailako emakumeen %56ak iruzurtiaren sindromea izateko zantzuak dituela. Bestetik, lehenengo mailan emakumeen %15ak gutxiago ditu sindrome hori izateko zantzu horiek. Pentsatu daiteke honek beraien ahalduntze prozesuarekin eta progresoarekin lotura duela. Izan ere, urteak aurrera doazen heinean emakumeek jakintza gehiago izaten dute eta honek erreztasunak ematen dizkie arazoak errazago bereizi eta azaleratzeko.

6.2.1.2.1. 4. Grafikoa: Lehenengo eta laugarren mailako emakumeen batez bestekoaren alderaketa

Iruzurtiaren sindromea

1. mailako eta 4. mailako emakumeen alderaketa



Iturria: lanaren egileak egina.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

“Laugarren mailako emakumeek lehenengo mailako emakumeekin alderatuz, batez besteko erantzunen portzentaia %14,86 handiagoa izan da”.

6.2.1.3. Iruzurtiaren sindromearen galdetegian emakumeek puntuazio handiena izan duten galderak

Horrez gain, esanguratsua iruditu zait lehenengo mailako emakumeek egoera desberdinetan puntu gehien lortu dituztenak aztertzea. Hain zuzen ere:

6.2.1.3.1 5. Taula: 1. mailako emakumeek puntu gehien lortu dituzten erantzunak:

1. mailako emakumeek puntu gehien lortu dituzten erantzunak:
G. 13. Sarritan izan dut arrakasta azterketa edo zeregin bat egiteko orduan, nahiz eta egin aurretik hori honela izango ez zela pentsatu. <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 3,538● Gizonak: 3,375
G. 19. Gehiago gogoratu ohi naiz nire hoberena eman ez dudanez, onena eman dudanez baino. <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 3,6923● Gizonak: 3,625
G. 30. Askotan proiektu edo azterketa batean arrakasta ez izateak kezkatzen nau, nahiz eta nire inguruan ditudanek ondo egingo dudala irmoki pentsatu. <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 3,615● Gizonak: 3,125

Iturria: lanaren egileak egina.

Datu hauekin begiztatu daiteke, lehenengo mailako emakumeek azterketa edo zeregin bat egiteko orduan duten auto-konfiantza maila baxua dutela. Hau ikusgarria da, hain zuzen ere, eztabaida taldeko ikasleek pentsatzen dute azterketa bat egitean oso gaizki egingo dutela, ez dutela behar bezain beste egin eta karga handia jartzen dute beraiengan. Cadoche eta

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Montarlot-ek (2021) adierazi zuten bezala, neskek joera handiagoa dutela barne-esleipenerako, hain zuzen ere, pentsatzeko porrot egiten badute beraien errua dela.

Hain zuzen ere, nahiz eta ingurukoek irmoki pentsatu ondo egingo dutela, horrela ez izateak kezkatzen ditu. Kezka horrekin pentsatzen dute gaizki egingo dutela, nahiz eta gero emaitza onak izan. Gainera, gaizki egin dituzten gauzetaz gehiago oroitzen dira, ondo egin dituztenetaz baino.

Horrez gain, bi enuntziatuetan laugarren mailako emakumeek 5etik 4 baino puntuazio handiagoa dute. Hain zuzen ere:

6.2.1.3.2. 6. Taula: 4. mailako emakumeek 4 baino puntuazioa handiagoa lortu dutenak.

4. mailako emakumeek 4 baino puntuazioa handiagoa lortu dutenak
G. 19. Gehiago gogoratu ohi naiz nire hoberena eman ez dudan uneetaz, onena eman dudanetaz baino. <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 4,125● Gizonak: 3,5
G. 29. Askotan nire gaitasunak inguruan ditudanen gaitasunekin alderatzen ditut eta pentsatzen dut ni baino argiagoak izan daitezkeela. <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 4,125● Gizonak: 3

Iturria: lanaren egileak egina.

Honek erakusten du laugarren mailako emakumeen gehiengoak ohitura duela okerreman eman duen momentuetaz gogoratzeko, onena eman dutenetan baino. Eta askotan beraien gaitasunak ingurukoekin alderatzen dituztela eta etortzen zaien pentsamendua ez direla besteak bezain argiak da. Hau ikusgarria izan da eztabaida taldean, izan ere, elkarrizketatuek adierazi dute orokorrean beraien buruari auto-exijentzia maila handia jartzen

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

diotela. Gainera, gauzak argi ez dituztenean beti besteena lehenago planteatzen duela, pentsatzen dutelako besteen lana hobeto egongo dela..

Laugarren mailako bi ikasleek eztabaida taldean beraien gradu amaierako lanarekiko kezka handia erakutsi dute. Elkarrizketatu batek esan zuen iruzurtiaren sindromea gaizki daramala, esate baterako, aurten egiten ari den gradu amaierako lanarekin gaizki, beti bere burua askotan kuestionatzen duela eta zerbait bidaltzen duenean sentitzen du ez dela ondo egongo. Beste laugarren mailako ikasleak pentsatzen du bere GRAL-a besteena baino okerragoa izango dela.

Eztabaidan taldean ikusi dudan bezala, ikasle askori gertatzen zaie azterketa edo aurkezpen bat baino lehen buruan duen mezua: “ez dut ondo egingo” edo “dena ahaztu zaizu” nahiz eta beraien buruari saiatu sinisten ahal dutela. Orduan, beraien buruarekin borroka bat izaten dute, hori lanetan egutxiago gertatzen zaie.

Bigarren mailako ikasle batek adierazi zuen aurreko egunean ahozko azterketa bat izan zuela eta gaizki pasa zuela azterketa egitean, lehenago eta egun bat lehenago ere. Aurreko egunean, bere ikaskideari esan zion ez zela ondo sentitzen eta bazekiela ez zela urduritasuna baizik eta benetan gaizki zegoela. Ez zekien ea gai izango zen irakaslearen aurrean jarri eta egin ahal izateko. Azterketetan lasaiago sentitzen da bakarrik dagoelako baina irakaslearen presentzia horrek deseroso sentiarazten du.

Orokorrean adierazi dute ahoz hitz egitean estres gehiago sentitzen dutela idaztekoan baino, idaztean bakarrik daudelako. Hala ere, batzuk talde lanetan idazterakoan ere urduri jartzen diraa ez dakielako ondo egingo duen. Baten batek, nahiago du ahozkoa egin zerbait gaizki esaten badu momentuan hobetu dezakeelako, baina idaztean irakasleak hamabi aldiz irakurri dezakeela dio eta euskera maila gaizki egoteak kezkatzen die, hala ere, ahozko azterketa batean ikasleak ez du uste gustora sentituko litzakenik.

6.2.2. Autopertzepzioaren gaineko ikuspegia

Azkenik, iruzurtiaren sindromearen aurrean ikasleek beraien egoera nola bizi duten gertutik aztertu nahi izan dut eztabaida taldeen bidez. Orokorrean berriemaileek sentitzen dute beraien buruarekin konfiantza gutxi dutela eta negatiboak direla. Ondorioz, lan bat egitean abiapuntu bat behar dutela eta beste lan bat ikusi eskema bat egin ahal izateko edo konparatzea beharrezkoa egiten zaie, ikusteko berdina baldin bada “ez dagoela gaizki”. Pentsatzen dute berdina ez badute jarri gaizki edo asmatu egin duela eta irakasleak pentsatuko duela tuntuna dela.

Hirugarren mailako ikasle bati unibertsitatea baino lehenagoko ikasketa prozesuan irakasleek esaten zioten: “no vas a llegar a nada en la vida” (B3) eta horrek inseguritatea ekarri dio. Cadoche eta Montarlot-ek (2021) adierazi zuten bezala ikasleak izandako eskola-ibilbidea nolakoa izan den eragina du pertsonaren konfiantza mailan. Bere mailako beste ikasleak, lanak egiten doan elean besteei galdetzeko beharra sentitzen du eta batzuetan hain gaizki egoten da ezin izaten duela lana egin.

Emakumeen artean gehiago kezkatu eta estresatzen dira eta lanei buruz asko hitz egiten dute. Mutilek berriz, patxadaz hartu ohi izaten dituzte gauza gehienak, nahiko arduragabeak direla eta ez dutela inplikaziorik graduarekiko edo ikaskideekiko. Elkarriketatu baten dio: “agian ez dakit estresatzen diren baina seguru baietz edo agian ez, ez dakit, daukadan duda da, ezta? ez zaizue iruditzen? nola bizi zaitezke hain lasai lan guztiak erdizka egiten eta denak bidaltzen eta gainera... ez dakit.” (A4).

Ikasleek zalantzan jartzen dute ea egiten duten lana beharrezkoa den. Behin baino gehiagotan pentsatu dute ez direla gai lana edo gradua egiteko.

“Eta orduan hasten naiz nire burua kuestionatzen: egiten dudana lana beharrezkoa da edo ez? Nik ez dut honetarako balio? Hau ez da nik menperatzen dudana karrera bat? Ez dut merezi agian gradu hau ateratzea?” (A4)

“Ez dut merezi agian gradu hau ateratzea?” (A4)

Iruzurtiaren sindromearen ondorioz, emakume batzuk lan bat edo zerbait aurrera eramateko orduan pentsatzen dute ez direla behar bezain adimentsuak. Ondorioz, arazoak izaten dituzte aurrera jarraitzeko eta sinisteko egoera hori gainditzeko gai direla. (Clance eta Imes, 1978).

6.3. Gaitasunak eta genero rolak

Generoaren arabera, pertsona bakoitzak dituen gaitasunak desberdinak direla argi dago Bengoecheak (2004) aipatu bezala. Esate baterako, gizonak publikoan hitz egiteko erraztasun gehiago dituzte emakumeek baino. Honen ondorioz, gaitasun horiek aztertzea eta horiekiko duten autoebaluazioa aztertzea ezinbestekoa iruditu zait generoaren arabera ematen diren rol desberdinak identifikatu ahal izateko.

Gaitasun sozio-kooperatibeen autoebaluazioa aztertzeko ikasgeletatik pasa ditudan galdetegiak marko bat egitea ahalbideratu dit egoera ulertzeko. Bestalde, gai izan naiz eztabaida-taldearen bidez gaitasunen eta rolen inguruan ikasleek dituzten pentsamenduetan eta bizimoduetan murgiltzeko.

6.3.1. Gaitasun sozio-kooperatiboen galdetegia

Orokorrean ikusi daiteke lehenengo mailan gizonen gaitasunen autoebaluazioan emaitzak txikiagoak direla edo gaitasun hauen aurrean egitearen maiztasuna txikiagoa dela. Batez beste, batetik zazpita 5ekoa da gizonena eta emakumeena berriz, 5,17. Honek esan nahi du galdetegian aztertzen diren egoerak emakumeek maizago egiten dituztela eta egoera horietan autoebaluazio handiagoa dutela.

Laugarren mailan berriz emakumeak orokorrean gaitasun handiagoak dituztela pentsatzen dutela esan dezakegu lehen mailakoekin gertatu den bezala. Laugarrenean, gizonak 5 eskuratu dute eta emakumeek berriz zazpitik 5,59. Ikusi daiteke, pentsatzen dutela gaitasun handiagoak dituztela orokorrean beraien klaseko mutilekin alderatuz.

6.3.1.1. Gaitasun sozio-kooperatiboetan emakumeek batez bestekoa handiago duten enuntziatuak

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Honetaz gain, interesgarria iruditu zait emakumeek beraien autoebaluazioan gaitasun handiagoak erakutsi dituzten egoera desberdinak azaleratzea. Lehenengo mailan emakumeek gizonek baino askoz puntuazio handiago lortu duten gaitasunak hauek izan dira:

6.3.1.1.1. 7. Taula: 1. mailakoek emakumeek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa

1. mailakoek emakumeek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa
1. Taldekideei modu aktiboan entzutea talde-lanean: <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 6,3● Gizonak: 5,8
3. Taldeko norbaiti mesede bat eskatzea: <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 4,55● Gizonak: 3,8667
10. Talde batean aldeztatik konfiantzarik ez duten pertsonekin integratzea <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 4,5● Gizonak: 3,733
15. Gainerako taldekideekin lankidetzan aritzea eta lankidetzaren harremanak ezartzea <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 5,45● Gizonak: 4,667

Iturria: lanaren egileak egin.

Galdera hauetan, emakumeek gizonezkoek baino puntuazio handiagoa lortu dute. Izan ere, konfiantzarik ez duten talde batean integratzeko, taldekideei entzuteko eta mesede bat eskatzeko eta talde lanean ari direnean lankidetzan aritzeko gaitasun handiagoak dituzte edo hori pentsatzen dute.

Laugarren mailakoetan berriz honako hauek izan dira emakumeek gizonek baino askoz puntuazio handiago lortu dutenak:

6.3.1.1.2. 8. Taula: 4. mailakoek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa

4. mailakoek gaitasun sozio-kooperatiboetan puntuazio handiagoa

1. Taldekideei modu aktiboan entzutea talde-lanean: <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 6,8571● Gizonak: 5,8
2. Taldekideei argi eta garbi hitz egitea talde-lanean <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 6,4286● Gizonak: 5
9. Beste pertsona batzuk goraiatzea <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 5,8571● Gizonak: 4,5
15. Gainerako lankideekin lankidetzan aritzea eta lankidetzan harremanak ezartzea <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 6,1429● Gizonak: 5
19. Talde-lanean aktiboki parte hartzea <ul style="list-style-type: none">● Emakumeak: 6,4286● Gizonak: 5,1

Iturria: lanaren egileak egina.

Ikusi daiteke orokorrean laugarren mailan emakume eta gizonen artean desberdintasun tarte handiagoa dagoela gaitasunen autoebaluazioan lehenengo mailan baino. Eta orokorki zenbakiak altuagoak direla lehenengo mailan baino, hau da, autoebaluazioa gaitasunen aurrean hobeagoa dela laugarren mailako emakumeetan, lehenengo mailakoetan baino.

Hala ere, ikusi daiteke bi gaitasun errepikatu egin direla lehenengo eta laugarren mailan. Taldekideei modu aktiboan entzutea talde-lanean eta gainerako lankideekin lankidetzan aritzea eta lankidetzan harremanak ezartzea. Entzutearen gaitasunean, lehenengo mailako emakumeen batez bestekoa 6,3 izan da eta laugarrenean, 6,86, hau da, handiagoa. Lankidetzaren eremuan ere, laugarrenen batez bestekoa handiagoa izan da, hau da, 6,14koa eta lehenengoan 5,45.

Ikusi daiteke bi mailetan emakumeek trebeziak dituztela taldekideei entzun ahal izateko modu aktiboan. Hala ere, graduak zehar gaitasun hauen garrantzia ez da handia, izan ere, graduak azterketetarako prestakuntzak egiten ditu eta ez die balio handia ematen arlo kooperatiboari. Baita ere, taldekideekin lankidetzan aritzeko eta lankidetzan-harremanak ezartzeko erraztasunak dituztela bi mailetako emakumeek. Honek esan nahiko luke arlo sozialean emakumeek kooperazioa ahalbidetzen dutela taldea aurrera eramateko eta

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat


laguntzak eskaintzen dituztela elkar-lan egoki bat egiteko. Hala ere, laugarren mailako emakumeenak lankidetzaren eremuan ere handiagoak ikusi daitezke, hau da, beraien buruarekiko gaitasun handiagoak dituztela lankidetzan uste dute.

6.3.1.2. Emakumeen autoebaluazioa lehenengo eta laugarren mailan alderaketa

6.3.1.2.1. 5. Grafikoa: Emakumeen autoebaluazioa lehenengo eta laugarren mailan

Gaitasun sozio-kooperatiboaren autoebaluazioa

Emakumeen autoebaluazio 1. eta 4. mailetan



Iturria: lanaren egileak egina.

“4. mailako emakumeen autoebaluazioa %5,9388 handiagoa da lehenengo mailako emakumeena baino”

Gaitasunen autoebaluazioan emakumeek izan dituzten erantzunen batez bestekoa ehunekoetara pasa dut argi ikusi ahal izateko. Ikusi daiteke laugarren mailako emakumeen autoebaluazioaren portzentaia %79,7991837 dela eta lehenengo mailakoena berriz, %73,85714286. Laugarren mailako emakumeek beraien buruari autoebaluazio positiboagoa egiten die lehenengo mailakoekin alderatzen badugu. Pentsatu daiteke, graduak tresna batzuk

dituela emakumeen ahalduntzea ahalbidetzeko eta nahiz eta genero desberdintasunak dauden emakumeek beraien buruarekiko duten ikusteko moduan aldaketa bat ematen dela hoberantz.

Nahiz eta arlo sozialean emakumeek kooperazioa ahalbidetu eta taldea aurrera eramateko laguntzak eskaini elkar-lan egoki bat egiteko, talde lanetan generoaren arabera denbora guztian errepikatzen eta erreproduzitzen diren rol batzuk daude. Rol hauek marko teorikoan aipatu bezala gizarteko erakunde desberdinen bidez transmititzen dira eta unibertsitatean edo talde lanetan berdina gertatzen da. Kapitalismoak, lehendik ezarritako desberdintasunak indartu eta sustatu egin zituen, honela, generoaren araberrako arrakala mabarmenki handitu zuen. Tresna nagusia egitura instituzional berrietak izan ziren, hauen bidez genero rolak transmititzeko. (Arruzza, Bhattacharya, Fraser, 2019)

6.3.2. Gaitasunak eta genero rolak eztabaida taldea

Gaitasun sozio-kooperatiboak ikertu ondoren inkesten bidez, interesgarria iruditu zait beraien bizipenak entzutea eta beraien hitzetan entzutea zein uste duten direla beraien gaitasunak edo zailtasunak. Gainera, galdetegieta agertu dira talde-lanetan rol desberdinak hartzen dituztela eta horiekiko beraien iritzia ezagutu nahiko nuke.

Lehenengo mailako ikasleek esan zuten beraien taldeak normalean mistoak izaten direla eta rolak hartzerako orduan espero izaten dela emakumeek taldea aurrera eramatearen rola hartzea: “niri askotan esaten didate, zer egin behar dut? esan zer atal egin eta nik egingo dut, baina nik ez dut inor gidatu behar. Nire taldekide emakumeekin ere hori sentitzen dugu eta hitz egin izan dugu, beti ordena, txukuntasuna, epeak errespetatzea, aurretik eramaten dugu, beraiek paso egiten dutela.” (A1).

Hiru eta laugarren mailakoek esan zuten orain ez dituztela taldeak ausaz egiten eta emakume edo ez bitarrak elkarrekin jartzen direla. Orokorrean mutilak nahiko nagiak direla eta beraiek antolatuta edo kontrolpean eramaten dutela. Hala ere, pentsatzen dute rol hauek gehiago errepikatzen direla emakumeengan gizonengan baino.

Izan ere, uste dute gehienetan talde mistoetan antolakuntzaren ekintza edo mantenu rolak emakumeek burutzen dituztela eta lehen pausoa ere gehienetan emakumeena dela.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Hauek dira berriemaileek adierazi zuten talde lanetan emakumeek eta gizonek dituzten rolen zerrenda:

6.3.2.1. 9. Taula: Rol eta zereginak generoaren arabera

Rol eta zeregin erreproduktiboak	Rol eta zeregin produktiboak
<ul style="list-style-type: none">● Dena antolatu● Geratzeko egunak eta orduak ezarri.● Whatsapeko taldea egin.● Idazkari lanak.● Powerpoint-ak egin.● Elkarren artean harmonizatzen eta konpromisoa bultzatzen saiatzen da.● Lana egituratu.● Letra mota egokia jarri.● Estetikoki nola geldituko den.● Azala, aurkibidea eta bibliografia egin.● Azken xehetasunak egin● Bidalketa egin. Batzuetan sentitzen dute beraiek ez balute lana bidaliko ez zela jarduera hori aurrera aterako.	<ul style="list-style-type: none">● Publikoan hitz egin● Gaiak proposatu● Aurkezpenak egitean irakaslearen galderak erantzun, hau da, inprobisazioa.

Iturria: lanaren egileak egina.

Elkarrizketatuek diote gizon taldekideak arduragabeak badira norbera egon behar dela taldeko zaintzaren rola egiten eta batzuetan norberak ere egin behar duela besteen lana edo taldeko emakumeek elkarrekin hitz egin eta azken momentuan falta diren puntuak hasten dira egiten, nahiz eta hasieran dirudien lanaren banaketa nahiko orekatua dela. Honela, denak ados daude azken finean lan karga hori handitu egiten zaiela eta ez da lan karga oso ikusgarria dena baina azkenengo produktu horretan eragina dauka.

Hirugarren mailako ikasle baten hitzetan: “aurreko urtean irakasleak taldeka jarri gintuen eta ni egon behar izan nintzen ama baten moduan: hau egin behar da, hau ez dakit zer, hau ez da egin...” (B3). Gehitu zuen erraz ikusten dela, beste taldeetan begiratzean ere beti emakumeak daudela denbora osoan besteen atzetik.

“ni egon behar izan nintzen ama baten moduan: hau egin behar da, hau ez dakit zer, hau ez da egin...” (B3)

Gehienetan gizonen jarrera talde lanetan hasieran gaia aukeratu, zatiak banatzean edo ahots altuan esan behar diren gauzak esateko orduan soilik izaten direla aktiboak. Eta gaiak aukeratzean batzuetan sentitzen dute gizonen partetik beraiek esandago gaia gutxien dutela edo justifikazio egoki bat eskatzen zaiela.

Guztiek pentsatzen dute talde mistoetan lan karga handiagoa edo bikoitza izaten dutela genero berdineko taldeetan baino. Lagunekin jartzean badakite nola funtzionatzen duten talde gisa eta oso lasai sentitzen dira. Eta nahiz eta emakume batzuekin ez izan harremanik nahiago izaten dute beraiekin lan egin gizon batekin baino. Ondorioz, argi adierazi zuten nahiago dutela emakumeekin egin lanak ez dutelako beti hartzen duten rol hori hartu behar.

Talde lanen aurkezpenetan lana nahiko banatuta eta orekatuta dagoela ikusten dute, izan ere, hasieran banatutako zatiak egiten dituzte. Laugarren mailako ikasle batek dio: “askotan gertatzen dena da nahiko bai orekatua dagoela aurkezpenean bertan baina agian atzeko lana emakumeengan jauzi dela gehiago. Ba ez dakit parte bat zuzendu dute eta guztiz aldatu dute gizon baten parte edo mutila ez bada iristen epera emakumeak egiten du eta gero aurkezpenean mutilak azaltzen du berari “hipotetikoki” egokitzen zaion parte emakume batek egin duen harren”.

Lehenengo mailako bate zioen lotsaren faktorea agerikoa dela eta aurkezpenean irakasleak galdera bat egitean eta planifikatuta zeukaten marko horretatik ateratzean emakumeak blokeatu egiten direla. Hor bai igartzen dela besteen epaiketaren eta publikoki hitz egitearen beldurra eta honelako egoeratan gizonek informazio gehigarri hori eskaintzen dute.

Denek adierazi zuten orokorrean idazkari lanak eta lana aurrera eramatearen jardura emakumeek egiten dutela eta. Askotan irakasleek eskatutakoan soilik hitz egiten dute publikoan. Emakumeek aprobazioa behar dute eta ahotsak zapalduago egoten direnez rol hori hartzen dute, izan ere, lan idatzia eta lan gogorra egitearena. Ikasle baten hitzetan: “idazkaritza lanetan ez duzu ikusiko gizon bat inoiz edo ia inoiz idazten” (A4). Irakasleek

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

hitz egitearena eskatzen diete genero guztiei baina, idazkaritza lanetako egoeraren aurrean ez dutela ezer egiten pentsatzen dute (A4).

“Irakasleek hitz egitearena eskatzen diete genero guztiei baina, idazkaritza lanetako egoeraren aurrean ez dutela ezer egiten pentsatzen dute.” (A4)

Bigarren mailako ikaste batek aipatu zuen lehenengo mailan irakasleak bost talde egin zituela eta idazkariak izaendatu talde bakoitzean. Izan ere, bost taldeetatik lau emakumeak izan ziren, beti ere idazkariaren papera emakumeena.

Laugarren mailako elkarrizketatu baten hitzetan: “eske niri iruditzen zait parte hartze hori ez dela aldatuko nahiz eta zuk agerrarazi gizonezkoek gehiago parte hartzen dutela eta beraiek atzera pauso bat eman behar dutela edo emakumeek pauso bat aurrera emateko. Parte-hartzea hasten da espaziotik, hasten da autoestimutik ere, orduan niretzako indartu beharko lirakekeen gauzak ez dira gauzak bakarrik nork altxatzen duen eskua eta nork hitz egiten duen, baizik eta hori ikustarastea parte-hartze horren atzean dauden oztopoak eta sortzen diren harreman horiek” (A4).

Elkarrizketatu gehienek uste dute emakume batzuen autoestimu baxuak edo besteen onarpena bilatzeak ez diela uzten iritzia ematen. Batzuetan, burua zigortzen dute pentsatzen aukera eman diotela parte hartzeko eta ez duela parte hartzeko indarririk izan. Hala ere, uste dute parte hartzera bultzatzen dituztela baina ez direla lantzen parte hartze hori oztopatzen duten faktoreak.

Ikasleek pentsatzen dute ea irakasleak ohartzen diren zer nolako botere harreman sortzen den ikasgelan emakumeen eta gizonen artean. Izan ere, hori kudeatzeko modu bakarra ikustarastea izan beharko lukeela baina emakumeei parte hartzeko erabiltzen dituzten moduak bortitzak iruditzen zaizkiela diote. Ikasle batek dio “ezin duzu esan: emakumeen parte-hartzea sustatzeko gizonezkoak isilduko dira eta listo, orduan hor sortzen duzuna da beste botere harreman bat eta gainera sakontzen duzu ere bai, ez dakit.” (A4).

Pentsatzen dute askotan honelako errekurtsioekin kontrakoa lortzen dutela, eta momentu deserosoak sortu mundu guztia beraiei begira eta hitz egiteko presio horrekin. Beste irakasle batzuek naturalago egiten dutela eta nahi duenak hitz egitea eta batzuek egoera

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

horietan seguruago sentitu dira parte hartzeko. Batzuek pentsatzen dute irakasleak saiatzen direla aldatzen, baina lortzen duten bakarra rol horiek erreproduzitzea dela, beti jarraitzen dutelako mutilek gehiago hitz egiten eta talde lanetan neskek lan idatzia egiten.

Bigarren mailako ikasle batek dio irakasleek esaten dutela talde lanetan norbaitek ez badu egiten beregana joateko eta esateko, baina lotsa handia ematen diola hori egiteak. Baita ere, lotsa sentitzen du talde-kide batengana gerturatzea eta esatea ez duela lanik egiten. Honen aurrean, norbaitek egiten ez duenean berak zati hori egiten bukatzen du.

Irakasleek generoaren arabera ea desberdin tratatzen dituen galdetzean lehenengo mailako ikasle batek “nazioarteko harremanak” ikasgaia erantzun zuen. Bere ikaskideak gehitu zuen bera gelako ordezkaria dela eta irakasle gizon horrekin hitz egitean “deitzen dit: neskatx edo neskato edo neskatxo edo aizu neska edo egun batean gauza bat galdetu nion eta esan zidan (gainera erdaraz): ¿seguro que estarías haciendo otra cosa chica? eta horrelakoak, beti esaten dit edo neskato edo chica” (A1). Egoera honen aurrean oso txikia sentitzen da eta ezin duela erantzun dio.

Beste berriemaileek adostasuna erakutsi zuten honelako hitzak erabiltzea zapaltzailea, hasteko izen bat daukala esanez eta gutxienez bere izena jakin beharko lukeela. Lehenengo mailako ikasleek badakite aurretik aipatu duten irakaslearen kasuan ez dutela hitz egin nahi izaten badakitelako beraien iritziak ez dituela kontuan hartuko eta gutxiago sentitzen direla, gainera, mutilei arreta pixka bat gehiago jartzen diela.

Pentsatzen dute irakaslea emakumea denean errazagoa dela berari erantzutea edo zalantzan jartzea esan duena. Ez bitarrak pentsatzen du “Queer-on gaia edo LGBT”-ri buruz hitz egitean irakaslea gizona bada, gauzak azaltzen dituela denak mutilak baldin balira bezala, arraro eta abstraktu. Kanpoko Queer-en kasuak jartzen dituela eta berak ez du ulertzen bera hor bertan dagoenean. “Edo batzuetan kontrakoa gaude hitz egiten horretaz eta daude denbora guztian begitara begira -como sé tu secreto-.” (A3).

Parte hartzaileek pentsatzen dute irakasle gizonekin harremanetan errespetu bat dagoela eta batzuei ideologiak baldintzatuta idolatratuago eta emakumeetan ez da hori gertatzen eta ez dira goraiatzen. Gainera, adierazi dute emakume irakasleek jarrerak goxoagoak direla eta gizonenak beti zorrotzagoak.

Irakasleen generoaz gain adinak ere eragina duela adierazi zuten ikasleen genero desberdintasunetan. Adineko irakasleek ez dizkiote feminismoa, queer edo LGBT bezalako gaiari garrantzia ematen eta gazteenek ez dute jakiten ondo nola azaldu. Gainera, irakasle emakumeek emakume autoreak erakusten dituztela baina gizonak gehienetan saihestu egiten dituztela.

Bigarren mailakoek uste dute emakume irakasleak generoaren kontua gehiago lantzen dutela eta gizonak alde batera utzi. Aurreko lauhilekoak “Pentsamendu politikoen historia” irakasgaiari kexatu egin ziren ez zeudelako emakume autoreak eta eskaera eta kexuen ondoren emakume bat jarri zuen irakasle gizonak irakasgaiari. Aipatu zuten adineko irakasle bat dela eta ez zirela berarekin diskutitzen jarriko.

Irakasleak kexu horien aurrean oso harro adierazi zuen idazlanetan gaztekeraz “el hombre...” jartzen duela eta berak aldatzen dituela “a seres humanos”. Egoera honen aurrean denek barre egin zuten. Gainera, irakasgaiari emakume autoreak azaltzeko denbora ez ziola ematen esan zuen eta emakumeek adierazi zuten orduan beste autore bat kentzeko. Orduan irakasleak aurreko autoreak Marx eman behar zuten eta hori kentzea ezinezkoa egiten zitzaion “Marx delako”.

Lehen mailako ikasle batek azalatu zuen karrerari asko mahaigaineratzen den zerbait genero identifikazioa dela eta ez duela pentsatzen hainbestetan adierazi beharreko datu bat denik. Honen aurrean, irakasle baten inklusibotasun horren irudi eta sustatzaile izan behar lukeela nahiz eta ez izan hezitzaileak.

Ikasle batek ez bitarra izanda oso bortitza iruditzen zaio “lauhileko bukaeran ematen digutenean orria irakaslea ebaluatzeko, beti jartzen du: mutila edo neska, gero agian klasean hitz egiten dute genero ez bitarrak daudela, baina gero unibertsitateak ez du hori kontenplatu” (A3).

“lauhileko bukaeran ematen digutenean orria irakaslea ebaluatzeko, beti jartzen du: mutila edo neska” (A3)

6.4. Espazioaren antolaketa genero desberdintasunean

Espazioaren antolaketak genero desberdintasunean paper garrantzitsua du, izan ere, honen arabera ikasleak erosoago edo desorosoago sentitzen dira. Honek generoarekin lotura zuzena du, generoaren arabera leku eta modu desberdinetan esertzeko ohitura dute beraien segurtasunaren arabera. Honetarako, eztabaida taldeen bidez aztertzea iruditu zitzaidan egokiena. Honela, beraien ikasgelan espazioaren arabera nola sentitzen diren ezagutu eta bizipenak entzuteko.

Lehen bi mailetako ikasleek uste dute nahiko nahastuta esertzen direla eta blokeka lagun taldeka. Bigarren mailako ikasleek adierazi dute esertzeko lekuaren banaketa ez dela hain garbia beraien gelan. Hirugarren eta laugarren mailakoek adierazi zuten klasean beti dagoela emakume eta ez bitarren lerroa eta mutilak atzeko aldean esertzen direla. Baina beti generoaren arabera sektoreka banatzen direla adierazi zuten hirugarren eta laugarren mailako ikasleek. Hala ere, uste dute lehenengo mailan nahastuago zeudela eta denbora aurrera joan ahala banandu egin direla eta orain sektore oso zurrinak eta generoaren arabera daude sailkatuta.

Hirugarren mailako ikasle batek dio bere klasean banaketa argi bat egiten dela esertzeko lekuari dagokionez. Berak dio argazkia ateratzeko modukoa dela, beti neskak eta bera (ez bitarra) leku batean esertzen direla eskubian eta mutilak berriz, ezkerrean. Gehienek esan zuten askotan emakumeak lehenengo lerroan eta mutil guztiak atzean. Hiru eta laugarren kurtsokoek pentsatzen dute hirugarren mailan soziologia eta politika graduak behingoz banatzean, generoaren arabera banatuta esertzeko lekua geroz eta bereiziagoa bihurtu dela.

Horrez gain, ikasle batek gehitu zuen harremanak sortzerako orduan prozesuak desberdinak direla generoaren arabera. Hau da, gizonak beraien artean oso azkar egiten dituztela harremanak. Emakumeak berriz, isilago gelditzen direla norbait gerturatuko zaielaren esperoan harremanak egin ahal izateko. Ondorioz, gelan mutil talde handiak badaudela baina nesken talde handirik ez dagoela, hau da talde txikietan elkartzen direla.

Pentsatzen dute gelan emakume gehiago daudenean erosoago sentitzen direla, espazio seguru bat bihurtzen dela eta parte hartzeko erraztasun gehiago izaten dituzte. Ikasle batek

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

adibidez, lauhileko honetan hautazko bezala gaztelerazko ikasgai bat aukeratu zuela bere gela-kide batekin batera eta bertan ia denak gizonak zirela eta lehenengo gauza pentsatu zuena: “ni pentsatzen -ni de coña hemen ez dut hitz egingo” (B3).

Gainera irakasgaia gizarteko desberdintasunak deitzen zen eta gizon irakasle gazteak erabaki zuen ez zuela emango generoaren inguruko desberdintasuna, beste ikasgai batzuetan emango zutelako eta arrituta gelditu zen: “esaten ez dut genero desberdintasunaren inguruan hitz egingo eta klase erdiaren perfil nabarituena gizonak beltzen jantzita, ni pentsatzen -escapa-” (B3). Patricia Martínezek eta emakundek 2021ean argitaratu zuen lanean bezala, gizonen zereginak publikotasunarekin daude, espazio publikoak bereganatu eta menderatzaileak bihurtzen dira.

Lehen mailako ikasle batek gehitu zuen garrantzitsua iruditzen zaiola espazio seguru bat sortzea. Izan ere, berak laugarren mailako ikasleak ez zituela ezagutzen baina seguru sentitzen zela beraiekin hitz egiterakoan adierazi zuen eta hori gizon bat egongo balitz ez litzaiokeela gertatuko. Lehenengo pausoa ezagutu gabe emakumeekin espazio segurua sortzea errazagoa egiten zaie.

Orokorrean denek nahiago dute talde txikietan hitz egin eta taldeak orokorrean generoaren arabera egiten dituztela. Ikasle batek adierazi zuen aurreko lauhilekoan Genero eta Politika ikasgaietan sei neska eta bi mutil zirela eta mutilek orduan ez zutela hitz egiten eta neskek eta berak komentatzen zutela.

Ikasle bat klase handietan batzuetan ez da joaten arrazoi horregatik, ez delako seguru sentitzen gizonak bakarrik dauden klasetan. Bere klasean nahiago izaten duela neskekin egon edo taldeak egin, baina ausaz badira nahiago du taldeak txikiak izatea hor hitz egiteko aukera sentitzen duelako. Bere batxilergoan denak neskak ziren beste mutil gay bat eta bera orduan unibertsitatean iristean talka handia egin zion. Aurten adibidez, ez zaio espazio segurua iruditzen “eske orain okerrago, daude hamar mutil eta biolentoa egiten zait batzuetan ez naiz klasera joan edo klasetik atera naiz, ze guztiak mutilak ziren.” (A3).

Argi ikusi da unibertsitatean eta ikasgelan generoaren arabera desberdintasun nabariak ematen direla, komunikazioaren, iruzurtiaren sindromearen, gaitasunaren, genero rolen eta espazioaren banaketaren ondorioz. Kontzeptu hauek eta gizarteak esleitutako rolek eta

estereotipoek graduan ikasleek bizipen desberdinak bizitzea eragiten dute beraien generoaren arabera.

7. Ondorioak

Lan honen helmugara iristen ari gara eta hori baino lehen bidean zehar ikasi dugunaren ondorioak atera beharko dira. Argi dago ikasgelan genero desberdintasunak ematen direla eta desoreka handia dagoela, hau da hipotesiak berretsi direla. Hezkuntzako erakundeek gizartearen balioak eta genero rolak erreproduzitzen dituzte eta horrek eragin zuzena dauka ikasleak graduan dituzten bizipenetan.

Lehenengo hipotesi zehatzari adituz, ikusi daiteke komunikazio estilo desberdinak daudela generoaren arabera. Hauen ondorioz, gizonezkoak publikoan hitz egiteko gaitasuna handiak dituzte eta emakumeei parte hartzea kostatzen zaie. Gizonen diskurtsoa baieztapenetan zentratzen da eta emakumeena, berriz, beraien hitzak iritzi bezala azaltzen dituzte.

Gizonek hitz egiteko segurtasun handia dute eta emakumeek, berriz, esaldi baten ostean baieztapena bermatuko duen galderak egiteko ohiturak dituzte. Izan ere, emakumeek onarpen bat bilatzen dute eta honela ez denean inseguru sentitzen dira, esaldia gaizki egongo balitz bezala. Ondorioz, gizonen komunikazio estilo rol produktiboekin eta emakumeen berriz, genero rolei jarraiki rol erreproduktiboekin daude lotuta.

Elkarrizketatuek aipatu duten bezala ikasgelan lehenengo hitza beti gizonena izaten da eta egoera klasetik kanpo ere erreproduzitzen dira. Egoera hauek emakumeen segurtasun eza bultzatzen dute eta publikoki edo publikoak ez diren arloetan ere iritzia emateko zailtasun ugari izaten dituzte. Izan ere, beti pentsatu ohi dute beraien iritzia besteenarekin alderatuta ez dela hain adierazgarria.

Emakumeek pentsatzen dute inguruan duten jendea beraiek baino arrakastatsiagoak direla eta honek lotuta zuzena dauka iruzurgilearen sindromeak. Izan ere, arazoak dituzte beraien buruarekin konfiantza izateko eta lanak egin ahal dituztela eta arrakasta lortu

dezaketela sinisteko. Ez dute beraien burua onartzen eta honek bultzatzen die beti besteengan onarpena bilatzea.

Garbi gelditu da analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartuz, politikako graduan iruzurtiaren sindromearekin lotzen diren adierazleak nabarmenagoak direla emakumeengan. Honek honek beraien ikasketa prozesuan eta errendimendu mailan eragin zuzena du. Oztopoak sorrarazten dizkie pentsamenduak adierazteko momentuan, parte hartzerakoan eta lan edo azterketa bat egiterakoan konfiantza eta segurtasun arazoak.

Emakume gehienek lanak, aurkezpenak edo azterketan egiteko orduan ez dute beraien buruarekiko konfiantza nahikoa izaten ekintza aurrera eramanez ahal izateko. Gainera, barne borroka ugari izaten dituzte beraien buruarekin. Izan ere, beraien buruak bidaltzen dizkien lehen mezuak negatiboak izaten dira eta aurrera jarraitzeko gai ez direla sinistuarazten die. Parte hartzaile batzuek pentsatu izan ohi dute ez direla gai gradua aurrera ateratzeko edo ez dutela gradua merezi eta honek estres egoerak eta egoera zailak sorrarazten dizkie.

Hala ere, lehenengo mailatik laugarren mailara emakumeak batez ere, aldaketak ematen hasten dira. Hain zuzen ere, lau urte horietan ahalduntze prozesu bat eramaten dute aurrera eta beraien gaitasunen autoebaluazio handitzen joaten da. Ahalduntze ibilbide horretan, tresna desberdinak erabiltzen dituzten jakintza irabazi eta egoera desberdinen aurrean kontzientzia izateko. Honen ondorioz, laugarren mailan ikasgelan dagoen genero desberdintasun eta desorekaz ohartzen dira. Gai izaten dira iruzurgilearen sindromearen zantzuak bereizi, araziaz ohartu eta egoeraren aurrean haserrea aldarrikatzeko.

Argi dago gaitasun sozio-kooperatiboetan desberdintasunak daudela generoaren arabera eta graduaren mailaren arabera. Izan ere, emakumeak izan dira autoebaluazio handiena izan duen generoa eta laugarren mailakoek lehenengoek baino puntuazio handiagoa eskuratu dute. Emakumeek pentsatzen dute betekizun kooperatibo eta sozialetan gaitasun handia dutela.

Horretaz gain, ikusi da emakume eta gizonen artean unibertsitatean ere genero rolak erreproduzitzen direla, gizartean bezala. Emakumeek talde lanetan antolakuntzaren zeregina egiten dute, beti daude taldea aurrera eramanez eta dena ondo joaten ari dela zaintzen. Hemen ere ikusi daiteke emakumeek gaitasun handiak dituztela arlo kooperatiboetan, izan ere, lan

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

karga handia izaten dute lanak egiteko. Emakumeek idazkari lanak egiten dituzte beti eta ikasleek pentsatzen dute irakasleek honekiko ez dutela erantzunkizunik hartzen. Talde lanetan izaten duten “ama”-ren lanaren ondorioz, nahiago izaten dute taldeetan gizonekin ez jarri, emakumeekin seguruago eta lasaiago sentitzen dira.

Talde lanetan ia lan guztia emakumeek egiten dute eta hori ez da azaleratzen, esate baterako, aurkezpenetan generoaren arabera berdin hitz egiten dutelako. Ikasleek sentitzen dute ezkutuan geratzen den lan hori ez dela kontuan hartzen eta karga handia duela. Gizonen parte hartzea talde lanetan nahiko pasiboa dela uste dute emakumeek eta ez direla inplikatzeko. Emakumeengan erortzen da lanaren pisua eta horrek estres egoerak sorrarazten dizkie. Ondorioz, emakumeak eta ez bitarrak elkarrekin jartzen dira taldeak egiterakoan eta ez dituzte gizonekin taldeak egiten.

Ez bitarrak adierazi zuen beraien ikuspegia ez dela hartzen kontuan eta egoera deserosoak bizitzen dituztela. Bortitza iruditzen zaie irakaslearen autoebaluazioaren inkestan emakumea edo gizona aukeratu behar izatea. Pentsatzen du ikasgelan ere irakasleek ez bitarren ikuspuntua ez dutela presente.

Espazioaren antolaketari dagokionez ikusgarria da ikasgelan generoaren arabera ikasgelan nola esertzen diren. Generoari dagokionez, orokorrean banatuta esertzen dira bi multzo desberdinetan, alde batean, emakumeak eta ez bitarrak eta bestean, gizonak. Urteak aurrera joan ahala generoaren sailkapena espazioan geroz eta zurrunagoa bihurtu da eta seguruago sentitzen dira emakumeak eta ez bitarra bakoitza bere multzoan eserita.

Nire iritziz, politikako graduak tresna desberdinak eskaintzen ditu emakumeen ahalduntzea emateko eta laugarren urtean lehenengoan baino seguruago eta gaitasun gehiago izateko. Hala ere, gabezia handiak daude, gelan parte hartzean desberdintasun handia ematen da generoaren arabera eta nahiz eta irakasleak saiatu egoera orekatzen ez dituzte baliabide egokiak erabiltzen. Emakumeek beraien buruarekiko konfiantza falta handia dute eta horrek beraien ikasketa prozesua oztopatzen du.

Genero rola erreproduzitu egiten dira eta emakumeek lan gehiena egiten dute, dena antolatzeaz gain. Emakumeek egiten dituzte beti idazkari lanak eta honen aurrean ikasleek sentitzen dute irakasleek ez dutela eskua hartzen. Lau urteetan generoaren arabera banaketa

handia ematen da eta multzo zurrinak bihurtzen dira. Horrez gain, ez bitarren ikuspegia ez da kontuan hartzen eta egoera bortitzak eta deserosoak bizi izan behar izaten dituzte, esate baterako, irakasleen autoebaluazioan emakumea edo gizona den jartzera behartuta egoten dira. Nahiz eta graduak ahaldunderako tresnak eskaini, aldaketak egiten jarraitu behar da eta feminismoaren eta ez bitarren ikuspegiak presentzia gehiago izan behar lukete.

8. Bibliografia:

- Abellán, Joaquín (2016). “Liberalismo clásico”, Mellon, Joan Anton eta Torrens Xabier (ed.) *Ideologías y movimientos políticos contemporaneos*. Hiria: Tecnos. (11-42).
- Arruzza, Bhattacharya, Fraser, (2019): Feminismoa %99aren alde: Manifestu bat. Txalaparta
- Blas, Asier (2008): Politika- eta administrazio- analisisirako metodologia eta teknikak. UEU.
- BEAUVOIR, S. (1949): *El Segundo Sexo*. Cátedra, Madrid
- Bengoechea, M. (2004a). Influencia del uso del lenguaje y los estilos comunicativos en la autoestima y la formación de la identidad personal Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer. <https://bit.ly/3IHNVRe>
- Bengoechea, M. (2004b). La comunicación femenina. En Emakunde (Ed) *Perspectiva de género en la comunicación e imagen corporativa* (pp.113-147). Emakunde
- Cadoche, E., & Montarlot, A. D. (2021). El síndrome de la impostora. *Península*.
- El síndrome de la impostora ¿Por qué las mujeres siguen sin creer en ellas mismas? Élisabeth Cadoche Anne de Montarlot
- Clance, P. R., & Imes, S. A. (1978). The Impostor Phenomenon in High Achieving Women: Dynamics and Therapeutic Intervention. *Psychotherapy: Theory, Research & Practice*, 15(3), 241-247. doi: 10.1037/h0086006
- Cistierna, F. (2002). Currículum oculto: Los mensajes no visibles del conocimiento educativo. *REXE: Revista de Estudios y Experiencias en Educación*, 1(1), 41-56. <https://bit.ly/3veQPQA>
- EISENSTEIN, Zillah (1984), “Hacia el desarrollo de una teoría del patriarcado capitalista y el feminismo socialista”
- Federici, S. (2018). El patriarcado del salario. *Críticas feministas al marxismo, 1*.
- Fernández Pereda, A. (2022). Genero ikuspegitik hezkidetzaren erabileraren erronkak. Fundación CYD (2022): Presencia de la mujer en la universidad.

- Grañeras Pastrana, M., Olmo Campillo, G. D., Novoa Gil, N., García Blanco, M., & Boix Bernal, M. (2001). Las mujeres en el sistema educativo.
- Guerra, M. Á. S. (2006). *Arqueología de los sentimientos en la escuela/Archaeology of the feelings at school*. Editorial Bonum.
- HUMBOLDT, G. von (1988) : Los límites de la acción del Estado, Edición de J. Abellán, Tecnos, Madrid.
- Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- LOCKE, J. (1991): Dos Ensayos sobre el gobierno civil, trad. cast. Espasa-Calpe, Madrid. — (1985): Carta sobre la tolerancia, edición de Pedro Bravo, Tecnos, Madrid.
- Martínez, Aguado-Peláez eta Ahedo (2021): Investigación-acción educativa para desvelar y gestionar cooperativamente desigualdades de género. Emakunde.
- Martínez-Bascuñán, Máriam (2016). “Feminismo”, Mellon, Joan Anton eta Torrens Xabier (ed.) *Ideologías y movimientos políticos contemporáneos*. Hiria: Tecnos. (495-513).
- MERINA, Á. M. V. (2009). La Coeducación, una Educación en Igualdad. *Innovación y Experiencias Educativas*, 1-11.
- MILLET, Kate (1995): Política sexual, trad. Ana María Bravo García, Cátedra, Madrid.
- Paz, A. G. (2006). Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta. *Uztaro*, 56, 87-106.
- Puleo, Alicia. (Madrid, 1992). La dialéctica de la sexualidad: sexo y género en la filosofía contemporánea. Cátedra Editorial.
- Puleo, Alicia. (2010). Lo personal es político: el surgimiento del feminismo radical. Kate Millet. *Mujeres en red. El periódico feminista*.
- RUBIN, Gayle (1975): “The Traffic in Women: Notes on the ‘Political Economy’ of sex”. En Reiter, Rayna (ed.): *Toward an Anthropology of Women*. Nueva York: Monthly Review Press.
- Sakulku, J., & Alexander, J. (2011). The Impostor Phenomenon. *International Journal of Behavioral Science*, 6(1), 73-92.
- Sánchez, A. (2002). El androcentrismo científico: el obstáculo para la igualdad de género en la escuela actual. *Educar*, 29, 91-102 or.
- SUBIRATS, Marina (1999): Género y escuela. En Lomas, Carlos (comp.): *¿Iguales o diferentes? Género, diferencia sexual, lenguaje y educación* (pp.19-31). Barcelona: Paidós Ibérica, pp. 19-31.

Subirats, M. (2010). La coeducación hoy: los objetivos pendientes. *Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Recuperado de <https://www.google.es/url>.*

Subirats, M. (2016). De los dispositivos selectivos en la educación: el caso del sexismo. *Revista de Sociología de la Educación-RASE*, 9(1), 22-36.

Villarreal, A. L. (2003). Relaciones de poder en la sociedad patriarcal. *Revista Espiga*, 4(7), 75-90.

Villasante, M. Á. B. (2021). Propuestas y herramientas innovadoras para introducir la coeducación en la docencia universitaria. In *Hacia una docencia sensible al género en la educación superior* (pp. 434-459). Dykinson.

9. Eranskinak:

1. Fitxa teknikoa: Galdetegia: Iruzurgilearen sindromea



Parte Hartuz ikerketa taldeko ikertzaile desberdinak, Politika Zientzia ikasle batzuekin batera, ikasleen talde lanetan ematen diren genero desberdintasunei buruz ikerketa bat egiten ari gara. Horretarako, genero desberdintasunean oinarritutako adierazpen sorta baten gaineko azterketa egin nahiko genuke: hain zuzen ere, ikasleen artean inpostora sindromea deiturikoa nola ematen den, talde lanetan gaitasun desberdinak ebaluatzeko modua nolakoa den eta ikasketa estiloak zeintzuk diren.

Gure helburua hiru dimentsio hauek Politika Zientziak ikasten dituzten emakume eta gizonen artean nola ematen diren aztertzea da. Horretarako, hiru galdetegi hauek kurso eta talde guztietatik pasa nahiko genituzke.

Esku artean duzuna, lehenengo galdetegia da



Inkestaren datu guztiak konfidentzialak eta anonimoak izango dira. Ikerketa taldeak ez ditu zure kontaktu datuak ezagutzen.

Zure erantzunak 3. galdetegiarekin alderatu ahal izateko, parte hartzailearen kodea gehitu behar duzu. Horretarako, mesedez, sartu zure telefonoaren azken lau digituak eta zure urtebetzeko eguna:

Adibidez, zure telefono zenbakia 615487374 bada, eta zure urtebetetzeko eguna bia (2), zure kodea izango da:

G3. ¿Zein da zure genero identitatea?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Emakumea (zizgeneroa edo transgeneroa)	
b) Gizona (zizgeneroa edo transgeneroa)	
c) Pertsona ez bitarra	
d) ED/EE	

G4. ¿Zein da zure adina?

ERANTZUNAK	KOD.
a) 18 eta 24 urte bitartean	
b) 25 eta 34 urte bitartean	
c) 35 eta 44 urte bitartean	
d) 45 eta 54 urte bitartean	
e) 55 eta 64 urte bitartean	
f) ED/EE	

G5. ¿Zure ikasketak finantzatzeko beka motaren baten onuraduna zara?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Bai	



b) Ez	
c) Eskatera egin dut, baina ez dut eskuratu	
d) Ez dut inoiz eskatu	
e) ED/EE	

G6. Unibertsitate ikaslea naiz...

ERANTZUNAK	KOD.
a) Lehen belaunaldikoa (zure gurasoak eta zure aitona-amonak ez ziren unibertsitatera joan)	
b) Bigarren belaunaldikoa (zure gurasoak unibertsitatera joan ziren baina aitona-amonak ez)	
c) Hirugarren belaunaldikoa (zure gurasoak eta aitona-amonak unibertsitatera joan ziren)	
e) ED/EE	

G7. ¿Zein da zure sexu-orientazioa?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Heterosexuala	
b) Homosexuala	
c) Bisexuala	
d) ED/EE	

G8. ¿Non ikasi zenuen batxilergoa?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Ikastetxe publiko batean	
b) Itunpeko ikastetxe batean	
c) Itunik gabeko ikastetxe pribatu batean	
d) ED/EE	

G9. ¿Zein hizkuntzatan komunikatzen zara egunerokotasunean?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Gaztelera	
b) Euskara	



c) Beste bat (adierazi zein):	
d) ED/EE	

G10. ¿Ikasgelan deseroso sentitzen al zara zure hitz egiteko moduagatik eta/edo hizkuntza menperatzeko gaitasun mailagatik?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Bai, beti	
b) Bai, batzuetan	
c) Ez, inoiz	
d) ED/EE	

G11. ¿Ikasgelan deseroso sentitzen al zara zure azalaren koloreagatik?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Bai, beti	
b) Bai, batzuetan	
c) Ez, inoiz	
d) ED/EE	

G12. ¿Baduzu desgaitasun/dibertsitate fisiko eta/edo kognitiborik?

ERANTZUNAK	KOD.
a) Bai	
b) Ez	
c) ED/EE	

KLANCE TESTA

Galdera bakoitzean, aukeratu baieztapenaren egiazkotasun-maila hobekien adierazten duen erantzuna. Hobe da bururatzen zaizun lehen erantzuna jartzea, baieztapen bakoitza behin eta berriz pentsatzen egon beharrean.



G. 13. Sarritan izan dut arrakasta azterketa edo zeregin bat egiteko orduan, nahiz eta egin aurretik hori honela izango ez zela pentsatu.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 14. Izatez naizena baino trebeagoa naizela ematen du.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 15. Aukera izanez gero, ebaluazioak saihesten ditut eta besteek ebaluatuko nauten beldur naiz.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 16. Jendeak lortu dudán zerbaitengatik gorai patzen nauenean, etorkizunean niri buruz espero dena emateko gai ez izatearen beldurra sentitzen dut.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 17. Batzuetan pentsatzen dut nire egungo posizioa edo arrakasta lortu nuela leku egokian egoteagatik, une egokian edo pertsona egokiak ezagutzeagatik.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 18. Beldurra sentitzen dut niretzat garrantzitsuak diren pertsonak uste bezain gaitasun handikoa ez naizela ohartzeaz.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 19. Gehiago gogoratu ohi naiz nire hoberena eman ez dudán uneetat, onena eman dudánetaz baino.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 20. Gutxitan ateratzen zait lan edo proiektu bat nik nahi bezain ondo.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 21. Batzuetan sentitu edo pentsatzen dut nire bizitzan edo lanean lortutako arrakasta akatsen bat izan dela.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 22. Zaila egiten zait nire adimenari edo nire lorpenei buruzko gorai pamerak onartzea.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------



G. 23. Batzuetan, nire arrakasta zortzarekin lotuta dagoela pentsatzen dut.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 24. Batzuetan etsituta sentitzen naiz nire egungo lorpenekin eta gehiago lortu nezakeela pentsatzen dut.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 25. Batzuetan besteek nire ezagutzan edo gaitasunetan dauden hutsuneak ezagutzeak beldurtu egiten nau.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 26. Askotan, zeregin edo enpresa berri batean porrot egin dezakekanaren beldur naiz, nahiz eta, orokorrean saiakerak egiten ditudanetan ondo moldatu.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 27. Zerbaitetan arrakasta izan eta horregatik errekonozimendua jaso dudanean, zalantzak sorrarazten zaizkit ea arrakasta hori errepikatzeko gai izango naizen.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 28. Lortu dudan zerbaiten ondorioz, goraipamenak eta errekonozimendua jasotzen badut, egindakoari garrantzia kentzen diot.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 29. Askotan nire gaitasunak inguruan ditudanen gaitasunekin alderatzen ditut eta pentsatzen dut ni baino argiagoak izan daitezkeela.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 30. Askotan proiektu edo azterketa batean arrakasta ez izateak kezkatzen nau, nahiz eta nire inguruan ditudanek ondo egingo dudala irmoki pentsatu.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

G. 31. Errekonozimendu bat jasoko badut, gertaera hori benetan burutu arte zalantzan izaten ditut gainontzekoei kontatu edo ez.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------



G. 32. Lorpenak dakartzaten egoeretan "onena" edo gutxienez "oso berezia" ez banaiz gaizki eta adorerik gabe sentitzen naiz.

Inoiz ere ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Askotan	Beti
--------------	--------------	-----------	---------	------

2. Fitxa teknikoak: Galdetegia: Gaitasun sozio-kooperatiboak

Inkestaren datu guztiak konfidentzialak eta anonimoak izango dira. Ikerketa taldeak ez ditu zure kontaktu datuak ezagutzen.

Zure erantzunak 3. galdetegiarekin alderatu ahal izateko, parte hartzailearen kodea gehitu behar duzu. Horretarako, mesedez, sartu zure telefonoaren azken lau digituak eta zure urtebetzeko eguna:

Adibidez, zure telefono zenbakia 615487374 bada, eta zure urtebetzeko eguna bia (2), zure kodea izango da:

Gaitasun sozio-kooperatibeen autoebaluazioa

Hurrengo zerrendan hainbat gaitasunen portaerak azaltzen dira. Adierazi (x) batekin zer neurritan hautematen duzun horietako bakoitza lankideekin lan egiteko **erabiltzen duzula**

1 Inoiz edo ia inoiz ez/2 Oso gutxi 3 gutxi/4 Ez asko ez gutxi/5 batzuetan/6 Nahiko maiz/7 Beti edo ia beti

Genero → **Gizona** **Emakumea** **Pertsona ez bitarra**

1.- Taldekideei modu aktiboan entzutea talde-lanean.	1 2 3 4 5 6 7
2. Taldekideekin argi eta garbi hitz egitea talde-lanean	1 2 3 4 5 6 7
3. Taldeko norbaiti mesede bat eskatzea	1 2 3 4 5 6 7
4. Barkamena eskatu errore bat egin baduzu	1 2 3 4 5 6 7
5. Zure eskubideak defendatzea eta zure ezinegona adieraztea	1 2 3 4 5 6 7
6. Negoziatzea, nire eta bestearen interesak zein diren jakinda	1 2 3 4 5 6 7
7. Zure iritziak adieraztea eta defendatzea, beste kideen argudioak behar bezala eztabaidatuz	1 2 3 4 5 6 7
8. Kritikari aurre egitea eta kritikaturako alderdiari buruz hausnartzeko gaitasuna izatea	1 2 3 4 5 6 7
9. Beste pertsona batzuk goraiatzeko eta aitortzeko	1 2 3 4 5 6 7

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

10. Talde batean alde aurretik konfiantzarik ez duten pertsonekin integratzea.	1 2 3 4 5 6 7
11. Lankidetzan aritzea eta partekatzea, garatzen diren zereginetan laguntza emanez eta jasoz	1 2 3 4 5 6 7
12. Zure emozioak askatasunez adieraztea	1 2 3 4 5 6 7
13. Besteen emozioak enpatiaz jasotzea.	1 2 3 4 5 6 7
14. Eragiteko eta besteak zuzentzeko gaitasunarekin gidatzea	1 2 3 4 5 6 7
15. Gainerako taldekideekin lankidetzan aritzea eta lankidetzaren harremanak ezartzea	1 2 3 4 5 6 7
16. Zure emozioak kontrolatzea	1 2 3 4 5 6 7
17. Gatazkak modu eraikitzailean maneiatzea	1 2 3 4 5 6 7
18. Bitartekaritza egitea egoera gatazkatsuetan	1 2 3 4 5 6 7
19. Talde-lanean aktiboki parte hartzea	1 2 3 4 5 6 7
20. Taldean erabakiak hartzea	1 2 3 4 5 6 7

3. Fitxa teknikoak: Eztabaida taldea aurrera eramateko pausoak

Hauek izan dira eztabaida taldea aurrera eramateko egin beharko ditudan pausoak eta kontuan izan behar dena: (Juaristi, 2003)

1. Eztabaida baino lehen:

- a. Eztabaida taldea egiteko kontaktazio egokia aurrera eraman.
 - i. Elkarte edo instituzio baten laguntza izatea komenigarria da. Kasu honetan nire tutorearen, hau da, Andere Ormazabalaren laguntza izan dut kontaktazioa egiteko eta leku egokia bermatzeko.
- b. Data eta toki egokiak aukeratu behar dira.
- c. Gune erosoak sortu behar da eztabaida taldea egiteko.
- d. Konfidentziasuna bermatu behar da parte-hartuko dutenei.
- e. Audioa grabatu.

2. Eztabaidaren hasieran

- a. Sarrera egin.
- b. Aurkezpenak (ikerlaria eta taldekideena)
- c. Ikerketaren helburuak adierazi taldekideei.
- d. Grabatzeko baimena eskatu eta anonimatoa bermatuko dela aipatu.
- e. Arauetako bat kritika pertsonalik ez egitea da.
- f. Konfiantza sortu behar da partaideen artean eta ikerlariarengan.
- g. Taldekide guztiak berdín tratatu behar dira eta neutrala izan.
- h. Gaiarekiko interesa erakutsi eta bermatu behar da.
- i. Partaideak eztabaidara bultzatzeko gaitasuna izan behar da.

3. Eztabaidaren bilakaeran:

- a. Galdera ez dira epaileak izan behar, orokorrak izan behar dira hasiera batean eta zehatzagoak aurrera egin ahala.
- b. Egoerari egokitzea ezinbestekoa da.
- c. Egoera gatazkatsuei edo isiltasunei irtenbidea ematea funtsezkoa da.
- d. Hitza eman eta kendu: nork, noiz eta zenbat denbora hitz egingo duen.
- e. Eztabaidan sortu diren emozioak kudeatzeko gai izatea.
- f. Garrantzia eta sakontasuna zeri eman erabaki behar da.

4. Eztabaidaren amaieran:

- a. Partaidetza eskertu.

4. Fitxa teknikoa: Eztabaida taldeak

1. Eztabaida taldea: 2023ko apirilaren 19an ordubeteko saioa Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean, hain zuzen ere, politika saileko mintegian.
2. Eztabaida taldea: 2023ko apirilaren 20an ordubeteko saioa Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean, hain zuzen ere, politika saileko mintegian.

Eztabaida taldeko gidoia:

1. Azaletik begirada bat ematen badiozue zuen ikasgelari, uste duzue generoaren arabera desberdintasunak ematen direla orokorrean?
2. Ikasgelan generoaren arabera pertsona kantitatea antzekoa da?
3. Espazioaren antolaketa:
 - a. Esertzeko lekua
 - i. uste duzue generoaren arabera gelan esertzeko kokalekua desberdina dela?
 - b. Esertzeko modua
 - i. esertzeko moduan desberdintasunak ikusten dituzue?
 - c. Norekin, zein lekutan eta nola esertzeko moduan generoaren arabera desberdintasunak daudela pentsatzen duzue?
4. Estilo komunikatiboak:
 - a. Nork hartzen du hitza?
 - i. ze generok uste duzue gehiago parte hartzen duela klasean ahoz hitz egitean?
 - b. Tonua
 - i. tonuan generoaren arabera desberdintasunak ikusten al dira?
 - c. Publikotasuna eta pribatutasuna
 - i. publikoan hitz egiteko orduan zuen buruarekin eroso sentitzen zarete?
 - ii. horrek generoarekin zerikusirik ba al du?
 - iii. zein egoeratan sentitzen zarete hobeto talde handian hitz egitean edo talde txikiagoak egiten direnean.
 - d. Diskurtsoa: arrazionala edo emozionala (generoaren arabera)

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

- i. zuen diskurtsoan emozioak erabiltzeko joera duzue?
 - ii. zuen diskurtsoan emozio gehiago agertzen direla pentsatzen duzue gizonezkoetan baino esaterako?
5. Talde lanak:
 - a. Rolak: idazkaria, zaintza (zuzenketa), bidalketa
 - i. talde lanetan generoaren arabera rol desberdinak egiten direla pentsatzen ahal duzue? gai izango zinatekete horiek identifikatzeko?
 - ii. talde lanetan zuzenketa egiten eta dena txukun bidaltzearen rola egiteko ohitura duzue?
 - b. Lan karga
 - i. talde lanak egitean nolakoa izaten da gainean sentitzen duzuen lan karga?
 - ii. Horrek generoaren rolekin zerikusia duela uste duzu?
 - c. Talde lanen aurkezpena:
 - i. Taldeko lanak aurkezten dituzuenean gizonezkoak gehiago hitz egiten dutela pentsatzen duzu?
6. Iruzurgilearen sindromea
 - a. Lanak egitean zuen buruarekiko konfiantza duzuela pentsatzen duzue?
 - b. Proiektu edo azterketa batean arrakasta ez izateak kezkatzen al zaituzte, nahiz eta zuen inguruan dituzuenek ondo egingo duzuela irmoki pentsatu?
 - c. Askotan gertatu al zaizue pentsatzea lan edo azterketa bat oker egingo zenuketeela nahiz eta ondoren arrakasta izan?
7. Irakasleak:
 - a. generoaren arabera desberdin tratatzen dutela pentsatzen duzue?
 - b. guztien parte hartzea sustatzen dutela pentsatzen duzue?
 - c. egoeraren aurrean jarrera aktiboago bat izan beharko lukete desberdintasun horiek kontrolatzeko?
8. Sakontzeko galderak
 - a. Eta hori zergatik?
 - b. Sakonduko mesedez gai hori?
9. Ondorioz, zein esango zenukete ikasgelan ikusten duzuen desberdintasun handiena?
10. Zerbait gehiago adierazi nahi duzue?

5. Fitxa teknikoak: 1. eztabaida taldeko transkripzioa

Transkripzioa:

Nire sarrera

Beraien sarrera

Bakazue generoarekiko gaiarekiko gertutasunik?

A1: Euskal Herriko Neska Gazteen parte naiz edo militatzen dut, Eikin leioan eta Lautadako talde batean ere

A4: Ni ere auzoko, insitutotik egon naiz talde desberdinetan, institutuan hasi nintzen, unibertsitateko taldean egon nintzen eta orain auzoko talde feministan

B1: nik ez dut militatzen talde feminista batean

B4: ni institutuan hasi nintzen 16 urtekin, baita ere auzoan Bilboko alde zaharrean neska gazteen taldean nago eta ere bi urteetan egon nintzen unibertsitateko neska gazteen taldean

1. Azaletik begirada bat emanten badiozue zuen ikasgelari, uste duzue generoaren arabera desberdintasunak ematen direla orokorrean?-

A1: nire ustez bai, justo guk institutua oso gertu daukagu eta aldea nik asko nabaritu dut, ez dakit gure karrera den edo zer den, baina ezberdintasun horiek edo kontzientzia maila askoz handiagoa da eta erantzunkizuna askoz handiagoak dira aurreko urteetan baino

B1: nik esan behar dut pixkat eramán dudala, baneukan ideia bat karrera honen inguruan eta eramán dut igual lehenengo kurtsoan nagoelako, baina uste nuen parte hartze handiagoa egon behar zela eta eramán dut pixkat desilusio hori, eta ez dut ikusi hainbeste parte-hartze edo eztabaida klasean orduan justo ni parte hartzailea naizenez ez dut asko somatzen desberdintasun hori, ikusten dut ikusten delako, baina agian ez da oso agerikoa.

A4: Niretzako izan da oso prozesu luzea nire inguruan ze nik karrera hasi nun pixka bat ezjakintasun batean, nik ez nekien asko politikaren inguruan eta gai hauen inguruan nik uste nuen lehenengo urteetan ez nuela parte hartzen ez nekielako zerri buruz ari ginen hitz egiten eta orain ikusten dut perspektibarekin eta laugarren mailan ere ikusten dut nire burua jakintza maila on batekin, oinarri batzuekin eta oraindik ikusten dut baditudala zailtasunak parte hartzerako garaian eta eske ezta bakarrik nik nire buruarengan ikusten dudán gauza bat, egon dira momentuak non komentatu dugun beste ikaskide batzuekin eta bai dela emakumeen artean ikusten dugun zerbait kostatzen zaigula parte hartzea “uste dugulako ez daukagula eskatzen den jakintza maila hori” gero ikusten ditugu beste klasekide batzuk, normalean mutilak direnak, ez daukatela beldurrik pentsatzen dutena esateko eta esaten dituztela

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

-barbaritate- batzuk, oso ikusgarria dela heltzen zarenean laugarren maila batetara denok gaudela jakintza horretan parekatuta, badakigu denok zeri buruz ari garen hitz egiten baina beti ikusten dituzu pertsona berdinak parte hartzen

B4: nire ikuspegia ere, Aren antzekoa da, lehenengo mailan bai jarrera optimistago batekin ba sartu nintzen ere genero perspektiba orokortuago egongo zela pentsatzen eta gero bai desilusio pixka bat sentitu nuen, batez ere, klaseko mutilekin, orokorrean ere, sartzen zarelako karreran eta pentsatzen duzu bueno nik pentsatzen nuen politikari buruz ez nekiela ezer bakarrik edo batez ere feminismoari buruz ez nekielako, baina gai batzuei buruz ez orduan feminismoa bigarren planoko arazoa ikusten nuenez bai konparazio horrekin sartu nintzen eta gero ere klasean lau urtetan zehar nabaritu egin da eta bai azalerratu da bigarren planoko arazo bezala balore gutxiago eman zaiolako azkenean.

Ta esan dezuena publikoan hitz egitearena igartzen duzue generoaren arabera desberdintasuna dagoela? Zuek pertsonalki eroso sentitzen zarete talde handian klasean hitz egitekoan edo horrek zuen generoarekin eragina duela uste dezue?

B1: nik esan behar dut eroso sentitzen naizela hitz egiten eta zortea dudalako ez didalako hainbeste lotsarik ematen, baina bai ikusi dut militatzeko esparruan edo bileretan adibidez, gizonak kriston perlada bota eta lasai esaten du eta emakume batek igual zerbait okurritzen zaiola momentuan eta beti atzean dago bua pero no se ee edo pero no me hagais mucho caso. Beti dago atzean hori sartuta.

Hori gelan ikusten dezu ere?

A1: ikasgelan nik uste dut, asko nabaritzen da bapatean gizon asko faltatzen direnean eta emakumeen parte hartzea bai handiagoa izaten dela edo aurkezpen batetan bapatean emakume guztiak (urduri, besoak gurutzatuta, lurrera begira= zeinu korporalak) edo jarrera korporala oso desberdina da eta epaituak bezala sentitzen dira aurkezpena amaitu eta bere eserlekuetara joaten dira eta oso kezkatuta ea ondo egin duten eta epaitasun hori agian gehiago sentitzen dutela. ez?

B1: bai

A4: nik hori nigan sentitzen dut eta nire klasekideengan ere ikusten dut nola emakumeak beti gauden esaten duguna modalizatzen edo bueno baina hori nik pentsatzen dudana da, nire

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

iritzia da, ez duzue berdina pentsatu behar edo azken finean beti gaudela eskusa bat jartzen gure iritzia zuzenean bota beharrean

B4: bai nire ustez ere, partre hartzea askoz txikiagoa da emakumeena eta gainera emakumeok gure iritzia edo zerbait esaten dugunean, parte hartzean klasea askotan gure iritzia bezala aurkezten dugu eta gizon edo ikusten dudana gehiago da gizonengan baieztapenak bezala esaten dituztela beraien iritziak edo parte hartzea baieztapen forman botatzen dituztela eta ere ez bakarrik klasean baina, klase giroan gaudenean patioan edo, ere parte hartzea gizonena askoz zentralagoa da, gaiak gizonen axola zaizkienak izaten dira eta “klase giroan bai emakumeok periferian bezala geratzen gara, eta gure parte hartzea handitzeko baztertu egin behar gara eta talde propioak sortu”.

Adibidez A1-k esan duena gorputztasunarena zuek uste dezue espazioaren banaketan edo espazioaren antolaketan adibidez exertzeko lekuan edo moduan klasean bertan?

A4: lehenengo gauza gure klasean argi gara erdi eta erdi neskak eta mutilak eta beti dago lerro bat neskena bakarrik eta mutilak esertzen dira beti atzeko aldean baina beti sektoreka banatzen gara, baina nik uste ez dakit lehenengo mailan bai geundela pixka bat nahastuta eta denbora pasatu ahala banandu egin gara eta bihurtu gara sektore oso zurrinak eta generoaren arabera sailkatzen gara.

B1: momentuz nahastuta gaude kuadrilaka, taldeka eta horren arabera blokeka eserita

A1: baina agian egia da eztabaida batean edo hitz egiten gaudenea “emakumeok askotan igual altxatzen dutela eskua edo itxaroten dutela besteek amaitzera eta gero hitz egiten dute, eta agian beraiek egiten dute zuzenean esan eta ez dute itxoiten edo gainetik haien ahots (asko generalizatzen ari naiz pila bat baina) altuago batekin gainean bezala”.

A4: eta nik ebai ikusten dudana da emakumeok beti gaudela bilatzen aprobazio bat eta irakasleak galdera bat egiten duenean, gure artean bai komentatzen ditugula gauzak eta gero gure albokoarekin komentatu dugunean eta eman digunean onarpena moduan ia ausartzen zarela altuan esaten, baina lehenengo batean zure iritzia botatzea eskua altxatzean lehenengo erantzuten hori oso gutxitan ikusten da eta nik ere oso gutxitan egiten dut eta hori egiten dudala beti eta gizonen edo “gure klaseko mutilek esaten dituzte gauzak kontrastatu gabe eta ez dute inoiz bilatzen aprobazio hori eta irakasleak aprobazioa ez badio ematen ere berdin zaie. -nik nire iritzia esan dut eta listo- eta gero niri gertatzen zait geratzen naizela eman didaten erantzunarekin eta ez bada adostasun bat sortu gaizki sentitzen naiz, pentsatzen dudalako eman dudala iritzi bat ez dena batere errebantea edo ez duela balio izan edo ez duela balorerik

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

B4: orokorrean jarrera ausartagoa erakusten dute ez dute iritzi orokorra bilatzen ezta aprobazioa eta asko nabaritzen da ere amaitzen dugunean hitz egiteaz bestean begiradak bilatzen ditugu aprobazio hori sentitzeko behar dugulako

B1: askotan bueltak ematea ez irrelebantea baizik eta ondo espresatu naiz ondo ulertu didate edo uste dute zerbait pentsatzen dudala eta justu hori ez da pentsatzen dudana, da pixkat bueltak ematea esan duzunari.

adibidez zuen klasian hitz egiteko moduan zuen diskurtsoan normalian emozioak eta hola erabiltzen dituzue, esan dezuena gehiago da emakumeok gehiago esaten degula nik pentsatzen det eta mutilak gehiago forma ba arrazionalago batean, baieztapena emanda, hori generoaren arabera ikusten dezue desberdintasun handia hitz egiteko moduan?

B1: hemen egingo dut desberdintasun bat gertatu zait asko ez generoari ikusita, gehiago zein maila teoriko askoz garatuago, irakurri dutelako gehiago beste batzuek ez dakie agian hainbeste politikataz eta hor bai ematen dela gehiago desberdintasun horretan. Gaian informatuak esaten dituzte gauzak nola diren eta besteek gehiago nire iritzi, baina ez dakit generoarekin baita lotura dauka ee baina ikusten dut gehiago beste bi talde horietan

B4: nik ere uste dut balore handiagoa ematen zaiola akademikoki ikasi duenari emozioei baino baina bai hori lehen aipatu dugunari buruz, mutilek hitz egiten dutenean ere, ez dute beraien iritzia esaten, baieztapenak bezala esaten dituzte, teknikoagoak dirudite eta guk agian emozionalagoak eta hori ez zaio hain balore akademikoa ematen guk daukagun abilitatea ikasten ari garena gure emozioekin lotzeko

A4: nik uste dut maila teorikoarena oso interesgarria dela eta zentzu batean hori bai ikusten dudala gure klasean baina ebai ikusten dut lehenengo mailara iritsi ginenean, maila teoriko altua zutenak edo hori ikusgarria egiten zutenak gehienetan ere bazirela mutilak, agian B4-k esan duena berak bazeukan gertutasun handia feminismoaren gaiarekin baina gai honek ez duenez berme akademikoa edo ez duenez zilegitasun bat esango dugu, ba g-k nahiz eta maila teoriko altua izan gai zehatz batean edo gehiago kostatzen zaio badakiela ez delako gai onartu bat izango eta gero beste teoria batzuei adibidez, marxismoa asko landu duten pertsona batzuk, mutilak ziren eta hori zen egitate orokor bat eta ez bazenuen hori ezagutzen zinen pixkat inkulto bat, bazen maila teorikoaren araberrako banaketa baina generoarekin lotuta zihoan biak batera, hori ebai ez direla, uztartu daitezkeela

A1: horren harira ere exigentzia maila eskatzen dugunez gure buruari ezjakintasun hori daukagula pentsatu dezakegu, eta orduan ez parte hartu edo gehiago irakurri edo horretara

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

gehiago murgildu ikusten dugulako konplexu bat bezala ezjakintasuna edo formazio teoriko hori.

Adibidez zuek zuen buruarekin nola sentitu izan zarete imaginatu talde lanak egitekoan desberdintasun asko ikusten duzue zuen generoarekin egitean taldeak edo talde mistoetan?

A1: gure taldeetan normalean mistoak izaten dira eta horren barne anomalia asko daude baina egia da orokorrean hartzen diren rola, igual espero da, niri askotan esaten didate, zer egin behar dut? esan zer atal egin eta nik egingo dut. baina klaro “nik ez dut inor gidatu behar” eta gauzak eman, azaldu eta eskatzen zait agian emakume nire taldekide emakumeekin ere hori sentitzen dugu eta hitz egin izan dugu, beti ordena, txukuntasuna, epeak errespetatzea, aurretik eramaten dugu, beraiek pasotismo handia erakusten dute batzuetan, eta hori behar dutela aprobazio hori eta honelako desberdintasunak nabaritu ditut.

A4: gure kasuan duela asko ez ditugula egiten taldeak hausaz eta nik daramat urte bete gizonekin talde lanak egin gabe asike ez dakit oso ondo nola esan, baina ni karreraren sartu nintzen bi lagunekin, biak mutilak eta biak nahiko nagiak eta agian nik eramaten nuen arduraren hori eta urteetan zehar ikusi dut e bai delako nire izaera pixka bat, dena antolatuta eramatea, dena kontrolpean, hau errepikatzen dela emakumeengan gizonezkoengan baino gehiago? ba bai, baino nire bizipena dela nire izaerarekin lotzen dudana

B4: nik gehienetan ikusi dudana izan da, talde mistoetan antolakuntza ekintzak emakumeek burutzen dituztela adibidez: geratzeko egunak, ordua, whatsappeko taldea egin, lehen pausua gehienetan emakumeena izaten da eta gizonak igual klasean daukaten rol kontrako aukeratzen dute: banatzen badugu nik parte hau hartzen dut egiten dut eta gero puzzle bat bezala elkartzen dugu edo itxaroten dute esatera noiz geratuko garen eta zer ordutan besteek esatea eta hori bai gehiago ikusi dudala nire kasuan.

A1: agian ere esaten edo proposatzen dena ez zalantzan jarri baina igual ez daukala gaiak, guk egin ditugu lauhileko honetan ikerketa gai pila bat eta gaia aukeratzean, ikerketa gaia proposatzerakoan batzuk igual balio gehiago hartzen zutela edo justifikazio bat eskatzen zitzaigula besteen aldean edo baina bueno ez dakit hori generoarkin lotu edo ez izan leike.

B1: ez dakit justo niri ez zait gertatu iguala, ikerketa gaietan proposatu nuena izan zen aukeratu zena

A1: bai baina nik ere orokorrean, edo orokorregia da esan dudana

A4: nik pentsatzen dudana da ezagutzen dituzun pertsonekin, badaudela harreman batzuk hor daudela, baina imaginatzen dut nire burua ezagutzen ez dudana lau gizonetako talde batean

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

edo lau emakumeetako talde batean nahiz eta imaginazio bat izan nik badakit erosotasun maila handiagoa izango dudala emakumezkoen talde batean gizonezkoen batean baino, jakin gabe ze pertsona diren, bai eragiten dit pentsatzeak badela genero gauza bat, azken finean, nik nire burua imaginatzen badut nire iritzia ematen eta pentsatzen dudana esaten arazorik gabe emakumezkoen talde batean eta gizonezkoenean nahiz eta ez jakin zein diren, gero ebai espektoak daudela gizonezkotasun eta emakumezkotasun horretan, baina gizon heterosexual. B4: nik orokorrean askatasun gehiago sentitu dut emakumeekin egin ditudanean lanak gizonekin baino, gizonekin egitean, oso ziur egon behar naizela gaia ona dela, ondo irudituko zaiela proposatzen ditudan ekintzak edo proposamenak eta emakumeekin prozesuak naturalagoak izaten dira normalean nire esperientzian

Talde lanetan idazkaria, zuzenketak zenek egiten dituen edo bidalketak edo aurkezpenetan zenek hitz egiten duen gehiago? ikusten dituzue desberdintasunak generoan?

B1: nik uste dut desberdintasuna baina gehienbat ni ez naiz ordenatua eta nik lanak usten ditut azken egunetara, baina talde lanetan jartzen naiz denen lana delako eta bai agian ikusi dut beti dago paper hori gauzak bidaltzen dituen gauzak baina ni ez naiz izaten, baina talde batean igarri nuen nik ez banuen bidaltzen lana ez zela aurrera aterako (taldekide mutilak denak) eta bidali izan behar nuen eta uste dut emakume bakarra nintzela talde horretan, interes pixka bat, guztien nota dela eta ez bazen bidaltzen denek penkatuko zutela, horretan bai

A1: eta bai idazkaritza lanak gehienetan, ahots altuan esan behar direnak gizonak gehiago, orokorrean bai emakumeak igual onartasun maila hori edo behar dugunez edo ahotsak ere zapalduagoak egoten direnez ez dugula rol hori hartzen, baizik eta idaztekoa eta interesa jartzekoa lan idatzia eta lan gogorra egitearena hartzen dugu askotan

A4: bai nik ikusten dut agian, aurten esaten digutela mesedez emakume batek parte hartu dezala hitz egiterakoan, eta agian batzuetan emakume zein gizonek parte hartzen dute baina “idazkaritza lanetan ez duzu ikusiko gizon bat inoiz edo ia inoiz idazten” idazkaritza lanak bai ikusten ditut beti emakumeengan eta ez zaiola hainbesteko arreta jartzen hori, esaten digute hitz egin dezatela denetarik baina idazkaritzan ez dute ezer esaten.

B4: nik karreran zehar asko nabaritu dut nire lagunen artean denak neskak garela ez naizela ere ordenatuena eta beti beste batek egiten duela rol hori baina beti gizonekin egon naizenean beti niregan jauzi da erresponsabilitate hori: powerpointak egin, lana egituratu, estetikoki nola geratzen den ikusi eta errebisatzeko azken detaileak eta gauzatxoak egin eta bidaltzeko erresponsabilitatea

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Usten dezue talde lanetan lan karga desberdina izaten dela generoaren arabera? Talde mistoetan eta genero berdineko taldeetan lan karga berdina da?

A1: azken batean, B1-k aipatutako pasotismo hori baldin badago zuk hartu behar duzu horren pentiente (zaintza) egoteko rola eta batzuetan zuk ere egin behar duzu besteen lana edo banatzerakoan ez zaude ziur ea lan hori ondo egongo den edo ez eta batzuetan talde lanak direnez eta dakizuenez pertsona horrek ez duela asko jarri -zentzu horretan- zuk betetzen duzu zuri ez dagokizun gauza batzuk ere, askotan emakumeok izaten gara hori egiten dugunak edo bien artean edo whatsappeko taldetik aparte hitz egiten eske 11ak dira eta falta dira ez dakit zenbat puntu eta hasten gara gu egiten

A4: nik uste det hasiera batean banaketa dela nahiko orekatua, bakoitzak atal bat eta bakoitzak hori bete behar duela baina bertatik dena lotzea, estetikoki ondo jartzea, portada, aurkibidea, orri zenbakia, bibliografia... horrelako detaileak bai nabaritzen dudala beti jartzen ditudala nik edo nire taldekide den emakumezko batek, ebai gertatu zait talde lan bat egitea eta eredu bat egotea (Times new...) eta bapatean taldekide baten zati bat osorik (arial) eta txorrada bat dela ze hori aldatzen duzu momentu batean baina bai direla detaile asko gehitzen doazenak eta azken finean lan karga hori handitu egiten zaigula eta ez da lan karga oso ikusgarria dena baina azkenengo produktu horretan badauka inpaktu bat

B4: eta hori laugarren mailan asko nabaritzen da, lehenengo mailan normala da ez jakitea nola jarri behar den aipu bat edo bibliografia baina 4.mailan gauza asko barneratuta ditugu eta asko nabaritzen da nork egin duen lan hori 4 urteetan eta nork ez.

Talde lanetan aurkezpenetan ikusi dezue desberdintasunik? Hitz egiteko orduan?

B1: aurkezpenetan ez dut asko ikusten banatzen delako nahiko orekatua baina tokatu zait talde lan batean justu 5 edo 6 ginela eta 2 aitzakirik gabe ez ziren etorri klasera aurkezpen egunean eta hori jan izan behar genuen eta nuen baina izan zen geratu ginen 3 6ko talde lan bat izaten (etorri ez zirenak gizonak ziren)

A4: erantzunkizun hori agian ez dakit zein zen haien egoera baina nik uste dut beti orekatzen direla aurkezpenak direnean planifikatuak beti dago nahiko orekatuta baina iada delako maila pertsonalean aurkeztu behar den gauza bat

B4: askotan gertatzen dena da nahiko bai orekatua dagoela aurkezpenean bertan baina agian atzeko lana emakumeengan jauzi dela gehiago ba ez dakit parte bat zuzendu dute eta guztiz aldatu dute gizon baten parte edo mutila ez bada iristen epera emakumeak egiten du eta gero

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

aurkezpenean mutilak azaltzen du berari “hipotekikoki” egokitzen zaion parte emakume batek egin duen harren

A1: baita ere lotsaren faktorea, igual irakasle batek galdera bat egitean aurkezpen batean askotan lotsatu bezala edo planifikatuta zeneukan horretatik eta inprobisazio hori blokeatu egiten da eta hor sartzen da besteek epaitzearena eta publikoki hitz egitearena eta horretan askotan erantzun horiek bai ematen dituztela gizonak edo informazio gehigarri hori gehiago etorri daitekeela gizonen aldetik

zuek orokorrean zuen banakako lanak eta horrela egiten dituzuenean zuen buruarekiko konfiantza izaten duzue? edo nola sentitzen zarete?

A4: nik oso gaizki daramat “el síndrome de la impostora”, GRAL-arekin oso gaizki, beti kuestionatzen dut nire burua hirutan, lautan edo bostetan beharrezkoa bada eta adibidez nire irakaslearekin daukat konfiantza maila altua nire tutorearekin eta beti zerbait bidaltzen diodanean sentitzen dut ez dela gauza bat ondo egongo dena. Bidali dut marko teorikoa duela bost egun eta oraindik ez dit zuzendu eta berrirakurri nuen atzo eta iada badakit erdia edo zuzenduko didala eta berrizdazteko eta horrela egiten ditudan lan guztiekin. Nik bai sentitzen dut nire buruarengan daukadala exigentzia maila oso handi bat.

B4: nik ere GRAL-arekin argiago ikusi dut beti oinarriz pentsatzen dudala egiten ari naizen lana besteena baino txarragoa dela eta behar det besteekin konparatu ikusteko egiten ari naizena nahiko ondo dagoela baina oinarriz beti pentsatzen dut ez dela nahiko

B1: ni askotan lanaren arabera sentitzen dut behar dudala abiapuntu moduan beste baten lana ikusi eskema bat egiteko, baina behin hartzen dudanean nire ideia zein den, normalean egiten dut eta super gustora sentitzen naiz eta entregatzen dudana momentuan ez dut berrikusten, badakidalako begiratzen badut zerbait txarra aterako dudala, baina ez diot garrantzirik ematen. Listo bidali baduzu, bidali dut. Egia da lan desberdinak direla zuenak askoz lodiagoak, gureak oraindik ez.

A4: klaseko lan normalekin ere batzutan hori gertatzen zait behar dudala abiapuntu bat edo konparaketa bat, beste batena ikustea esateko: a ba nik idatzi dudana... / berdina jarri dugu, ez dago gaizki. Baina, berdina ez badut jartzen bai pentsatzen dudala, berak ez du hau jarri eta pentsatzen dut: inbentatu dut -inbentada maxima- eta irakasleak pentsatuko du tonta naizela. Aber hau ebai dela pentsatzen dudana eta gero etortzen dela ni konzienteagoa ni lurreratuagoa eta esaten didana: A, egon lasai badakizula. Baina, printzipio batean bai dira burura etortzen zaizkidan pentsamendu batzuk.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A1: nik ere autoexijentzia maila handia jartzen dut nigan eta asko nabaritzen dut adibidez zerbait argi ez dagoenean edo galdera bat egiten dudanean beti besteena lehenengo planteatzen dut eta nirea txartzat edo ni gaizki nagoela pentsatzen dut. Edo beti azterketa bat egitean (egin ditugula gutxi) baina esaten dut: oso gaizki egin dut edo ez dut behar bezain beste egin edo bai jartzen dudala karga handi bat neuregen.

Eta uste dezue autoexijentzia hori generoarekin lotura duela?

A4: niri gertatzen zaidana da justu karreran daukadan lagun mina, dela justu mutila eta guztiz kontrakoa, ez du autoexijentziarik, bidaltzen ditu gauzak azkeneko momentuan, egiten ditu gauzak azkeneko momentuan. Nik ikusten dut bera patxada horrekin dena azkeneko momentuan egiten eta esaten du: egun bat daukat 15 orrialdetako lan bat bidaltzeko eta oraindik ez dut irakurri. Eta nik diot: eta zer egingo duzu? Berak: bidaliko dut txusta bat. Eta bapatean ateratzen du 9a. Nik pentsatzen dut nik jan dut kristonako lana 15 orrialdetako lan bat egiteko eta pertsona honek egin du kriston lana eta feedback ona du. Eta orduan hasten naiz nire burua kuestionatzen: egiten dudana lana beharrezkoa da edo ez? Nik ez dut honetarako balio? Hau ez da nik menperatzen dudana karrera bat? **Ez dut merezi agian gradu hau ateratzea?** eta ikusten dut berarengan oso argia dela, oso lasai bizi dela eta egiten dituela gauzak ia pentsatu gabe eta super ondo ateratzen zaiola dena. Eta gero ikusten dut gu garela, nire lagun guztiak direla, neska guztiak kristoneko lan kargarekin -matadak sartzen gauzak ateratzeko- eta eske, nola da posible?

B4: bai, hori asko nabaritzen da, zer jarrerarekin hartzen ditugun lanak eta klasean edo karreran egin behar ditugun gauzak. emakumeen artean gehiago ikusten da edo nesken artean gure klasean asko ikusten da asko estresatzen garela, asko hitz egiten dugula lanei buruz... eta mutilek orokorrean patxadaz hartzen dutela gauza gehienak, edukiaz aparte agian gizonen edukia ona da edo berdina izan daiteke eta edukiaz aparte, notaz aparte, beste jarrera guztiz kontrakoak ikusten dira orokorrean gure klasean behintzat.

A4: agian ebai dagoela lotuta ikustarasten dugunarekin, guk beti ikustarasten dugula gure estresaren parte hori eta beraiek beti erakusten dutena dela, lasaitasuna eta agian ez dakit estresatzen diren baina seguru baietz edo agian ez, ez dakit, daukadan duda da, ezta? ez zaizue iruditzen? nola bizi zaitezke hain lasai lan guztiak erdizka egiten eta denak bidaltzen eta gainera... ez dakit.

Lehenengo mailan ikusten dezue auto-konfiantzarekiko generoarekin desberdintasuna? estresatuago edo lasaiago?

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A1: ez dakit, ni ere ez naiz, ez dut ardura handia jartzen, bai entregatzen ditudala lan guztiak... O- bezala azkeneko momentura usten ditudala gauzak. Justo nik inguruko mutilak direla arduratsuagoak orduan bai daukat presio hori egiteko. Baina, egia da gure klasean badagoela mutil talde bat beti dagoena lasaiago edo ez duena erantzuten edo egiten dituzte galdera batzuk igual klasean azaldu berri duten zerbaitena eta berak galdetzen du berdina, eta beti berdinak dira eta beti daudela beste -onda- batean edo ez dakit nola esan eta hori bai auto-exijentzia ez dakit den, baina agian ez daukatela inplikazio hori lanekiko edo klaseekiko edo karrerarekiko, ez dakit.

B4: guk ere geneukan talde mota hori pasotismoa gehiago ikusten genuela beraien artean

Adibidez, klasean bertan irakasleek ikusten dezue generoaren arabera desberdin tratatzen zaituztela?

B1: nazioarteko harremanak

A1: niri adibidez, nire klaseko ordezkaria naiz eta askotan hitz egin izan behar dut berarekin eta deitzen dit: neskatx edo neskato edo neskato edo aizu neska edo egun batean gauza bat galdetu nion eta esan zidan (gainera erdaraz): ¿seguro que estarías haciendo otra cosa chica? eta horrelakoak, beti esaten dit edo neskato edo chica

Gizona da?

A1: bai, eta ezin diot erantzun horrei, oso txikia sentitzen naiz eta ezin dut erantzun eta ez dakit zentzu horretan asko, baina, bestela orokorrean ez.

A4: eske hori gainera oso zapaltzailea da guztiz: chica, tipo, hasteko izen bat daukazu, berarekin zuzenean hitz egiten duzu behin baino gehiagotan, gutxienez zure izena jakin beharko luke. Pixka bat garrantzia kentzeko da, chica, ez zarela pertsona bat merezi duela agian trataera bat berdinen artekoa ezta?

A1: eta beti egiten ditu bromak eta beti izaten dira gizonezkoekin eta egun batean gure klasean iparraldeko bi mutil daude eta egun batean galdetu zuen: non daude iparraldekoak? eta beste bi iparraldeko neska zeuden eta altxatu zuten eskua eta esan zuen: ez, ez, iparraldekoak, mutilak. Izan zen, hauek ez dute balio hainbeste edo zer?

B4: iparraldekoak zentralak dira bai, futbolarekin gertatzen denez, futbolearen ere berdina gertatzen da esaten dutela athleticen? eta athleticen “normalean” mutilak dira.

A4: bai, gure kasuan ez dut gogoratzen irakaslerik gurekiko trataera desberdina zuenik, bai ikusten ditut desberdintasunak irakasteko garaian, eduki ditugun irakasle oso desastrosoak izan dira orokorrean gizonak, ez zenukete imaginatuko nola zegoen egela hori, eta horrela izan ditugu 2 edo 3, eta denak mutilak. Bai ikusten dudala emakumeengan egela dagoela beti

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

perfekto, epe guztiak daudela, irakasketa gida dena azalduta eta hori ere ikusi dugula gizon batzuegan baina orokorrean pertsona ez antolatu hori izango da gizona.

Uste dezue irakasleek genero guztien parte hartzea sustatzen dutela?

B4: guri gertatu zitzaigun lehenengo kurtsoan irakasle batek esan zuela, eskatu ziela mutilei neskei parte hartzen uztea eta gero beste kasu bat izan zen irakasle batek eskatzen zuela lehenengo neskak eta gero mutilak, espezifikoki eskatu behar zituen neskak hala mutilak berarentzat errekurtsio bakarra zelako guztiek parte hartzeko.

Eta esan dituzun bi adibide horiek zein generoetakoak dira?

B4: biak mutilak

A4: “eske niri iruditzen zait parte hartze hori ez dela aldatuko nahiz eta zuk agerrarazi gizonetako gehiago parte hartzen dutela eta beraiek atzera pauso bat eman behar dutela edo emakumeek pauso bat aurrera emateko. Parte-hartzea hasten da espaziotik, hasten da auto estimatik ere, orduan niretzako indartu beharko liratekeen gauzak ez dira gauzak bakarrik nork altxatzen duen eskua eta nork hitz egiten duen baizik eta hori ikustarastea parte-hartze horren atzean dauden oztopoak eta sortzen diren harreman horiek” eta bai emakumeek gure buruarekiko sortzen dugun harreman hori dela agian auto-exijentziarena, auto-estima baxua izatearena, beste onarpen bat bilatzearena zuk zure iritzia emateko. Hori ere ez da ikustarasten eta azken finean geratzen zarela pixka bat zure burua zigortzen esaten: jo ematen ari dira aukera emakumezkoek parte-hartzeko eta ez nago parte-hartzen, zergaitik gertatzen zait hau? aukera bat ematen didatenean ez dut aprobetxatzen, baina aukera hori nola ematen dizute? bultzatzen zaituzte parte-hartzera, baina ez dute lantzen parte-hartze hori oztopatzen duten faktoreak. Iruditzen zait eman beharko litzaiokela beste trataera bat eta mahaigaineratu behar direla beste gauza batzuk ere bai parte-hartze hori benetan bultzatu ahal izateko.

A1: gero ere gure karreran asko mahaigaineratzen den zerbait da genero identifikazioa eta hori askotan aurre ikusten dute eske ez da beharrezkoa galdetzea baina asko adierazi beharreko gauza bat izaten da esperimendu batean eta horrelakoetan eta irakasle bat izan behar da behintzat inklusibitate horren irudi, eta hori sustatzen duen zerbait izan behar da, ez direla hezitzaileak unibertsitatean egia da baina informazio horren irudi direla edo, orduan garrantzitsua da.

A4: niri gertatzen zait pentsatzen dudala: irakasleek badakite zer nolako botere harremana sortzen den emakumeen eta gizonen artean? eta hori kudeatzeko pauso bakarra da hori ikustaraztea baina era oso, ez dakit biolentzia esan ez dakit zein den hitza baino, emakume eta gizonen artean badago botere-harreman bat eta gizonak daude emakumeen gainetik eta listo

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

eta zuk horrekin egin ahal duzuna, eta emakumeek orduan eman pauso bat aurrera. Horrek ez du horrela funtzionatzen, ezin duzu esan: emakumeen parte-hartzea sustatzeko gizonezkoak isilduko dira eta listo, orduan hor sortzen duzuna da beste botere harreman bat eta gainera sakontzen duzu ere bai, ez dakit.

B4: nire sentazioa ere da, dauzkaten errekurtsioak oso xumeak direla, noizbait gertatu zaigu klasean talde edo edo eztabaida-tadeak egin behar ditugula gai bati buruz hitz egiteko edo ariketa txikia egiteko eta bozeramaileak irakasleak esaten du esplizituki: bozeramaileak neskak izan behar direla. eta agian noizbait mutil batek hitz egin du eta hitza moztu zaio talde batean eta hori jarrera biolentoa da.

B1: justo agian lortzen duzu kontrakoa zeren azkenean gelditzen zara begiratzen ari zaizula mundu guztia ez? eta ez da hain naturala, eta ixildu da mundu guztia nik hitz egiteko, uste dut lortzen dela kontrakoa. Nik uste dut irakasle batzuek egin dutela dena naturalagoa, hitz egitea nahi duenak, eta agian ez dutela lortzen baina ni sentitu naiz askoz ere seguruagoa eta adibidez lehengo irakasleen kasuan ez duzu ezta hitz egin nahi eta badakizu hitz egitean zure iritziak ez duela ezetarako balio eta mutil bati jartzen dio arreta pixka bat gehiago, baina agian da hain irakasle pasota ez duela orokorrean arreta jartzen. Baina bai zu sentitzen zarela askoz gutxiago.

Zein esango zenukete dela desberdintasun handiena edo zuei emakume bezala gertuen bizi dezuen desberdintasuna?

A4: nik esango nuke gehien ikusten dela dena onarpenarena, onarpenarekin ikusten dudala desberdintasun handiena, azken finean, beti bilatzen dudala onarpen bat eta onartua ez naizenean edo nire iritzia ez dena orokorra den gauza bat oso minduta sentitzen naizela.

B4: nik eboluzio bezala ikusi dudana lau urteetan zehar emakumeok sartu ginela oso txikituta eta txikia sentiarazten gintuela karreraren egoerak eta gizonekin konparatuz oso txikiak sentitzen ginen, baina denboran zehar dikotomia edo barne-gatazka hori azaleratu dugu eta gero eta banaketa biolentoagoa edo argiagoa ikusi da emakume eta gizonen artean, eta emakumeok barne gatazka hori azaleratu dugun momentuan, banaketa hori gero eta arrotzagoa egin da eta bai klase giroan eta bai klasetik kanpo, kanpoko harremanetan kriston eragina eduki du.

B1: nik ere onarpenarena asko eta zalantzan izatea zuk esandakoak ea zerbaitetarako balio duen, ahaztu zait zer esan behar nuen,

Beste zerbait gehitzeko?

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A4: Iruditu zait oso interesgarria G-k esan duena azkenean egia da azaleratu dugunean gaizki sentitzen garela gizonezkoen espazioetan eta adibidez, hartu dugunean erabaki bat horri aurre egiteko eta aurkeztu dugunean gure arazoa, hori landu beharrean gertatu dena izan da banaketa bat. Iada gure aldetik ez dela ateratzen inkomoditate horretan parte hartzeko nahi bat eta gizonek ere ez dutela egin ezer hori aldatzeko eta asumitu dutela gu gure aldetik doazela eta beraiek bere aldetik. Eta haiek ez dutela aldatuko eta guk ez badaukagu prestutasunik aldatzeko, ez dutela guregana joko ezer aldatzeko eta hori bat iruditzen zaidala nahiko adierazgarria gainera, politikako karrera batetan non, suposatzen den gai sozialekiko gertutasun bat dagoela eta horrelako harremanak aldatu nahi ditugula.

B1: esan behar nuen ea agian baita zer garrantzia daukan espazio seguru hori sortzea hitz egiterako orduan, adibidez, nik zuei ez zaituztet ezagutzen, lehenengo aldia da ikusten zaituztedala, baina, seguru sentitzen naiz zuekin hitz egitean eta badakit hori ez zela gertatuko hemen gizon bat egongo balitz. Gero ezagutzean agian segurtasuna sentitzen duzu baina lehenengo pausuan ez da gertatzen eta horregatik igual espazio seguru hori sortzea dela askoz zailagoa gizon bat baldin badago gure kasuan.

B4: eta askotan hori ikusi genuen kobid garaian bi azpitalde egiten zirenean, hausaz azpitalde batean emakume gehiago zeuden, espazioa seguruagoa nabaritzen genuenez, emakumeen parte hartzea askoz handiagoa zen. Adibidez, lehen aipatu dugunari buruz, gure barne kezkek azaleratzen genituenean gizon gehienek lehenengo erantzuna zen gure iritzia eztabaidan jartzea: hori gertatzen da? parte-hartzea txikiagoa da benetan? eta bai agian egia da gutxi batzuek deseraikitze prozesu hori aurrera eramanez dutela baina orokorrean gure kasuan bai banaketa gehiago eman dela.

A4: ez dut aipatu gauza bat, ni euskaldun berria naiz eta niretzako euskalduna izateak ere suposatzen zuela oztopo bat klasean hitz egiterako garaian ez dela soilik generoaren gai bat emakume izatea, baizik eta nintzela oso kontziente agian nire euskera ez zela hain ona, nahiz eta hori gezurra izan, euskaldun berria naiz baina nik hiru urte ditudanetik euskaraz hitz egin dut, euskalduntasun berri bat agian, baina horrek ere exijitzen zidan niri auto-exijentzia maila altuagoa espresatzeko garaian eta gero ikusten ditudala euskaldun berriak klasean, nire laguna, berari berdin zaio zer esaten duen, nola esaten duen, aditzak nola esaten dituen, berak esango du burutik pasatzen zaiona. Eta nik esaldi bat esateko pentsatu behar dut esaldia perfektu dagoela, hasten dela, bukatzen dela, denak zentzua duela, ergatibo bat gaizki esaten badut eta konturatzen banaiz, jartzen naiz... uste dut hizkuntza ere euskarako karreran beste ardatz bat garrantzitsua dena eta generoarekin asko lotzen dena.

6. Fitxa teknikoa: 2. eztabaida taldearen transkripzioa

Transkripzioa:

Nire sarrera

Beraien sarrera

Generoarekiko edo gaiarekiko badaukazue gertutasunik? Militantzian, besterik gabe interesa edo interes politikoa?

A3: nik beti izan det eta horrela hasi nintzen militatzen adibidez generoagatik. Agian 14-15 urterekin harrotasun egunera joaten... eta gero hasi nintzen ezkeran militatzen baina ez talde LGBT edo generoaren talde baten, beste kolektibo batzuetan baina ezkertiarak orduan generoaren gaia eman edo borrokatzen genuen.

Besteak:

A2: ni adibidez unibertsitatera iritsi baino lehenago, herrian zegoen egoerarekin, alardearekin zegoen gatazkarekin ba nolabait kontzientziatzen genun eta garatzen joaten ginen. Eta gero unibertsitatera iristean, gehiago interesatu nintzen ea zergatik gertatzen diren gauzak eta genero diskriminazioan batez ere parte hartzerakoan edozein lekutan, hori da nire hurbiltasuna.

B2: neria ere gehiago militantziagatik izan da, ni militatzen feminismotik hasi nintzen, institutoan, talde feministetan beti eta hortik ere garatzen joan da baina generoaren gatazka beti izan da abiapuntua niretzako, hau da, hasiera.

B3: ni berdin ni hasi nintzen gazte talde feministan militatzen, gero hasi nintzen beste leku batzuetan militatzen eta horregatik ikasten dut, ikasten dudana. Nik nire identitatea sortzerakoan gatazka horrekin hasi zen.

Azaletik begirada bat emanten badiozue zuen ikasgelari, uste duzue generoaren arabera desberdintasunak ematen direla orokorrean?

A2: gu adibidez justu lehen egon gara hitz egiten, hasieratik lehenengo mailan ere, beti edozein galderaren aurrean lehenengo hitza beti gizon batena zela, eta emakumeek askoz gehiago tardatzen genuela edozein galdera erantzuten, edozein komentario edo iritzi, eta hori asko nabarmentzen dela orain ere.

B2: gero ere bai, gure kurtsoan edo gure klasean parte-hartze eta eztabaidak ez dira ematen baina bai da genero ikuspuntutik interesgarria nola hitz egiten bada beti daudela gizonak hitz egiten, askoz jarrera seguru batzuk daudela, hau da, ez dezula inoiz ikusiko gizon bat zalantzan, edo egon gera komentatzen ez? hau da, hitz egiten ari garenean edo egoera ez

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

informal batean beti daukatela iritzia argiagoa, askoz seguruago, badakitela zertaz ari diren hitz egiten ari diren eta eztaikit neskena beti da beste jarrera bat bestea ulertu, hori errazagoa nabaritzen degula, batez ere, egoera informaletan baina, klaseko jendearekin.

B3: bai eta nik uste dut segurtasunarekin eta irmotasunarekin esaten dutela, ni adibidez, ni naizelako baina beti amaitzen dut esaldia eta esaten dut ez? adierazteko banabil zerbait zentzuarekin esaten ezta? baina niretzako da mutilek esaten dute kriston pedrada edo gauza ez interesante bat eta gelditzen dira: bueno nik iada aportatu dut. Nei gustatuko litzaidake nabarmentzea, nola harremanak sortzerakoan sortzen da askoz azkarrago eztaikit zein den elementu hori baina neri iruditzen zait mutilek harremanak sortzean askoz azkarrago egiten dutela eta gu gelditzen garela isilagoan estereotipo horrekin, bueno ba norbait gertutatuko zait?... eta mutilak oso azkar harremantzen dira.

A3: bai, bestearekin lotuta esan duzuela mutilek daukatela dena oso garbi eta galderak egiteko orduan hori islatzen da oso ondo, beraiek galdetzen dute ez dute galdetzen agian, kritikatzuten dute parte bat: hori ez da horrela? eske beste autore batek hor beste gauza bat esaten du. Eta neskek galdetzen dute gehiago, hau agian ez det ulertzen eta kostaka, ze nei baita ere kostatzen zait klasean egotea eta eskua altxatzea. Ze baita ere, ikusten det mutilek ez dutela eskua altxatzen.

Orokorrean uste duzue zuen klasean, nahiz eta, politikaren gradua izan mutilen parte hartzea handiagoa dela ezta?

A2: nik esango nuke baietz, orokorrean zu ateratzen zea klasetik eta daukazun sentsazioa da, emakumeen ahots gutxi entzuten direla eta berak esan duena, gure galderak edo guk ditugun zalantzak daukagu erraztasun gehiago eskua altxatzeko eta galdetzeko, beraiek ezin dituzte zalantzak izan ez? beraiek daukate beraien marko ideologikoa edo iritzia eta listo. Eta gurea da gehiago zurekin erlazionatuta, galdera bukatzean “ez?” esan eta hori askotan, emakume askotan, ni barne

B3: bilatzen duzu aa(ez zitzaion hitza ateratzen)

A2: aprobazioa ez?

B3: bai aprobazioa eta mutilek esaten dute hau eta gainera ez dute galdetzen eta esaten dute oso seguru eta irmoti eta ondo dagoela

A2: orokorrean bai ez da ahots gehiago entzuten.

A3: bai eta gai batzuetan direla generoko gaiak

“Denek barre egiten dute”

A3: beraiek daukate beraien iritzia eta listo eta besteak horrela

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

B2: adibidez gure kurtsoan azkenengoan izan zen “gestación subrogada” eta gai horren inguruan eta lehenengo bi hitzak mutilenak dira eta irakasleak ez badu insistitzen eta esan mutilek ez hitz egin, beste guztiak geratuko ginen isilik. Listo esan dute, nahiz eta zuk zure iritzia eduki eta jakin zer esango zenuen eta gaiaren inguruan asko dakizu baina beti geratzen zara bigarren plano baten. Eta beraiek iada esan dute, eta badakite, gainera oso seguru esan dutenaz.

A2: adibidez joaten geranean etxera, justo bizi gera klaseko hiru neska, gu biok, eta beti da: ze amorru ez dut parte hartu, ez dut hitz egin.

B2: bai justo gai horiek direnean

A2: eta pentsatzen dugu zergatik egiten dugu hori? eta hurrengo klasean goazen hitz egitera

M: bai

B3: guri askotan gertatu zaigu, agian klasetik atera eta denak hitz egiten horren inguruan eta denok dutela gaiarekiko iritzia, askok ez duzula entzuten, oso sakonak direla, oso landuak eta ez dutela esaten eta gero agertzen da mutilek esan dituzten komentarioak. Gainera, adibidez “gestación subrogada” oso landuak ez dira izaten

A3: ez

A2: ez

B2: ez

“Parre egiten dute”

B3: Nik daukat sentazioa oso landuak ez direla izaten eta esaten dutela bueno ondo dago, txarto dago eta listo, oso azalekoak

A3: hitz egiten dute paternalismo batetik esanez, prostituzioarekin berdina, “eske emakume horiek esplotatuta daude eta ez dakite”, bueno eta zu? Eta gelditzen gera neskak eta ni (arrituta). Bestea esanez, “emakume prostitutak daude sisteman sartuta orduan”... bueno lasai, ez dakit.

B3: bueno hori horren inguruan, guri noizbehin hor sartzen dira eragileak, gizartean zer dago? kapitalismoa (erantzuten dute beraiek). Eta irakasleak dio: bueno baina matxismoa ere. Mutilek diote: bai baina emakumea da zapaldua pobre izatearren. Eta gainera dira hiru gizon esaten: emakumea da zapaldua pobre izarrearren bakarrik ze emakume aberats bati ez zaio ezerrez gertatzen. Eta gelditzen naiz arrituta.

Adibidez, gelan bertan espazioan antolaketan ikusten dituzue desberdintasunak? Adibidez, esertzeko lekuaren edo moduaren arabera.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A3: nere klasean bai, baina da argazkia ateratzeko, beti neskak eta ni esertzen gera leku batean, justo eskubian eta mutil guztiak ezkerrean eta baita ere gertatzen da askotan, emakumea lehenengo lerrotan eta mutilak atzea, nere klasean.

B3: gu eske klasean joaten gara bost pertsona, bost pertsona exageratu gabe, eta etortzen den mutila da ... , hori albulan jartzen gera baina agian ni sartzerakoan klase batean lotsa gehiago ematen dit klase erdian eta egia da mutilak sartzen direla, motxila botatzen dute eta erdian jartzen dira eta esaten dute: y que hay que hacer?. Eta gu pentsatzen: egon da ordubete azaltzen teoria eta ariketa eta ez dakit.

A3: bai adibidez Proiektuak diseinatun astesantua baino lehenago egon ginen klase batean, mutilak hor aurrean eta neskak beste lekuan eta saiatzen ginen gauzak esaten...

B3: bai beraiei pikatzeko, ze arraroa zen

B2: gurean enuke esango hain garbi, esertzeko badago mutil talde bat handiagoa dena, hori bai ez daude neska talde handiak eta hori kuriozoso da, neskak beti pixkat banatuago gaude eta dago mutil talde handi bat beti batera esertzen direla gutxi gora behera, baina ez nuke esango oso bereizita dagoenik, eztaikit orain ez zait okurritzen.

A2: nik uste dut lehenengo mailan egin ziren taldeak izan zirela nahiko parekatuak

B2: egia da nahastuta gaude asko eta ez da banatzen neska eta mutilen arabera

A2: esertzeko lekua hori bai da neskak aurrean eta mutil guztiak atzean nahiz eta talde berdinean ibili, esertzeko moduan bai nabaritzen da

B2: bai hori bai agian

B3: pixka bat, taldeak sortzerakoan, (beste hirugarren mailakoari galdetzen dio) zu konturatu zara klasean, mutil danak eramaten dira beraien artean oso ondo eta gu nesken artean daude taldetxoak, zuk esan duzun moduan. Eta hori ez dakit nola sortzen diren harremanak, baina, beti dira beti lehenengoak sortzen eta mutilen artean denak ezagutu eta eramaten dira, eta nik adibidez badaude neskak ez dudala hitz egin inoiz. ez dakit.

B2: bai bai gurean hori bada garbia mutilen talde hori finkoa, beti mutilena... gero geratzen dira mutil batzuk banatuta baino hori nabaritzen da eta nabaritzen da beraien harremana dela gizentasunaren, hau da, perfil antzekoak elkartzen dira, gero “friki” batzuk geratzen direla, baina, ez dakit hori bai nik ikusten dudala.

Adibidez, zuk esan duzun gizentasunaren hori ikusten duzue, adibidez, gizentasun hortan sartzen dituzuen pertsonak publikoan hitz egitekoan erosoago sentitzen direla, zuek emakume edo ez-bitar bezala, hau da, generoaren arabera publikoan hitz egiteko orduan desberdintasuna dagoela?

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A3: bai

B3: bai

A3: eta baita ere birtualki ere, klaseko whatsapeko taldean, mutilek hitz egiten dute eta komentatzen dituzte gauzak eta gero nik edo neskaren batek galdetzen badu zerbait, isiltasuna. Eta bapatean hasten dira stickerrak bidaltzen futbolari buruz. Eta ni geratzen naiz: nola? eta gero berdina gertatzen da pertsonan, klasean beraien gizontasun horrekin, eske ez daukate lotsarik.

B3: bai, nik elkartzen dut hau ... (klaseko gizon bat), gorroto dut pertsona hori baina, gizontasuna eta beti jartzen dira alboan kuadrila hori eta dira benetan, entzuteko modua, baina jartzen dira horrela eta ateratzen dute bularra eta hasten dira esaten edozein tontakeri, agian zerbait ez duela ezer aportatzen bizitzan eta teorian, gizontasun horrekin hitz egiten dute publikoan eta mutil guztiak, besteei ematen die lotsa gehiago, batzuetan irakasleek pertsonalki galdetzen digu, mutilek hitz egiten dute gizontasun horretatik etortzen dena.

A2: nik egingo nuke desberdintasun bat nire ikuspegian, desberdina iruditzen zait mutilek eserita eta aurkezpen batean hitz egiten dutenean arbelaren aurrean, nik uste det emakume askok, ez dakit zehazki eta ez dakit nun dagoen balantza, behatu beharko nuke gehiago, baino daude emakume batzuk ateratzen direla arbelera eta hor hitz egiten dute seguruago. Eta daude gizon asko eserita hitz asko esaten dituztela eta ateratzen dira zutik hitz egitera eta da: “como, me tiembla la voz. uf berdurra” eta emakumeetan ikusten det gehiago alderantziz dela.

B2: bai

A2: gauza kuriooa iruditzen zait, ez dakit etortzen zaizkit pertsonak gure gelakoak

B2: bai eta aurkezpenetan edo horrela badakizunak gero ez dakit e, batzutan uste dut dela ahal dute inseguro egon eta gero kanpora begira beste zerbait da. Hitz egiten, aurkezpen bat egin nuen Teoria Politikoan zaintzaren inguruan eta badakizu dagoela gizon bat beste eragile batekoa esango dizula, zaintzak ez dakit zer “burrada y te suelta un comentario, Marxen aurpegia ordenagailuan jarrita, botatzen dizu komentarioa sinmas egiten du komentarioa eta gero ordenagailuan jarraitzen du” badakizu gero arbelera ateratzen denean ez dela jarrera berdina. Hitz egiten ari zarenean beste gauza batei buruz... bueno gero euskara ere batzuetan, gurean pasatzen zaie, agian euskerarekin ez dira ondo moldatzen eta nabaritzen dituzu urduriago, beste komentario hori esaten dizuna eserita oso ondo, “esan det mi comentario de mierda” baino erez, lehen esan dezu ez, ez dute sakontzen, txarra da ona da, “nik badakit nere eragileak zer esaten duen” -y te lo suelta super seguro-, nik badakit zaintzaren inguruan eta horrela.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A2: eta asko, bueno barkatu, asko irakaslearen aurrean egiten du asko, beraien sentsazio hori “nik badakit”, B2-ren aurkezpenean gertatu zen, B2 eta irakaslearen arteko elkarrozleta bat zen, non, bere ebaluazioa zen, eta mutilak “soltatzen du komentario hori de hemen nago”. Ez da zu, hemen nago eta nik badakit.

B2: bai hori bai izan zen “nahiko kortante”. Bai bueno ez dakit bere gizontasun hortan edo bere gizon ego hortan ikustea ni bere taldean nagoela eta ni berarekin nago aurkezpena egiten eta irakaslea “bola” ematen ari zait gaiaren inguruan eta sartzea horrela eta moztea zu hitz egiten ari zarenean, neri bai iruditu zitzaidan: aurkezten ari naiz zurekin osea relajate, ez nago zure kontra, ez naiz ari zurekin konpetitzen, hau da, zuk gehiago jakin nahi badezu eta gehiago baldin badakizu aurrera. Baina, bai. Eta nik uste det badatorrela hortatik, nik badakit emakume batek ez luke jarrera hori izango, ez luke bat bateanmoztuko, hau da zu hitz egiten egon eta gaintik hitz egin.

Zuek ze sentitzen zarete seguruago hitz egiterakoan talde handian edo ohitura gehiago daukazue talde txikian komentatzeko gauzak?

B3: nik pertsonalki talde txikietan, justu gure klasean bost pertsona hor esaten dut edozer gauza, baina ia etortzen direnean gizon horiek, agertzen dira oso gutxi baina agertzen direnean, isiltzen naiz, ez zait gustatzen, gainera, publikoan ez zait gustatzen hitz egitea. Kriston lotsa ematen dit, ahal badut ez hitz egin, ez dut hitz egiten.

A3: bai baino da klasearen arabera, neri berdina gertatu zitzaidan aurreko lauhilekoan Genero eta Politika ikasgaietan, ginela sei neska eta gero bi mutil, eta eske mutilek ez zuten ezer komentatzen geuden beti neskak eta ni, aurreratua ez, baina bai gehiago hitz egiten genuen, baina gero klase handietan, ni agian ez naiz joaten horregatik, baina, nahiago det neskekin egon, direla lau nire klasean politikan, eta orduan beti gelditzen gera taldeak egin behar direnean elkarrekin jartzen gera edo binaka gure artean, eske mutilekin ez. Eta tokatzen denean hausaz mutilekin egotean nahiago det talde txikian, talde txikietan hitz egiten det.

Zuek uste duzue zuengan eragina daukala adibidez, komentatu duzuen gelan egokitzen bazaizue emakume gehiago daudena erosoago sentitzen zarete, gela handian egon baino.

B3: nei adibidez, lauhileko honetan gertatu zitzaidan, gaizki aukeratu nuela hautazkoa eta jun nintzela gaztelerazko klase batera eta ia denak gizonak ziren eta ni eta euskerako beste bat, ni pentsatzen “ni de coña” hemen ez dut hitz egingo, ni negoen alde batetik hitz egin ahal duzu ez duzulako konfiantzarik eta berdin zaizu zer entzungo duten, baina beste alde batetik zen holako perfilekin ni bakarrik, lau neska, bi ez nituen ezagutzen... gainera zen

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

Desberdintasuna, Gizarte Bazterkeria edo holako zerbait ikasgaia. Eta irakaslea zen gizon bat esaten ez zuela emango generoaren inguruko desberdintasuna. Emango genuelako beste ikasgai batzutan, ni arrituta, arritu egiten zidan desberdintasuna eta gizarte bazterkeria eta aniztasuna eta irakaslea zela, gizon, gizona gazte gainera, esaten ez dut genero desberdintasunaren inguruan hitz egingo eta klase erdiaren perfil nabarituena gizonak beltzen jantzita, ni pentsatzen “escapa”

Zuen klasean neska kopurua eta mutil kopurua antzekoa da?

B2: bai

A2: baina hitz egin, hitz egiten dugu talde txikian

B2: guztiz

A2: lanetarako taldeak egiterako momentuan neskak eta mutilak, hori bai.

Taldean normalean zer egiten dituzue generoaren arabera?

B2: bai nik uste dut baietz, ez dakit kasuren batean bai, baina orokorrean neskak neskakin jartzen gara, nahiz eta talde txikietan gizonekin harremandu, beti jotzen dugu jokaera berdinerara eta taldeak egiterakoan bai

Eta talde lanetan esan duzuela ikusten duzue rolen desberdintasuna dagoela generoaren arabera? Talde mistoak izan direnean, ikusi duzue hau genero batek egiten du, hau besteak...

A2: bai gehiena egin askotan

B3: bai “tirar del carro”

A2: bai dago joera bat, beti zu zaude galdetzen, zu zaude preokupatuta, zu zaude dana, besteak egingo du azken egunean hala nola, beti zu egon behar zea: egin behar dugu hau, egin behar dugu hau, hitz egiten, whatsapp taldea egiten... hori beti da horrela

B2: bai, bai, bai, taldeko ardura ez? pendiente egotea zenek egin duen, zenek ez, zeni esan behar zaion. Nik uste guk gure burua agian batzuetan uzten diogula rol hori eta ateratzen zaizu eta ez zara konturatzen. Eta beste batzuetan ere gizonen rol pasiboak ere azkenean zuri eragiten dizu hartzea eta “tirar del carro”

Zuek zer pentsatzen duzue?

A3: nik nahiago det talde lanak ez egitea mutilekin tokatzen bazait, bai bai, eta gehienetan ez ditut egin mutilak zeudelako, agian irakasleak uzten badigu taldea egitea eta bale aukeratu det aukeratu detena, baina gero jartzen banaute sei edo bost mutilekin eske ez, ez det egiten eta listo eta esaten diot irakasleari ez dudala egingo eta listo, ze agian taldeak aukeratzeko

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

garaian ez dira aukeratu behar, askotan gai bat aukeratu behar da eta ez daukagu interes berdinak.

Eta talde mistoetan rol banaketa ikusten zenuen talde mistoetan?

A3: bai, baina nik ikusten nuen gehiago, lehenengo egunetan edo, taldean egiten denean mutila dago hitz egiten: hau egin behar degu baino gero etxean ez, klasean agian hitz egiten du edo lana banatzen hasten da baina gero agian hiru astetan egin behar da lana eta ez dira agertzen ezta klasera ezta ordenagailuan konektatu.

B3: ni batxilerran nintzen “una dejada de la vida” eta unira iritsi eta egon beharra pertsonen atzertik dana egiten, normalian zure lagunekin jartzen badakizu nolakoak diren eta ondo, baina gogoratzen naiz aurreko urtean jarri zigula irakasleak taldeka eta ni egon behar nintzen **ama** baten moduan: hau egin behar da, hau ez dakit zer, hau ez da egin... Bueno ba batek ez badu egiten, ez du egiten baina eske notan ere eragina dauka zuk ere nota ona nahi baduzu zuk aguantatzen duzu hori. Nik bai bizi izan dut hori eta nik uste erraz ikusten dela, askotan ez dira etortzen eta sartzen zara beste taldeetan eta beti daude emakumeak esaten denbora osoan daudela besteen atzetik, bi gizon kenduta beste denak berdin.

Orduan esango zenukete talde mistoetan lan karga handiagoa sentitzen duzuela, genero berdineko taldeetan baino?

B2: bai bai, nik uste orokorrean baietz esango nuke, askotan gertatzen da guk aukeratzeko ditugula eta taldean neskak garela orduan ez detela egoera hori bizitzen. Baina bizi izan detenea, beti nabaritzen dezu espero dala zuk jarrera hori hartzea, orduan bukatzen dezu jarrera hori hartzen eta lan bikoitza egiten

B3: azkenian zure lagunekin jartzen zarenean badikizue nola funtzionatzen duzuen talde moduan, ni talde horrekin jartzean oso lasai nago badakit aurrera joango dela. Baina, beste talde batean jartzen zarenean, beste kasua denean, zuk esan duzuna, hasieran hasten naiz pentsatzen: lasai hartuko dut. Baina azkenean beti bukatzen dut rol berdina hartzen

A2: gainera adibidez, irakasleak egiten dituen hausaz taldeak eta mistoak, nik bai sentitzen det inkomodidade hori, gizon batzuekin egokitzen bazaizu edo emakume gehiagorekin egokitzen bazaizu ez da berdina, azkenean (bigarren honetan) daukazu segurtasun bat inkoszienteki ateratzen zaizuna, esaten duzulako: daukagula barneratuta rol bat: bera arduratsua da berekin egingo det eta zenekin ez, barneratuta dugun gauza bat da.

B2: bai egia da, ni nahiz eta emakume horrekin ez harremanik eduki, lasaitasun bat da. Justo gaur egokitu zaigu hori egitea, ez naiz berarekin eramaten baina lasai nago badakidalako bere

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

jarrera ez dala hain horrela izango, egokitzea ni eta beste bi gizon, kriston nagua emango zian, badakit zer rol hartu beharko nukeen.

Talde lanetan aurkezpena egiteko momentuan, generoaren arabera ikusten duzue desberdintasuna?

B3: ez dakit egin dudan aurkezpenik talde mistoetan

B2: nik lehen lauhilekoan eta sinmas

Nahiko nuke jakin zuek pertsonalki lan bat egiten duzuenean, ea konfiantza daukazuen? edo ideia negatiboak dituzuen lan bat entregatzeko orduan, edo norbera bere buruakin dituen jarrerak lan bat edo azterketa bat egitean nola sentitzen zareten zuen buruarekiko.

B3: nik beti nire lagun minei bidaltzen dizkiet nire lagun guztiak irakurtzeko, nik benetan pentsatzen dut suspenditu egingo dudala, ni nire ikasketa prozesuan betik beti izan dut dena uzteko joera, irakasleen komentario asko asko jaso ditut: “no vas a llegar a nada en la vida”. Horregatik, inseguritate bat askotan heltzen naizela eta justo unibertsitatean gertatu zait pentsatzea: ez naiz gai hau ateratzeko. Eta beti nire lanak bidaltzen dizkiet lagunei irakurtzeko eta azterketetatik ateratzean beti lagun minei kontatzen diet idatzi dudana eta “se la suda” baina nik dan dana esaten diet eta beraiek esaten didate: lasai, ondo egingo zenuen. Oso negatiboa naiz nire buruarekin.

A3: bai, gainera ni beti pixkanaka joaten naiz egiten lana eta galdetzen denbora guztian: hau horrela egin behar? edo galdetzen edozer gauza edo batzuetan hain gaizki nago ezin dudala lana egin, pentsatzen det ez naizela gai lana egiteko.

Besteak:

B2: bai nik ere bai, beti eduki izan det zalantza hori, nik uste gehiago ondo egiten ari naizen, gaindituko dudan edo ez, neri gehiago kostatzen zait azterketetan edo aurkezpen batean, egin baino lehenago nire buruan daukadan mezua: ez dut ondo egingo, ez dut ondo egingo. eta ni nere buruari esaten: egingo duzu. Nire buruarekin borroka bat da eta normalean gertatzen zait aurkezpena edo azterketa baino lehenago. “dena ahaztu zaizu” eta holakoak dira nire buruak bidaltzen dizkidan mezuak. Agian lan batean gutxiago baina aurkezpen eta azterketetan askoz gehiago.

A2: ni agian justo atzo egin genuen lehenengo ahozko azterketa bat eta gaixki pasa nuen azterketa egitean, azterketa baino lehen eta egun bat lehenago ere. Eske enintzen ondo, ez nintzen sentitzen ondo, ez urduri, iada gaizki sentitzen nintzen, esan nion M-ri gaizki nago, ez nintzen osea buff, ez nekien ea gai izango nintzen jartzeko irakaslearen aurrean kontatzen

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

nire “perlada” guztiak... Azterketan ez daukat sentsazio hori ze nago ni bakarrik orduan ateratzen da ateratzen dena baina presentzia hori uff asko inkomodatzen dit.

Hau da, notatzen duzue gehiago ahoz hitz egitekoan estres gehiago idaztekoan baino?

A2: askoz gehiago

B2: bai

B3: gainera idazten behintzat ni bakarrik nago baina ere bai idazterakoan talde lanetan urduri jartzen naiz, ez dakit ondo egingo dudana, ez dakit besteei gustatuko zaien, ondo egongo den... Nik idatzitakoa edo pentsatzen dudana esan behar dudana, egin behar dudana, jendearen aurrean oso urduri jartzen naiz Behintzat azterketan bueno agian botatzen dut “kriston perlada” eta suspenditzen badut suspenditu dut, baina ez daki inork nor naizen, behintzat ni ni bakarrik, gaizki espresatzen banaiz pertsona bakarrak irakurri du, baina behintzat ez dit ikusi aurpegia.

A3: niri kontrakoa gertatzen zait ahozkoan ondo, bakarrik pertsona batek irakurriko du eta ahal du hamabi aldiz irakurri baina ahozkoa konpondu dezaket, agian gehiago gustatzen zait ahoz egitea, bueno agian azterketa bat ez, baina aurkezpen bat bai, hasten naiz hitz egiten eta agian zerbait gaizki esan baina konpondu daiteke. Baina idazteko orduan idazten dezu eta pentsatu behar duzu: ondo dago, gaizki dago? eske horrela gelditu behar da, edo ondo jartzen det edo listo, baina ahozkoen beti gustatu zait baita ere hitz egitea jendearen aurrean, eske idazteko orduan asko kostatzen zait Euskara, ahoz ez, bueno baita baino konpondu dezaket, prozesuan konpondu dezaket.

Orain nahiko nizuen galdetu pixka bat ea sentitzen dezuen irakaslean generoaren arabera ikasleei tratu desberdina ematen dien? eta irakaslea emakumea, gizona edo beste genero batekoak eragina daukan irakasleekiko daukaten tratuan.

B3: nik uste dut irakaslea emakumea denean errazagoa dela berari erantzutea. Hori agian bizi izan dut gehiago bigarren hezkuntzan. Baina, unibertsitatean ere ikusi dut emakumea denean errazagoa dela hitz egitea edo zalantzan jartzea esan duena, irakasle gizonen aurrean ez dut hainbeste ikusi, gehiago ikusi dut emakumeen aurrean. Gero ea nola tratatzen diguten, gehiago ikusi dut bigarren ezkontzan, ni adibidez izan nintzen pertsona bat oso gaizki portatzen zena eta nire anaia ere bai, eta nire anaia zen, “el probrecito que ha sufrido mucho y estaba en la edad” eta ni nintzen “la maleducada” emakumea nintzelako eta gaizki portatzen nintzelako eta uste dut nintzala bakarretakoa. Gero unibertsitatean jarrera aldatu nuen baina ez dakit.

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A3: niri gertatu zait gehiago, agian ateratzen denean Queer-on gaia edo LGBT, gehienetan irakaslea gizona bada, azaltzen du gauza klasean guztiak mutiak izango balira bezala, super arraro, oso abstraktu: adibidez, Alemanian ez dakit zein alderdi Queer-ekin zeukaten ez dakit zer. Baina ni pentsatzen klasean, hemen nago kaixo. Edo batzuetan kontrakoa gaude hitz egiten horretaz eta daude denbora guztian begitara begira “como sé tu secreto”. Ez dakit.

Orduan tratatu desberdina dago irakaslea emakumea, gizona edo beste genero batekoa denean?

A3: bai eta baita ere hori gertatzen da, ze ez dakit nola egin daude irakasle batzuk oso zaharrak direla, hori iada “pasando” baino gazteenak eta horrela daukate rife-rafe bat ze ez dakite nola egin edo nola azaldu eta gero baita ere **lauhileko bukaeran ematen digutenean orria irakaslea ebaluatzeko, beti jartzen du: mutila edo neska**, gero agian klasean hitz egiten dute genero ez bitarrak daudela, baina gero unibertsitateak ez du hori “kontenplazten” Hau da, zuk sentitzen duzu hor hutsune bat dagoela?

A3: bai, guztiz

Eta zuek irakasleen jarrera nola ikusten duzue?

B2: ez dakit, bai nik uste gizon irakasleei zuk esan duzunaren harira badago errespetua edo batzuei idolatratuago ideologiak baldintzatuta, “rollo dioses batzuk” eta emakumeetan ez da hori gertatzen, oso gutxi ikusten dezu emakume bat goraiatzen eta errespetu gehiago horrekin eta agian emakume irakasleen jarrerak goxoagoak dira: ulertuko zaitu. Eta gizonekin beti da zorrotzagoa.

A2: nik uste det agian emakume irakasleak presentzia gehiago daukatela generoaren kontua edozein arlotan eta gizonak aparte uzten dute, aurreko lauhilekoan ez dakit ze irakasgai (pentsamendu politikoaren historia) baina, kexatu ginen ez zeudelako emakume autoreak eta zeuden jarrita azkenean bat eta orduan, gizonak ez dute hori bere materian sartzen, gauza aparte bat izango balitz bezala

B2: bai egia da argia da zaharra dela eta orduan gu ez ginela jotzen berarekin, gainera harro esan zigun aldatzen zuela iruzkinetan jartzetik gazteleraz “el hombre...” eta berak aldatzen dituela “a seres humanos”

Denak barrez

B2: “rollo” super harro, eta nola esan ahal genion berari hori, iruzkin guztietatik aldatu zuenean hori

Denak barrez

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

A2: eta gero izan zen ez ziola denbora ematen materia guztia emateko, ba sartu bat lehenago eta ez eman gizon bat, gero gainera eztabaida zen: Marx eman behar zuela “madre mia”

Denak barrez

A2: orduan zen Marx edo emakume bat, orduan zen kontestu gogorra

B3: nik uste dut ... (irakasle bat) kontraesan bat, nik neukan emakume bat irakasgai hori ematen eta orain nagoen bigarreneko bat gizon bat, eta nik eman nuen emakume, gizonak teoria moduan eta emakumeak zirela lan handiak eta uste dut berak ez zituela eman emakumeak, nire irakasle emakumeak bai garrantzi handia ematen ziolako horri, besteak zuk esan duzuna

B2: hamahiru ziren eta hamalagarrena (emakumea) jarri zuen eta ez zion denbora ematen eta oso harro esan zuela “el hombre” aldatzen du eta listo.

Zuek adibidez, lehen komentatu dela gizonak gehiago hartzen dutela parte, ikusten duzue irakasleak horren aurrean zerbait egiten dutela edo saiatzaren direla sustatzen denon parte-hartzea?

A2: eske gure klasean ez da inolako eztabaidarik ematen, inorrek ez du hitz egiten eta uste dut ia daudela: “enplan paso, paso”

B2: eske oso parte-hartze gutxi dago gure klasean, ez du jendeak hitz egiten

A2: ez dago, eta saiakerarik iada ez dute egiten, galdetzen badu mutilen hitz egiten dute, horiek hitz egin eta beste gai batera aldatzen da, iada daukazu interiorizatua zenek hitz egingo duen

B2: uste dut lehenengo mailan izan zela, jarri ziguten taldeka, ez naiz gogoratzen ze irakasgai izan zen baino talde bakoitzean zenek idazten zuten zenek idatziko zuen eta bost taldeetatik lau emakumeak ziren, idazkarian papera emakumeena izan zen eta hori izan da agian gehiena, bira zer hari den gertatzen klasean, banatu zaituztela, eta emakumeek bakarrik idazten dutela. Baina ez det uste horrela generoaren inguruko beste...

B3: Gero ea nola tratatzen diguten, gehiago ikusi dut bigarren ezkontzan, ni adibidez izan nintzen pertsona bat oso gaizki portatzen zena eta nire anaia ere bai, eta nire anaia zen, “el probrecito que ha sufrido mucho y estaba en la edad” eta ni nintzen “la maleducada” emakumea nintzelako eta gaizki portatzen nintzelako eta uste dut nintzala bakarretakoa. Gero unibertsitatean jarrera aldatu nuen baina ez dakit.

Eta zuek idazkariaren rol hori ikusi duzue emakumeengan?

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

B3: nik gehiago klasean ikusten ditudala emakumeak apunteak hartzen edo eta gizonak komentatzen...

A3: edo ordenagailuan

B3: bai edo ordenagailuan “jugando al solitario o viendo baloncesto o futbol”, zerbait esan behar nuen baina ahaztu zait.

Moderatzailea: agian irakasleena edo? ea zerbait egiten duten parte-hartzea sustatzeko?

B3: a bai egia da guri ere gertatu zaigu edo gertatzen zaigu, justo beti hitz egiten dauden bi gizon horiek kanpoan daude (Erasmus), baina bai lehengo urtean, gainera, bazekiten (irakasleek) nork hitz egingo zuen? eta geratzen ginen lasaitasun horretan ez dut hitz egin behar, agian horrek kalte egiten du ze sartzen gera zirkulo horretan badakigula nork hitz egingo duen, irakasleak behintzat ez da kexatuko inork hitz egiten ez duelako. Orduan, sartzen zera, hartzen dituzu apunteak eta listo, sartzen zara papel horretan eta erosotasun horrekin, behintzat ez naiz publikoan agertuko hitz egiten eta nire aliantzak begiratzen ea norbaitek afirmatuko didan ondo esan dudana esan behar nuen gauza, iada sartzen zara zure erosotasun horretan

A3: bai horregatik nik uste dut agian irakasleak saiatzen direla baina azkenean egiten dutena da rol horiek erreforzatu, ez hitz egin, hitz egin, baina beti mutilek hitz egingo dute neskek baino gehiago eta taldeetan berdina azkenean berdina zaie, nik uste dut berdina zaiela emakumeak ze rol hartzen duten, gizonak... azkenean zuek lana egin, talde bat zarete, oso gazteak, eta denak “feministak”... Hor uzten dute.

B3: bai eta gainera esaten dute, norbaitek ez badu egiten lana ba etorri eta esan, nik kriston lotsa ematen dit jutea irakasle batena eta esatea honek ez du egiten lana, ni gainera naiz ba ez badu egiten bere lana eta nik egiten dut, ze kriston lotsa ematen dit jendearena joatea esaten: ez duzu hau egin... baina hori gainera, esaten dute nabaritzen baduzue norbaitek ez duela egiten, klaro ta jungo naiz zuregana esatera, ba ez

Nahiko nuen galdetu ondorio bezala zein esango zenukete desberdin handiena?

A2: nik desberdintasun gehiena ikusten dudana, lehen esan bezala, lehenengo hitza beti da gizon baten ahotsa, baina juten bazera klasetik kanpo berdina erreproduzitzen da edozein lekutan, orduan ematen du ez dela hainbesterako baina bai da gauza potentia emakumeek ze intsegritate daukaten publikoki edo ez publikoki bere iritzia emateko, ez bakarrik ahotsez hitz egin, baizik eta iritzia emateko

B2: nik orokorrean diferentzia handiena nik uste presentzia dela emakumeen eta pertsona ez-bitarren presentzia dela, ez dago hitzartze horretan, klaseak ematerako orduan,

Genero desberdintasunaren beste ezpala bat

irakaslearen jarreretan, presentzia bat: hemen gaude hitz egin dezakegu edozein gauzen inguruan, ez bakarrik generoaren inguruan, maila gauzen inguruan eta nik uste dut hori dela diferentzi handiena, gizonei bai nabaritzen zaie klasean, ez?

B3: bai, ondorioa baino lehenago esan duzunarekin... ahaztu egin zait, ez dakit, bueno berdin du

Moderatzailea: etorriko zaizu lasai

A3: neri lekua, ze nik uste dut hori gertatzen dela bai hirugarren mailan erasmusekin eta horrela, bigarren mailan ez zen hainbeste gertatzen, baina politikan hirugarren mailan eske zatitzen da azkenean klase guztiak soziologia, politika eta bai lekuarena da argazkia ateratzeko eta hori ikusten da oso ondo, nola esertzen garen, baita ere esertzeko modua: beraiek daude piña egiten, (botata), ordenagailuarekin... eta beste guztiak gaude, bueno beste guztiak ez lau neska eta ni, neretzako hori ze ikusten da.

Zuk uste duzu hortan eragina izan duela politika eta soziologia banatzea?

A3: bai eta baita ere, niri gertatzen zait, natorrela batxilergotik geundela klasean bi mutil ni eta beste marika bat, orduan niri uniak txokatu zidan, ze bat batean egotea klasean eta **eske orain okerrago, daude hamar mutil eta biolentoa egiten zait batzuetan ez naiz klasera joan edo klasetik atera naiz, ze guztiak mutilak ziren**. Hori gertatu zitzaidan aurreko lauhilekoan, jutea klase batera goizean eta ez zeudela neskak eta ni hor bakarrik mutilekin eta deskantsoan bakarrik erretzen eta beste guztiak elkarrekin futbolaz hitz egiten. Ba ez dakit hor ikusten det.

B3: nik esan behar nuena lehen ahaztu dudala, emakumeei ere ematen digute edo ez-bitarrei garrantzia, beirutzen zaitue horrela feminismoan inguruan denean baina marxismoaren inguruan denean ez, adibidez, independentzia edo edozer gauzatzaz hitz egiten duzunean “da como zure ahotsa no vale” iada feminismoaren gaian denean: “vamos a la mujer”. Niri ondorio edo amorru gehien ematen didana da nundik esaten duten, gizontasun horrek eragiten duela ba hori espazio arrotz bihurtzea eta lehenengo hitza gainera, nola jartzen diren hitz egitean, (botata, postu pasota). Niretzako da nundik hitz egiten duten eta arrokeria edo eztakit hori.

Zerbait gehitzeko?

Denek: ez

Ba listo:

Txaloak